# Goienkaria

2008ko azaroaren 14a > Egubakoitza > VIII. urtea > 353. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Garaian, nazioartean garatzen diren proiektuetara heldu nahi dugu"

**Jesus Mari Herrasti**

Garaia > 09

**G2a** **Datorren asteburuan, zarzuela** > 43

**EKONOMIA** **Euskal kutxen bategitearen gaineko hainbat ikuspuntu** > 07

**EUSKARA** **Hizkuntza gutxituen gaineko jardunaldiak, AEDren eskutik** > 19

**FUTBOLA** **Preferenteko hiru taldeek etxean jokatuko dute asteburuan** > 40

**JENDARTEA** > PARTAIDETZA

## Biztanleei galdeketak bi herritan

Arrasate eta Oñatiko udalek partaidetza bultzatuko dute, Aldundiarekin > 06

**EKONOMIA** > EUSKARA

## Bikain agiria lortu dute ibarreko bost enpresak

Ibarreko Goiena, Emun, Elay, Fagor Etxetresnak eta Eroskiri Bikain euskara ziurtagiri sortu berria eman zieten Eusko Jaurlaritzak eta Euskalit kalitatearen erakundeak astelehenean, Bilbon. Erkidegoko 30 enpresa eta erakundek jaso zuten agiri bana, euskararekiko konpromisoa saritzeko. > 05



*KO*, herritarrek aukeratu duten proiektua.

GOIENKARIA



*Kisky.*



*Harrizate.*



*Suelo.*



*Tronera.*

**ARRASATE** > IDEIA LEHIAKETA

# San Josepeko bost finalistak, aukeratuta

**HERRITARRENA** Balioetsitako 336 botoetatik, 'KO' izeneko proiektuarendako izan dira %22

**MARTXORA BEGIRA** Bost proiektu finalistetatik irabazlea zein den martxoan jakinaraziko dute > 19

**BERGARA** > UDALA

## Plan Orokorra onartu dute

Behin-behineko onarpena, herriaren antolamendu ereduari > 24-25

**Danbakako 3. kontzertua**

Elgetako Espaloia, 22:30
5 euro; Gaztekutxa, 3 euro

- > Los Viernes Al Ron
- > Bitter Honey
- > Army-Arma
- > Brankan

DANBAKA

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 05-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46-48
**Gazteak** > 50
**Telebista-Irratia** > 51
**Denbora-pasa** > 52
**Berri-zakua** > 53
**Non-zer** > 54-55






**GARRAIOA** > LURRALDEBUS TXARTELAK

# Txartel berriak autobusean merkeago bidaiatzeko

**HOBARIAK** Txartel berriekin izango dituzte onurak familia ugariek, oinarrizko errenta jasotzen dutenek, 65 urtetik gorakoek eta gazteek

**ESKAERA** Ibarrean 15 estanko, liburudenda eta kioskotan eskatu eta kargatu daitezke Lurraldebuseko txartelak



Eskoriatzako autobus geltokian Lurraldebus txartelarekin hartzen dute egunero Gasteizera joat

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Jende asko da egunero lanera edo ikastera joateko autobusa hartzen duena eta erabiltzaile horien joan-etorriek poltsikoari eragindako zuloa nolabait arintzeko zenbait talderendako hobariak dituzten Lurraldebus txartelak ipini dituzte abian azaroan: familia ugariendako, oinarrizko errenta jasotzen dutenendako, ezinduendako, 65 urtetik gorakoendako eta 10 urtetik beherakoendako. Txartelok sartzen dira otsailean martxan ipini zuten txartel bakarraren barruan eta hobari gehigarriak %20 eta %100 artekoan izango dira.

**Lurraldebuseko txartel berriak eskuratzen dituzten erabiltzaileek %20 eta %100 arteko hobari gehigarriak izango dituzte ohiko txartelarekiko hemendik aurrera**

**Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunen esanetan, ekimen honen helburua da garraio publikoaren erabilera sustatzea ibilgailu partikularren aurrean**

### LAU TXARTEL BERRI

Txartel berriak lau dira guztira: Oinarrizko errenta jasotzen dutenek, txartel sozialarekin %100eko hobaria izango dute. Hau da, erabiltzaileak txartela 10 eurorekin kargatuz gero, bikoitza, 20 euro zenbatuko ditu. 10 euroko aldea Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko dio Lurraldebusi. Txartel hori eskatzerakoan ohiko inprimakiaz gain, erroldako eta Gizarte Zerbitzuetako Departamenduko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Nagusiak txartela da bigarrena, 65 urtetik gorakoendako txartela, hauek %20ko hobaria izango dute. Hobari bera jasoko dute mugikortasun urria dutenek, ezgaitasuna %65ekoa edo gehiagokoa denean. 65 urtetik gorakoek errolda ziurtagiria aurkeztu beharko dute txartela eskatzerakoan eta ezgaitasun ziurtagiria mugikortasun urria dutenek.

Izenak berak adierazten duen moduan, Ugariak txartela familia ugariendako da. %20ko hobaria jasoko dute hiru seme-alaba dituzten familietako kideek eta %50ekoa lau seme-alaba edo gehiago izanez gero. Ugariak txartela eskatzerakoan familia liburuaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute ohiko agiriarekin batera.

Gazteen txartela da laugarrena. Urrian abian ipini zutena. 24 urtetik beherakoendako da eta %20ko hobaria du. Urriaren 30ean 4.808 gazte ziren txartela egin zutenak. Egun horretan gazteek 97.860 euro sartuak zituzten txarteletan eta Foru Aldundiak horren truke %20ko hobari moduan, 21.554 euro ipini zituen.

### 10 URTETIK BEHERAKOEK DOAN

Txartel horiez gain, bada beste bat 10 urtez azpiko neska-mutikoek doan bidaiatu ahal izateko behar dutena. Txartel hori erabiliz Lurraldebusek aukera izango du erabiltzaile kopurua zenbatzeko eta zein konpainiatan bidaiatu duten jakiteko eta enpresari bidaia horiek ordaintzeko.

Lau urtera arteko umeek, legez, doan bidaiatzen dute lekurik hartzen ez badute, baina etorkizunean beste edozein erabiltzaileren tarifa izango dute. Txartelarekin, 10 urte bete arte bidaia doan egingo dute.

### KIOSKOETAN ETA ESTANKOETAN

Txartelak prentsa saltzen duten tokietan, estankoetan eta liburu dendetan eskatu eta kargatu daitezke. Gurean, 15 tokitan: Antzuolan, Altzarten; Aretxabaletan, Duranako kioskoan eta Ibarra estankoan; Arrasaten, Portalon kioskoan, Sagasta, Alegria eta Valentin Arana estankoetan; Bergaran, Ikasbi liburudendan eta Bideberriko kioskoan; Elgetan, Julianen kioskoan; Eskoriatzan, Adelaren kioskoan; eta Oñatin, Ibarrondo, Haritza eta Hirukar liburu dendetan, eta Irizar eta Altuna estankoetan. Bestalde, hiriburuetako autobus geltokietan ere eskura eta karga daitezke.

Lau euroren truke erosi ahal izango dira txartelak. Aurrez, txartel bateratua dutenek ere hobariak nahi izanez gero berriak erosi beharko dituzte. "Txartel hauek beste neurri batzuk dituzte. Bistara ez dira nabaritzen, baina ezaugarri bereziak dituzte eta hori da kostu erreala, lau euro. Oinarrizko errenta kobratzen dutenek bueltan txartelean kobratzen dute zenbateko hori", azaldu digute Foru Aldunditik.

Autobusera sartzerakoan eta irteterakoan pasa behar da txartela makinatik, horrela jakiten

ERRETIRATUEN ESKARIAK

## "Erretiratuak eta gipuzkoarrak garenez, eskatzen dugu deskontu berberak izatea"

Erretiratuek behin eta berriz egin dituzte eskariak autobus zerbitzuaren gainean. Euren beharrak eta nahiak zein diren azaldu digu Jose Riviere Debagoieneko erretiratuen batzordeetako presidenteak. "Erretiratuei ez ezik debagoiendar guztioi eragiten digun arazo bat da Debagoienak ez duela beste bailara batzuek hainbeste zerbitzu. Gasteizerako aukera zabalagoa da, beharbada, baina Donostiarako apur bat falta da eta Bilborako zerbitzuetan zer esanik ez", azaldu digu.

### OSPITALEKO GELTOKIA ETA UDAN KOSTALDERA

Bere esanetan, beste arazo bat da Arrasaterako autobusak ospitalean ez geratzea. "Batzuk etorriko dira Arrasatera egunen baten buelta bat ematera autobusez, baina gehienak ospitalera etortzen dira. Eskaria hainbat aldiz egin dugun arren, ez da bete", dio Rivierek.
Beste galdera bat ere egin du Jose Rivierek: "Zergatik udan ez dago kostalderako garraio zerbitzurik?"

### DESKONTUAK, DENEK NEURRI BEREAN

Erretiratuek garraio kolektibotean ordaindu beharrekoaren harira ere kexa azaldu digu: "Zergatik dira ezberdinak gure prezioak eta beste bailara batzuetakoenak? Esaterako, Eibartik, Zumarragatik, Elgoibartik..., oso merke joan daitezke Eusko Trenbideetako garraioekin; baina, gure aukera bakarra Pesa da. Moldatu dituzte prezioak eta denon onurarako da, baina guk eskatzen ditugu prezio espezifikoak guretzat, erretiratuontzat. Deskontuak egin dituzte, lehen %40koak zeuden eta orain erretiratuok %20 gehiago izango dugu, baina ez prezio osotik baizik eta geratzen zenetik. Deskontuak eginez gero, ezingo gara kexatu, baina erretiratuak eta gipuzkoarrak garen neurrian eskatuko dugu gainontzeko erretiratu gipuzkoarrekin erabiltzen duten neurria erabiltzeko gurekin ere".




eko autobusa gazte hauek. IRATI AGIRREAZALDEGI

TXARTEL BERRIAK

**> 'GAZTEAK'**
Urrian ipini zuten abian 24 urtetik beherakoendako txartela. %20ko diru saria jasoko dute. Hau da, txartelean euro bat sartzen duten bakoitzeko 1,20 euro izango dute. Bestalde, bidaia kopuruaren arabera, %40, %70 eta %90eko deskontuak izaten jarraituko dute.




Lurraldebus zerbitzuetarako txartela.

**> 'SOZIALA'**
Txartela da oinarrizko errenta jasotzen dutenendako, bazterketarako arriskua dutenendako, zaintzapeko gazteendako, errenta aitorpena egitera behartuak ez dauden pentsiodunendako... Txartelaren jabeek %100eko saria izango dute, hau da, euro bat sartuta bi kontatuko dira.

**> 'NAGUSIAK'**
65 urtetik gorakoek eta mugikortasun arazoak dituztenek (baliaezintasun edo elbarritasun maila %65etik gorakoa) erabili ahal izango dute txartel hau. %20koa da bonifikazioa.

**> 'UGARIAK'**
Seme-alaba kopuruaren arabera, %20 eta %50 arteko bonifikazioa izango dute txartelaren jabe diren familia ugarietako kideek. Beste diru sariak ere pila ditzakete: 24 urtez azpikoendako edo elbarriendako direnak, adibidez.

baita zein ibilbide egin duen bidaiariak eta ea zona bat baino gehiago pasa dituen.

**IBARREAN 8.544 TXARTEL**

Egun, guztira, 93.303 txartel bakar daude abian aldagarri guztiak kontuan hartuta. Ibarrean, 8.544 dira txartelak. Gazteen txartelak dira gehien, baina kontuan hartu behar da txartelok urrian ipini zirela abian. Debagoienean 575 txartel dira denera gazteenak.

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatu Arantza Tapiak txartel berrien aurkezpenean esan zuen, "urrian Lurraldebusen ibilbideetan barrena egindako bidaien %65, txartelekin ordaindu dira eta hori da arrakastaren eta herritarrek egin duten erabileraren erakuslerik onena".

Autobusean hona eta hara sarritan ibiltzen direnendako txartel bakarrarena aurrerapausoa da. Arantza Tapia diputatuaren esanetan, "ekimen honen helburua da garraio publikoaren erabilera sustatzea ibilgailu partikularren aurrean, tarifa merkeekin, autobus etengabe berrituekin eta denbora-distantzia ratio erabat lehiakorrekin".

ERABILTZAILEEN ESANETAN

## "Haserre gaude, prezioak igo ahala kalitateak behera egiten duelako"

Egunero Gasteiztik Eskoriatzara eta Arrasatera 07:30eko autobusean joaten diren erabiltzaileak haserre daude autobus konpainiarekin. Diote bidaia ez dela batere segurua eta euren egoeraren berri eman digute.

Iaz hasi ziren zerbitzuaren beherakada sumatzen Gasteiz eta Arrasate arteko 06:30eko zerbitzuan. "Lineako autobusa ordezkatu zuen herri artekoak. Pesan jakinarazi ziguten Gipuzkoako Foru Aldundiak baimena ematen ziela autobus hori erabiliz Arlabandik jaisteko eta, gainera, 20 lagun zutik joateko", diote erabiltzaileek.

Jakinarazi digute Pesak erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako bonoak zituela. "Otsailean txartel elektronikoa ipini zuten abian eta horrek prezioen igoera eragin zuen. Gero txartel bakarrera pasa eta bonoak kendu zituen Pesak. Hortaz, egunero zerbitzuaren erabiltzeok pasa gara urtean 600 euro ordaintzetik 1.000 eurora". Txartelarena kalterako delakoan daude. "Gasteiztik Eskoriatzara zein Arrasatera joateak berdin balio du", esan digute.

**SEGURTASUNIK EZ**

Txartelen gaineko kexak izan arren, batik bat segurtasunik ezak kezkatzen ditu. "Arlabandik edo Gatzagatik joatea ez da nolanahiko bidaia, gainera, herri arteko autobusak ez dira batere erosoak eta bada giharretako mina izan duenik. Hori gutxienekoa da, ordea, segurtasuna da guk eskatzen duguna. Egunero istripuren bat izateko arriskua ikusten dugu, are gehiago neguan euriaren, elurraren edo izotz plaken eraginez; eta eguraldia ez da traba bakarra, bidea ere oso estua da autobusarendako. Istripu bat gertatuz gero, zaurituak ez ezik hildakoak ere mordoa izan litezke eta gidariek onartu egiten dute hori".



Gasteiztik Arrasatera 07:30ean herri arteko autobus batean etortzen dira eta jendeak zutik egiten du bidaia. JON UZKIANO

**AUTOBUS EGOKIAGOAK**

Haserrea adierazteaz gain, irtenbide batzuk ere proposatu dizkiote Pesa autobus konpainiari euren goizeroko bidaia horren astuna izan ez dadin: "Batetik, proposatu dugu autobus egokiagoa ipintzea. Lineakoa bada hobe, baina herri artekoa ipiniz gero, gutxieneko segurtasun neurriak izatea, batik bat zutik joaten direnendako. Esaterako, pasabidean barrak ipintzea eusteko. Bestela, lurrean esertzea da bide bat, baina horrela kolpeak jasaten dira; eta zutik joanez gero, ez dago eusteko lekurik eta mareatzeko arriskua dago. Bi autobus ipintzea da beste proposamen bat. 06:30ean bi autobus ipintzen dituzte: bat Arrasatera, unibertsitatera doazen ikasleendako, eta bestea gainontzekoendako. Hortaz, proposatzen dugu gauza bera egitea Eskoriatzako ikasleokin 07:30ean".

Debagoienean, beharbada, herri batetik bestera ibiltzeko autobus horiek nahikoa direla diote, ibilbidea lauagoa delako, "baina Gasteiztik gatozenondako arriskutsuak dira".

Ezer gutxi lortuko dutela diote etsipenez, "baina gure asmoa da jendeak jakin dezala zer pairatzen dugun".

Euren eskariei konpainiak kasu eginez gero, bidaia erosoago eta arriskutik kanpo egitea lortuko lukete, bederen.




ESKAINTZA PAREGABEA

Naturgas energiarekin,
gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan: 3.300€ (BEZ kanpo).

+

KREDIGAS finantziazio berezia, instalazioa hileko kuota erosotan finantzatzeko.

+

570 € ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarraren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

**902 123 456 Telefono Urdina**
www.naturgasenergia.com

naturgas energia



Agiria jaso zuten Debagoieneko enpresetako ordezkariak, Miren Azkarate Kultura sailburuarekin eta Migel Lazpiur Confebask-eko presidentearekin, agiri banaketa ekitaldia eta gero. LEIRE KORTABARRIA

**LANA** > EUSKARA

# Goienak eta ibarreko beste lau enpresak Bikain euskara ziurtagiri berria jaso dute

Euskara lan arloan normalizatzearen aldeko konpromisoa aitortzen du agiriak

**LEIRE KORTABARRIA** > BILBO

Debagoieneko bost enpresak –tartean, Goiena Komunikazio Zerbitzuek– Bikain euskara ziurtagiria jaso zuten astelehenean, Ibarretxe lehendakariaren eskutik, euskara eguneroko lan jardunean normaltasunez erabiltzeko duten konpromisoaren eta emaitzen aitorpen gisa. Bost horietako hiruk, Goienak, Elay taldeak eta Emun kooperatiba elkarteak, maila goreneko agiria, urrezkoa, jaso zuten; eta beste biek, Fagor Etxetresnek eta Eroskik, zilarrezkoa, maila ertainekoa. Enpresa guztietako ordezkariak oso pozik agertu ziren. Denetara, Euskal Autonomia Erkidegoko 30 enpresa eta erakundek jaso zuten agiria.

Bestalde, 120 lagun ibili dira enpresetan eta erakundeetan ebaluaketak egiten, eta horietan debagoiendarrak ere izan dira.

**AGINTARIAK, HARRO**

Ekitaldia Bilboko Guggenheim museoan izan zen, lehendakariarekin, Miren Azkarate Kultura sailburuarekin, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politika sailburuordearekin eta Migel Lazpiur Confebask-eko presidentearekin. Hizlariok azpimarratu zuten euren "harrotasuna" enpresek erakutsi duten konpromisoarekin.

**"Debagoienean aurretik ereindako haziak fruituak ematen dihardu"**
**Inazio Arregi** > Goiena

**"Daramatzagu 15 urte honetan, eta euskara gure lan hizkuntza da gaur egun"**
**Anaje Narbaiza** > Elay

**"Ibarreko lan arloan euskara osasuntsu dago, maila onarekin; ni baikorra naiz"**
**Txema Abarrategi** > Fagor

**"Garrantzitsua da administrazioak euskarari prestigioa ematea"**
**Inma Elexpuru** > Emun

**"Euskararekiko konpromisoa dute gure enpresa askok; eredu izan daitezke"**
**Migel Lazpiur** > Confebask

## JARDUNALDIA: KOIUNTURA EKONOMIKOA

Antolatzailea:

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Babesleak:

Garapen
Valora
INNOVACIÓN EN LA GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN
Gizarte funtsak zure ekorkizunean inbertitzen du
El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro

- **Nori zuzendua:** Edozein tamaina nahiz sektoretako Debagoieneko enpresak.
- **Eguna:** 2008ko azaroak 20.
- **Tokia:** Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa etorbidea 17, 2. solairua. Arrasate.
- **Ordutegia:** 17:30 - 19:30.
- **Aurkezlea:** Antton Perez de Calleja. Ekonomialaria.
- **Egitaraua:**
  - Gaur egungo egoera ekonomikoa.
  - Krisi ekonomiko luze bati aurre egiteko bideak.
  - Galde-eskeak.

**Izena emateko edo informazioa eskatzeko:** Tel.: 943 79 30 90. e-posta: *enpresa@debagoiena.net*

(Jardunaldi hau Valora proiektuko egitasmo bat da. POPV 2007-2013. EGFk %50ean kofinantziatua)

**ADMINISTRAZIOA** > HITZARMENA

# Herritarren partaidetzarako ekimenak egingo dituzte Arrasaten eta Oñatin

Diputazioak eta Arrasate eta Oñatiko Udalek lankidetza hitzarmena sinatu zuten astelehenean ekimenak bultzatzeko



Oihana Aranburu eta Edurne Egaña. GOIENKARIA



Lourdes Idoiaga eta Edurne Egaña. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Foru Aldundiak eta Eudelek lankidetza hitzarmena sinatu zuten astelehenean Gipuzkoako hamar udalekin herritarren parte-hartzea bultzatzeko asmoz. Tartean, Arrasateko Udaleko zinegotzi Oihana Aranburuk, eta Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak sinatu zuten hitzarmena.

Foru erakundeak 100.000 euro jarriko ditu kontsultak eta azterketak egin ahal izateko.

**BI AZTERKETA**

Herri bakoitzean bi azterketa egingo dituzte: herritarren parte-hartzearen gainekoa, bata; eta politika publikoaren ebaluazioaren gainekoa, bestea.

Arrasaten, Biteri plazaren erabilera birplanteatuko dute; horren proiektua baloratu eta gauzatuko dute. Era berean, kultura etxeko zerbitzua baloratu eta hobetzen saiatuko dira.

Oñatin, berriz, bidegorrien udal sarearen gaineko galdeketa egingo dute. Gainera, industria lurzorurako diren bi gune birkalifikatzearen inguruan iritzia jasoko dute herritarren artean.

**HEZKUNTZA** > LANUZTEA

## Itunpeko ikastetxeetan ez zen umerik izan eguaztenean

Irakasleek ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek deitutako grebarekin bat egin zuten

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Debagoieneko ikastoletako eta ikastetxe erlijiosoetako gelak hutsik egon ziren eguaztenean. ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek egindako egun osoko lanuzte deialdiarekin bat egin zuten irakasleek. Bailaran bost itunpeko ikastetxe daude: Bergaran, Aranzadi ikastola eta Mariaren Lagundia; Oñatin, Elkar-Hezi eta Txantxiku ikastola; eta Leintz bailaran, Arizmendi ikastola. Guztietan lanuztea egin zuten, eta hala, 5.500 ikasle eskola barik geratu ziren. Eskualdean ez zen mobilizaziorik izan; Bilbon zegoen deituta.

**SOLDATAN GORA**

Irakasleek lan baldintzak sare publikoko langileekin parekatzeko finantzaketa marko egokia onartzeko eskatu zioten Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Oñatiko Txantxiku ikastolako LAB sindikatuko ordezkari Jose Inazio Imazen arabera, "itun hobea lortzen badugu ikasleek zerbitzu hobeagoa jasoko dute eta gure lan baldintzak hobetuko dira. Sare publikoarekin alderatuz, lan ordu gehiago ditugu eta soldatan ere haiekiko %95ean gabiltza orain".

Bestalde, Hezkuntza sailak lanuztearen gaineko iritzia eman zuen. Sindikatuek huelgarako deialdia egitea "gehiegizkoa" iruditzen zaiola aipatu zuen.



BERGARA
San Lorentzo
ERRAZTASUNAK ORDAINTZEKO

APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak

Eraikitzailea
INGESLAN CONSTRUCCIONES

Sustatzailea
GRUPO Ormak

Argibide eta salmenta
943 42 44 30
www.ormak.es

Apartamentuak
152.000€-tik aurrera
25.300.000 pta

> EKONOMIA

### Eroskik soldatak bere horretan mantentzeko proposamena egin du

Krisiari aurre egiteko neurriak hartzen hasi dira Eroskiko arduradunak. Hain zuzen ere, soldatak bere horretan mantentzea proposatu die 800 bazkideri. Diru hori kapitalizatzea da enpresaren helburua.

Eroskik adierazi du, gainera, erabakia onartzeko ez dutela inolako batzar berezirik egingo, ezta bozketarik ere. Errektore Kontseiluak hartuko duen erabakia izango dela iragarri dute.

> IKASTAROA

### Berrikuntzaren gaineko jardunaldia egingo dute Garaian

Berrikuntza munduan adituak direnendako jardunaldia antolatu dute Garaia Berrikuntza Gunean, hilaren 21ean. Hain zuzen ere, berrikuntzarako kapital pribatuak izan dezakeen garrantziaren gainean egingo dute berba. Horretarako hainbat mintegi egingo dituzte Parte-hartzaileek 100 euro ordaindu behar dute, eta izena *http://ttiki.com/1331* helbidean eman dezakete.

> KRISIA

### Urte bukatu arte hamar lanegun jai Fagor Ederlanekoek

Fagor Ederlaneko zazpi plantatako langileek (tartean, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako langileak) hamar lanegun jai hartu beharko dute Gabonak baino lehen. Krisiari aurre egiteko neurri horrek 1.500 langilerengan izango du eragina.

Bestalde, Fagor Ederlaneko arduradunek, beste neurri bat dute esku artean; hain justu ere, Gabonetako oporraldia luzatzeko aukera aztertzen dihardute.

> SENTENTZIA

### Emazteari tratu txarrak emateagatik, 10 urteko zigorra

Arrasateko 41 urteko Luis Angel S.V.-k hamar urteko kartzela zigorra jaso du haren ematea bortxatu eta tratu txarrak emateagatik. Gipuzkoako Auzitegiak frogatutzat eman ditu karguak.

Bestalde, senitartekoek ukatu egin dute sententziak dioena. Gainera, Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztuko dutela eta behin-behineko askatasuna eskatzeko eskaera egingo dutela esan digu haren anaiak.

**Mikel Irizar** > Kutxako Gizarte Alorra

# "Emaitzak bermatzen badira gizarte alorreko diru sarrerak ere bermatu egingo dira"

**A. BARRUSO/A. EZKIBEL** > ARRASATE

**Mikel Irizarrek Kutxako Gizarte Alorra eta Komunikazioa sailean dihardu lanean. Bere ardura da Kultura, Giza taldeak eta Lankidetzari buruzko guztia. Irizar GOITBko platoan izan da Kutxa eta BBKren bategiteaz berba egiten.**

**Kutxa-BBK bategitea abian da. Zenbat iraungo du eta zein da gaur egungo egoera?**

Adostu eta onartu dute bategitea bi Kutxetako administrazio kontseiluek. Indarra hartzeko beharrezkoa da batzar nagusiek onartzea; izan ere, horrek eskatzen du estatutuen aldaketa, sakoneko aldaketa izango dena. Horretarako, batzarraren gehiengo kualifikatua, bi herena, behar da.

**Bategiteak nola eragingo die herritarrei?**

Nik uste dut eragin nabarmenena proiektu sendo bat sortzea izango litzatekeela. Konturatzen ari gara zein den gaur egungo egoera, eta baita zein mailako erakundeak dauden kolokan eta laguntza beharrean. Gure bi erakundeak sendoak dira, baina egia da elkartuta indartsuagoak izango direla. Hortaz, lehenengo emaitza sendotasunarena izango litzateke. Sendotasun horrek eragin zuzena izango du jendartean. Gizarte Alorrerako diruak emaitzetatik datoz. Emaitzak bermatzen badira, Gizarte Alorreko diru sarrerak ere bermatuko dira. Proiektu horrek aurreikusten du gaur egungo mailatik gora ere egon daitekeela diru kopuru hori. Gainera, sendotasun horrek beste alor batzuetan eragingo luke.

**BBK-k lortu du behar zuen babesa, eta Kutxa babes bila dabil. Zeintzuk izango dira babes horiek?**

Gipuzkoa politikoki Bizkaia baino sakabanatuago dago; hori gertatzen da Batzar Nagusietan,



Mikel Irizar. GOIENKARIA

Aldundian… Bizkaian adostasuna eman diotenen artean badago bateratzea aurrera ateratzeko behar den gehiengoa. Gipuzkoan, momentu honetan, gehiengo bat artikulatu da proiektuaren alde, eta momentuz badago alderdi bat, sozialista, ezezkoa eman duena. Uste dut sozialistek 12 ordezkari dituztela batzarrean. Oraingoz artikulatuta dago baiezkoen aldea baina artikulatuta ez dagoena da ezezkoen aldea. Proiektuak ez ditu 24 boto kontra; hortaz, badirudi aurrera ateratzeko aukera gehiago daudela.

**Alderdi sozialistak kritikatu du BBKk Kutxa "jan" egingo duela. Zurrupatze bat izango dela esan dute, bateratzea beharrean.**

Benetako arrazoiak ezin dituenez aitortu, Alderdi Sozialista beste arrazoi batzuen bila ibili da. Lehenengo esan zuen desegituratu egingo zela autonomia erkidegoa, gerora arrain handia eta arrain txikiarena etorri da… Horrek erantzun oso garbia dauka eta, gainera, proiektuan bertan dago; banaketa 60-40 egingo da eta pisu hori gaur egungo Legebiltzarretik datorrena da, ez da asmatutakoa. Gainera, hori bermatuta egongo da, proiektua bera egongo delako erakunde berriaren estatutuetan. Eta estatutu horiek aldatzeko beharko da % 60ko gehiengoa. Bermatu gura izan da erdia baino gutxiago daukanaren mende ez geratzea erdia baino gehiago daukana.

**Krisia momentu egokia da erabaki hauek hartzeko? Lagundu dezake?**

Dudarik gabe. Mundu guztia ari da batzen, aliantzak egiten, fusionatzen, erosten…, elkartasunean ari dira sinergiak aurkitzen. Mundu guztiarentzat ona dena, baita guretzat ere. Bestalde, komenigarria zela esan behar da. Esaten da orain 20 urte Estatuan 80 bat Kutxa zeudela, 90ko hamarkadan erdira jaitsi ziren, eta esaten da hurrengo urratsa horiek erdira jaistea izango dela; hau da, 20 kutxa handira.

**Vital kutxa kanpoan dago. Euskadiko Aurrezki Kutxa ahulago bat ekarriko du horrek?**

Galera bat da. Hirukoa izan behar zena birekin hasteak esan gura du badagoela hor ezin askatu izana korapilo bat. Zifratan ez dut uste, baina bai irudian. Uste dut denok pena hartu dugula. Baina irakurketa ez da teknikoa, politikoa da. Badakigu zein den Arabako botoa eta boto horri begira hartutako erabakia da.

> **"Gipuzkoa politikoki Bizkaia baino sakabanatuago dago; horregatik babesak lortu behar dira"**
>
> **"Duda barik, momentu ona da; mundu guztia elkartasunean ari da sinergiak batzen"**

BATERATZEAREN ALDE

## EAJ, EA eta CCOO bateratzearen alde

BBK eta Kutxa bateratzearen alde daude EAJ eta EA alderdi politikoak. Gainera, CCOO sindikatuarekin akordiora iritsi dira. Bestalde, Aralar eta IU-EB alderdiek ere bere adostasuna erakutsi dute, baina hainbat baldintza jarri dituzte. Aralarrek uste du aurrerapausoa izango dela bategitea, bi kutxen negozioa sendotuko delako. Aralarrek boto bakarra dauka kutxan; eta, baiezkoa emateko jarri duen baldintzetako bat da Gizarte Alorra gutxienez % 50ekoa izatea. Jaurlaritza ere bateratzearen alde agertu da.

BATERATZEAREN KONTRA

## EAJren interesak salatu dituzte

Ezker Abertzalea, PSE-EE, PP, ELA eta LAB bateratzearen kontra agertu dira. EAJren "interes merkantilistei" erantzuten dion modeloa dela esan dute Ezker Abertzaleko kideek. Bestalde, PSE-EE alderdiak esan du BBK-k Kutxa irentsiko duela, eta bateratze bat baino, "zurrupaketa" bat izango dela. PPk ere iritzi bera dauka. LAB sindikatuaren ustez, interes partikularren araberako bateratzea izango da. ELA ere kritiko azaldu da, batez ere Vital ez delako hasieratik egongo bi kutxen arteko bateratzean.

VITAL ETA CAN

## Vital ez da hasieratik egongo bateratzean

Oraingoz, Vital ez da Euskadiko Aurrezki Kutxako partaide izango. EAJk esan du sozialisten interes politikoen araberako erabakia dela Vital bateratzean ez sartzea. Kutxa berriak, etorkizunean, Vitalen bateratzea aurreikusten du eta horretarako ateak irekita utzi dituztela diote.

Nafarroako kutxari dagokionez -CAN- Mikel Irizarrek goiko elkarrizketan dio ikusteko dagoela Nafarroarekin zer gertatzen den. Euskadiko kutxa berriak Euskal Herria duela bere lan esparrua azpimarratu du Irizarrek.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Azaroko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

SARRERAK
Kafe antzokia espaloia Elgeta
JUAN CARLOS PEREZ-en KONTZERTURAKO SARRERAK

SARRERAK
San Sebastian Gipuzkoa Basket SAD
BRUESA GBC-ViveMenorca
BRUESA GBC-Pamesa

KAMERA
EROSKI zurekin


KAMISETA
DANBAKA
DANBAKAKO KAMISETA 1


SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
"LA PERLA"
TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).
La Perla centro talaso sport

Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak

**gure artekoak**

**VOLKSWAGEN TIGUAN** > Auto berria da Volkswagen Tiguan, aurten bertan merkaturatua. Udalaitz etxeko Felix Elortzak autoaren aldakortasuna azpimarratu du: errepidean turismo baten jokaera bera duela dio.

**Felix Elortza** > Udalaitz kontzesionarioko salmenta arduraduna

# "Segurtasuna, egonkortasuna eta kalitatea dira ikurrak"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Aurten merkatura ateratako autoa da Volkswagen etxeko Tiguan berria. Felix Elortza Udalaitz etxeko arduradunaren esanetan, Volkswagen etxeko beste auto guztien moduan, segurtasuna, egonkortasuna, kalitatea eta fidagarritasuna dira Tiguan autoaren ezaugarri nabarmenenak.

Gaur egun, Tiguan autoaren bi bertsio daude merkatuan: Sport eta Country. "Autoak errepidean duen aldakortasuna azpimarragarria da. 4x4 autoa da baina errepidean ere erantzun ona ematen du", dio Elortzak.



Felix Elortza Tiguan berriarekin. A.E.

**28 GRADUKO KOLPE-LEUNGAILUA**

Of road sistemaren bitartez, autoa errepidetik kanpo eroso gidatu daiteke. Hala, lursail zailenetan ere ondo moldatzen da . "Country modeloan, gainera, autoaren aurrealdeko kolpe-leungailuak 28 graduko inklinazioa dauka –ohikoena, 18 gradukoa izatea da–. Modu horretan, batez ere basorako da egokia autoa", dio Elortzak.

Park Assit sistemak, autoa "bakarrik" aparkatzen du. "Sentsore baten bitartez, autoak aparkatzeko dagoen tokia neurtzen du; gero, atzeko martxa sartzea nahiko da. Gidariak ez du zertan bolantea mugitu beharrik", azaldu du Elortzak. Bestalde, Rear Assit kamerak autoaren atzealdea argi erakusten du, aparkatzerakoan zailtasunik ez izateko.

**Tiguan Berria 2.0 TDI 140 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 34.525 euro |
| Luzera | 4,42 metro |
| Zabalera | 1,80 metro |
| Maletategia | 470 litro(1) |
| Kontsumoa | 7,5 litro/100 km(2) |
| Abiadura | 186 km/h(3) |
| Otik 100era | 10,5 seg. |
| CO2 isurketak | 182 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**BOST MOTOR MOTA**

Gaur egun, bost motor aukera daude merkatuan: dieselezko bi –140 eta 170 zaldi potentzia– eta gasolinazko hiru –150, 170 eta 200 zaldi potentzia–. Bost eserlekuko autoa da; atzealdeko eserlekuak jaitsi ezkero, 1.510 litroko maletategia geratzen da.

Gainera, Tiguan berriak 2,5 tona pisuko kargak eraman ditzake atoian.

**etxeko leihotik**



**Eneko Azkarate** > 'eazkarate@goiena.com'

## Krisiari euskaraz eta elkartasunez aurre egin

Astea hasi dugu berri pozgarri batekin. Gure jardunagatik saria jaso dugu. Bikain ziurtagiria. Lantokietan euskararen erabilera neurtzen duen kalitate ziurtagiria. Lor daitekeen gorenekoa: urrezkoa. Autonomia Erkidegoko 30 enpresari eman diete ziurtagirioi Jaurlaritzak eta Euskalit Fundazioak; bost Debagoienekori: Goiena, Elay, Emun (hauek urrezkoa), Fagor Etxetresnak eta Eroski. Sei enpresak jaso dute urrezkoa Euskadi osoan eta horietatik hiru dira Debagoienekoak.

**"Sei enpresak jaso dute urrezko ziurtagiria eta hiru dira bailarakoak"**

Ez da kasualitatea. AED aitzindaria, 25. urtebetetze ospakizunetan murgilduta dago; Goienari begira daude tokiko euskarazko hedabideak; Emun da lan mundua euskalduntzen diharduen erreferentziazko enpresa, Elay lehenetarikoa izan zen lantokia euskalduntzen...

Fagorrek eta Eroskik ez dute bizi unerik gozoena, mundu mailako krisi finantzari, higiezinekoen eta kontsumokoak hemengo enpresak bete betean harrapatu ditu-eta. Baina, krisiari aurre egiteko, elkartasunean oinarritutako neurriak hartzen eredu diren kooperatibek euskaraz egin diote aurre sasoi ilunei. Nissanekoak okerrago daude...

**> Herri galdeketak modan daude. Ibarretxenaren porrotaren ostean, beste batzuk abian dira: Eskoriatza, Arrasate eta Oñatiko udalek galdetuko diete herritarrei eragiten dieten kontuen gainean. Ondo!**

**> Bergaran Gobernu taldea eta oposizioko indar nagusia eztabaidaka jardutea ekarri duen Zabalotegiko errepide berriaren gainean herritarrei galdetzea ere ez legoke txarto. Hurrengo batean agian.**

**begi-bistan**

### Sekulako txanpinoia (Elgeta) 2008/11/10

**Argazkia:** Irati Agirreazaldegi.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Aitor Lezama elgetarrak Errioxan, Ziauri inguruan, sekulako txanpinoia batu zuen. Zelaian gehiago zeudela esan digu. Irudian, 450 gramoko txanpinoia eskuetan duela, Esteban aita.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com



**izen propioak**



**Amaia Diaz de Monasterioguren**
NUTRIZIONISTA

Nutrizionista oñatiarrak *Pirritx eta Porrotx sukaldean* liburua argitaratu du. Haurrek beraiek egiteko moduko errezetak daude. Gainera, Mitxel Muruaren ipuinak tartekatu dituzte, liburua sukaldetik ohera eramateko. 18,50 eurotan dago salgai.



**Jabier Retegi**
EUSKO IKASKUNTZA

Bergarrak, Eusko Ikaskuntzako presidente kargua utziko du. Haren lekua Jose Maria Muñoak hartuko du hilaren 26ko batzarrean. Retegik sei urte egin ditu karguan. Ekonomia eta Ingeniaritza ikasketak egin zituen. Industria sailburu eta MUko errektore izan zen.



**Juan Karlos Garitano**
ARRASATEKO EAJ

Juan Karlos Garitano da Arrasateko EAJko presidente berria. Urriaren 29an, Arrasateko Uri Buru Batzarrean izendatu zuten Garitano presidente. 1949an jaioa, 20 urte baino gehiago eman ditu EAJn. 2007ko Udal hauteskundeetan, seigarren joan zen.

Jesus Mari Herrasti (Aretxabaleta, 1946) Garaia Berrikuntza Guneko presidente berria da; hain zuzen ere, Jose Ignacio Garateri hartu dio erreleboa. Heldu berria da postura, baina Garaiari buruz berba egiteko tartetxo bat eskaini digu. Proiektuaren egungo egoeraz, etorkizunaz eta krisiaz egin dugu berba harekin, Garaiako eraikin nagusiko bulegoan.

**Jesus Mari Herrasti** > Garaia Berrikuntza Guneko presidentea

# "Garaian, nazioarte mailan garatzen diren proiektuetara heldu gura dugu"

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Jesus Mari Herrasti lanpetuta ibili da asteon. Alde batetik, Garaiako presidente karguari dagozkion lanak egin ditu; eta, beste alde batetik, asteon, Garaian egin duten teknologiaren astean parte hartu du. Dena den, gurekin berba egiteko tartea topatu du.**




Jesus Mari Herrasti, bere bulegoan.

MIREIA BIKUÑA

**Mondragon Taldean hainbat kargu bete ondoren, Garaia Berrikuntza Guneko presidente kargura heldu zara.**

Bai, hala da. Garaiako presidente kargua hartu aurretik Mondragon Taldeko nazioarteko operazioen arduradun nintzen. Era berean, beste hainbat kargu bete ditut taldean; besteak beste, Fagorreko presidente, Fagor Arrasateko gerente eta Copreciko presidente karguak bete ditut.

Bestalde, Aretxabaletako alkate izan nintzen, lan orduetatik kanpo, 1979. urtetik 1987. urtera arte.

**Zergatik uste duzu aukeratu zaituztela presidente kargurako?**

Nire ustez, esperientziak eman dit presidente kargua betetzeko aukera. Urte askotan hartu-eman zuzenak izan ditut administrazioarekin eta Debagoieneko eta Gipuzkoako Udal askorekin.

**Zein izango da, zehatz-mehatz, zure lana?**

Helburua da proiektu berriak sortzea eta, horretarako, elkarrekin egingo dugu lan, zuzendari Andoni Gartziak eta biok. Garaia Berrikuntza Gunea proiektu polita da, baina hasi besterik ez dugu egin. Oraindik bide luzea dugu aurretik. Nire asmoa da lana ahal dudan ondoen egitea, eta ditudan ideiak garatu ahal izatea.

Gainera, beste eginkizun batzuk ere baditut: Gipuzkoa Aurrera egitasmoan eta Arantzazu Gaur Fundazioan Mondragon Taldearen ordezkaria naiz.

**Iazko ekainean inauguratu zen Garaiako eraikin nagusia. Nola doa proiektua? Ze fasetan dago?**

Garbi daukat iaz hasitako bidea oso luzea dela, eta Berrikuntza Gunea erabat bukatzeko urte asko pasako direla. Gure proiektua 10-20 urteko proiektua da. Hortaz, lan handia egin behar dugu. Baina, eraikin nagusia inauguratu genuenetik aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugu. Besteak beste, hamar enpresek dihardute eraikin nagusian. Martxoan inauguratu zuten Mondragon Automobilgintzako zentro teknologikoa izango den Edertek eraikina. Irailean hasi ziren lanean LKS eta ISEA enpresak.

Bestalde, une honetan Ikerlan eta Mondragon Unibertsitateren eraikinak egiten dihardute. Era berean, guretako oso inportantea izan da Microsoft Arrasatera etortzea.

Esango nuke makina martxan jarri dugula, baina poliki-poliki gorpuztu egin beharko dugu. Gipuzkoa mailan proiektu interesgarriak lantzen dabiltza eta horiengana heldu gura dugu, eta baita nazioarte mailan egiten dituzten proiektuetara. Hori izango da gure erronka: proiektu horietara heltzeko gure gaineko informazioa zabaltzeko gai izan behar dugu. Baina, inportantea da, nazioarte mailako beste enpresa batzuekin hartu-emanak lortzea. Hain zuzen ere, beste enpresa batzuekin azoketan, erakusketetan, aurkezpenetan eta batzarretan parte hartzen dugu informazioa kanpora zabaltzeko.

> ETORKIZUNA
> **"Gure proiektua 10-20 urterako da; hortaz, bide luzea dugu aurretik, eta lan handia egin beharko dugu"**
>
> ABANTAILAK
> **"Berrikuntza lantzen duen gunean egoteak abantailak emango dizkie gurera datozen enpresei"**
>
> ASMOAK
> **"Proiektua indartuta utzi nahiko nuke hiru urte barru erretiroa hartzen dudanerako"**

**Garaia Berrikuntza gunera joan gura duten enpresei zer eskaintzen diezue?**

Nire ustez, gauza asko. Alde batetik, enpresak jartzeko espazioa ematen diegu; eta beste alde batetik, berrikuntza lantzen duen gune batean egoteak ematen dituen abantailak. Bestalde, gune berean dauden eta arlo ezberdinak lantzen dituzten enpresekin hartu-emanak izateko aukera ematen diegu; besteak beste, industria, ikerketa eta unibertsitate arlokoak. Hortaz, Garaian kokatu gura duten enpresek ateak zabalik dituzte

**Zeintzuk dira Garaiak dituen helburu nagusienak?**

Hiru helburu nagusi ditugu: teknologia berrien erabilera sustatzea eta industria sarearen lehiakortasuna bultzatzea; unibertsitate, teknologia-zentro eta enpresen artean lankidetza emankorra ezartzea; eta, enplegu kualifikatuak sortzea eta enpresa berriak eratzea.

**Krisia heldu da Garaia Berrikuntza Gunera?**

Garbi dago egun bizi dugun egoera ez dela aproposena, eta jendartea kezkatuta dago. Horregatik guztiagatik, egoera txarra dugun arren, proiektu polit eta erakargarriak egiten ahalegindu behar dugu. Gure ustez, epe luzerako proiektuetan krisiak ez luke eraginik izango. Baina, krisiaren bukaera ez dago gure eskuetan. Behin baino gehiagotan errepikatu dut, baina gure helburu nagusia da, krisiarekin edo krisi barik, enpresak erakartzeko proiektu interesgarriak garatzea.

**Kargua uzten duzunean, zela utzi nahiko zenuke Garaia Berrikuntza Gunea?**

Hiru urte barru erretiroa hartu aurretik, proiektua indartuta utzi nahiko nuke.



zabalik

**Javier Marcos**

# G20

Bihar, zapatua, azaroak 15, G20ko bilera egingo da Washingtonen. Bertan munduko Estatu industrializatuenek eta garapenean dauden ekonomiek finantza krisiari buruzko hausnarketa egingo dute. Komunikabide guztiak hara begira jarri dira. Dena den, etzazue pentsa bilera hori egiteagatik domekan krisia bukatuko denik. Ez horixe! Oraingo egoera larria da oso eta ez omen da konponduko di-da baten. 2010eko uda alderako aurreikusten dute adituek berpiztea. Ikusikou!

Momentuz, aste batetik bestera entzuten diren albisteek amildegirako bidean jartzen gaituzte: EREak geroz eta hedatuago, lantegiak itxi, langabezia gora, soldatak behera, morositatea *in crescendo*… dena okerrera. Noraino iritsiko da gainberako bide hau? Porrot egingo du kapitalismoak?

Banketxeak dira ekonomia sistema kapitalistaren bihotza. Odola, berriz, dirua da. Banketxeek dirua banatzen dute maileguen bidez, eta diruak bizirik mantentzen ditu gorputzaren (merkatuaren) atal guztiak.

Baina, azken urteotan, sistema finantzarioa joku arriskutsuetan ibili da (*subprime* hipotekak) eta bihotzekoa eduki du. Eskerrak Estatuak azaldu direla ahoz ahokoa egitera (diru mordoa entitate finantzieroetan sartuz), bestela…

> **"Finantza-sistema joko arriskutsuetan ibili da eta bihotzekoa izan du"**
>
> **"Orain, G20ko bilera: gardentasun handiagoa bankuen aldetik, kontrol zorrotzagoak..."**

Eta orain G20ko bilera. Nondik nora joango dira tiroak? Hona nire apustua.

Batetik, gardentasun handiagoa banketxeen aldetik; bestetik, sektore finantzieroaren erregulazio planetarioa, arrisku handiko eragiketak ekidin ahal izateko nonahi; eta azkenik kontrol zorrotzagoak, praktika ez osasuntsuetan ibiliz gero behar den bezala zigortzeko.

Kontuak kontu, zulo ederra egin dutela guztien artean, eta orain guk petrinari egin beharko diogu.

herritarrak galdezka

## NON BOTA BEHAR DITUGU ERABILITAKO CD-AK?

**Bergarako irakurle batek hauxe galdetu digu: "Erdi apurtuta, akatsak dituzten edo gordetzerik nahi ez ditudan CDak nora bota behar ditut?"**

Debagoieneko Mankomunitatera deitu dugu eta CD zaharrak bailarako garbiguneetara eraman behar ditugula azaldu digute. Gogoraraziko dugu ibarrean hiru garbigune ditugula: Arrasatekoa, Markulete industrialdean; Bergarakoa, Angiozar auzoan; eta Oñatikoa, Garagaltza auzora bidean. Bertan, CDez gain, biniloak eta kaseteak ere bota daitezke. Astean zehar 09:00etatik 13:00ak arte daude zabalik, eta 15:00etatik 19:00ak arte; zapatuetan, goizez bakarrik.

Garbiguneetaraino joan nahi ez duenarentzat, puntu berde mugikorra dago. Furgoneta honek jasotzen ditu etxean ditugun hondakin arriskutsuak edo kutsakorrak: CDak, olioa, pilak... Puntu berde mugikorra merkatu egunetan egoten da azokaren alboan, 09:00etatik 13:00ak arte. Elgetan eta Leintz Gatzagan ordutegia bestelakoa da: aurrenekoan, egubakoitz arratsaldeetan egoten da furgoneta, eta Gatzagan, astelehen eguerdian; hor, furgonetak abisatu egiten du herrira heltzen denean.

## BERGARAKO URBANOA ZERBITZUAREN ORDUTEGIAK

**Herritar batek ondorengo zalantza argitzeko deitu digu: berak jakin nahi du Bergarako urbano zerbitzuaren ordutegiak eta geltokiak zeintzuk diren, eta baita prezioa ere.**

Bergarako Udalak azaldu digu herriko hainbat lekutan ordutegiak daudela eta ondorengoak direla urbanoaren ordutegiak eta geltokiak: San Juanetik irteten den lehen autobusa 07:00etan da Torunsa enpresa ondoan, eta honako orduetan pasatzen da: 07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: Amillaga, San Lorentzo, Matxiategi, Zurradero, San Antonio, Martoko gaina, Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta eta Zabala jatetxea.

Labegaraietatik irteera orduak hauek dira: 07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Noranzko horrek dituen geltokiak ondorengoak dira: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia, San Pedro, Arruriaga, Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

Azkenik, prezioa euro bat da.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

**Unai Busturia**



blog

## Aurrera bolie!

**Joxe Aranzabal**
goiena.net/blogak/faroa

ETAko militante ospetsuek babarrunak jaten badituzte, babarrunak jatea delitua izan daiteke, hedapenez. Txomin Iturbek aurrera bolie! erabiltzen bazuen, aurrera bolie! esatea delitua izan daiteke, hedapenez. Esapide hori ustez erabili izanagatik atxilotu nahi omen du epaile batek Iñaki De Juana, horrekin deia egin bide baitzuen borroka armatuari segida emateko.

Gure etxean betidanik erabili izan dugu aurrera bolie! esapidea, animo gisa unean uneko oztopoak gainditze aldera: gaixotasun bat dela, ezusteko txar bat, nota eskasa… Gure aita zenak erabiltzen zuen, eta guk ere erabiltzen dugu, Mondragoen mundu guztiak erabiltzen duelako. Eta ez epaile horrek eta beste askok pentsa dezaketen zentzuan.

Kontua da Txomin Iturbe ere mondragoetarra zela, eta hark famatu egin zuela esapidea beste testuinguru batean. Orain aurrera bolie! esatea delitu izan daiteke, borroka armatua goraipatzea. Horrek ez dauka ez hankarik, ez bururik, baina errentagarriagoa izan daiteke krisi ekonomikoaz berba egitea baino.

## Gardentasuna finantzetan

**Gurutz Ansola**
www.uztarria.com/blogak/GurutzAnsola

Finantza munduan gardentasun handiagoa behar dela, aho guztietan dabil.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

plazara

Debagoienetik kanpora zein kanpotik Debagoienera, edo bailaran bertan, egunero autoa hartu behar dutenak gero eta gehiago dira. Azkenaldian badira ere, trabak eta kutsadura saihesteko, autoan batera joatea bultzatzen duten ekimenak: baten, Arrasateko Udalak parte hartzen du, baina norbanakoek antolatutako ekimenak ere badaude. Asier Irizar irakasleak baten berri ematen digu.

Asier Irizar *

# Autoan, baina ez bakarrik

Autobideko irteera eta sarreretan auto-ilarak sortzen direnean, dela goizeko lehen orduetan, dela arratsaldeetan, etxerako bidean, auto bat, bi, hiru... eta auto banatan lagun bakarra. Martxa motelean, begiak joaten dira aldameneko autora, eta zer pentsatua ematen du. Nondik etorriko ote da? Zergatik bakarrik? Zer ordutegi izango du?

Joan den irailean, eta ikusita gure erakundean bertan dozena erdi lagun baino gehiago ginela Donostialdetik eta kostaldetik egunero lanera gentozenak, mezu bat zabaldu genuen Debagoieneko, Urola Kostako eta Donostiako hainbat hedabidetan, autobusez etortzeko interesa zuen jendeak izena eman zezan.

Hainbat arrazoik bultzatuta abiarazi genuen ekimena. Batetik, egunero-egunero autoa hartu behar izateak badu diru-kostua, eta ez nolanahikoa (*www.viamichelin.es* orrian galdetuz gero, gomendatutako ibilbideak dio Donostiatik Arrasaterainoko bidaiak 12,50 balio duela; joan-etorriak, beraz, 25), baina diruaz gain, badira beste arrazoi asko ere autoan bakarrik ez bidaiatzeko egunero. Gidatzeak lan-jarduna luzatzea dakar, egunero ordu eta erdi pasatxo joaten baita errepidean. Beste alde batetik, aparkalekuen arazoa larria da, eta are larriagoa zenbat eta auto gehiago egon. Ingurumenari ez diogu batere mesederik egiten nor bere autoan etorrita: lau lagun elkartuz gero, laurdenera jaitsiko da CO2-ren isurtzea. Eta hortik aurrerako arrazoiak ere badira, hala ere: haserreak sortzen dira noiznahi, auto-ilarak direla, errepideetako lanak direla... eta matematika aplikatuz gero, istripua izateko arriskua areagotu egiten da.



MIKEL ARROIABE

Kontuak kontu, guztira, hogeita hamabosten batek eman zuen izena jarritako epean, baina, jakina, ordutegiak uztartzeko arazoak ziren; abiapuntuak eta helmugak bat ez zetozenez, ibilbideak luze jo zezakeen; eta ikusita biderik ez zegoela, bere horretan utzi genuen ekimena. Horrenbestez, datu guztiak biltzen zituen mezu bat bidali genien interesa agertu zuten guztiei; handik gutxira, izena eman zuenetako batek azaldu zuen ekimenarekin jarraitzeko gogoa.

**"Gidatzeak lan-jarduna luzatzea dakar, aparkalekuen arazoa larria da..."**

**"Hamarretik zortzi auto bidaiari bakarrekoak dira; gu, gehienetan, bi, hiru edo lau lagun joaten gara"**

Edozelan ere, ez pentsa batere erraza denik autobus bat antolatzea. Eta ez da merkea, gero! 12 lagun behar dira gutxienez, baina ia autoan etortzea bezain garesti ateratzen da kopuru horretara mugatuz gero. Gainera, Gipuzkoa zazpi enpresaren artean daukate banatuta, eskualdeka, eta, ikusten denez, oso ondo zaintzen du nork bere esparrua: edozeinek ezin du antolatu horrelako autobus bat, eta enpresa bakarrekoak izanez gero edo ikasle-talde antolatu bat izanez gero, tira; baina bestela oso zaila da horrelako ekimen bat garatzea, gaur egungo administrazio-egiturak ez baitu erraztasun handirik ematen.

Bien bitartean, nork bereari heldu behar izan dio, eta Huhezin lanean dihardugunok taldetxo bat osatu dugu autoz elkarrekin etortzeko. Egia esan, lan-kontuak direla-eta ezinezkoa izaten da egunero denok elkartzea, baina gehienetan, gidariaz gain, beste lagun bat edo batzuk ere joaten dira autoan.

Orain ere begiratzen dugu, auto-ilarak direnean, ondoko autora. Eta ikusten dugu hamarretik zortzi bidaiari bakarrekoak direla. Gu, batzuetan, bakarrik, baina, gehienetan bi, hiru edo lau lagun joaten gara, irratia entzuten, hango edo hemengo gorabeherak elkarri solasean, lana aurreratzen...

*Huheziko langile eta autoa konpartitzeko ekimen bateko kidea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Gabonetako loteriarik erosiko duzu?

| | |
|---|---|
| BAI | %66,7 |
| EZ | %33,3 |

**> FEDE FALTA**
Ez, sekula ez dot erosi. Ez da toketan eta punto, konprobauta dauket. Bakarrik siñesten dauenei tokatzen jakie eta nik ez dotenez siñesten, ba...
**Jerman**

**> ESPERANTZA**
Dezimotxo bat beti erosten dut, batez ere ilusioa egiten didalako eta beti daukazulako zerbait tokatuko zaizun esperantza txiki hori....
**Maialen**

**> LANEAN, ETXEAN...**
Bai, erosiko dut, urtero moduan. Lanean lankideekin erosiko dugu, eta etxerako ere bai, kuadrilan ere bai... ea tokatzen den!
**Imanol**

**> ZOZKETA IKUSTEA**
Neri ilusiñua itten dost loterixiak eta aurten be erosikot. Tokau ez arren, ilusiñua mantendu bihar da eta horretan lagunketan dost neuri. Gañera, sorteua ikustia be gustaitten xat, oso politta izaten da.
**Arantza**

**DATORREN ASTEKOA: Behartsuei laguntzeko dirua ematen duzu?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Honenbestez, ez da asko argitzea. Bankuen artean gauzak garbiagoak izan behar luketela, esan gabe doa. Halere, aitortzen denez, baliatu egin behar da, ea tratuak eta kontratuak gardenagoak bihurtzen diren.

Gardentasunaren gaia sakondu eta zehazteko, "agentziaren teoria" deritzana darabilte ekonomilariek. Hau da, norbaitek eginkizun bat gomendatzen dionean beste bati, hari "printzipala" deitzen zaio; eta besteari aldiz, "agentea". Arazoak eta auziak sortzen dira, parte-hartzaileek informazio eta helburu desberdinak eta kontrajarriak dituztenean. Analisi eredu hau egoki datozen kasuak izan daitezke: herritar batek bere ondarea banku pribatu bati gomendatzen dio; akzionistak administrazio kontseiluaren eskuetan jartzen du enpresa eramateko boterea; eta krisi honetan, hainbesteko garrantzia hartu duen banku-sistemaren barneko araudia.

Banku Zentral eta banku komertzialen artean agentzi auziak sortzen dira. Zentralaren helburua sistema finantzarioa orekan gordetzea da. Inflazioari kontra egitea. Moneta nazionalaren egonkortasuna zaintzea.

Banku komertzialek, aldiz, beste helburuak dituzte. Eta beren estrategia sekretuan gordetzen dute. Ondorena da informazioaren asimetria. Sistema honek ezin du, beraz, bere eginkizuna, kreditua banatzea, modurik onenean burutu. Hori guztia, azken batean, gizartearen kalterako gertatzen da.

Schumpeterrek garbi esan zuen, garapen ekonomikoaren eta hazkundearen baldintza ezinbestekoak zirela finantza merkatu eraginkorrak.

koplak

Julen Iriondo

## 1998-2008

Aurreko domekan korritu zan
Behobia-Donostian
madrildar batek utziak ditu
milaka euskaldun atzian.

Irun eta Madril artekua
aspaldiko trenbidia
irundarrek alperrik ez dute
egin haraino bidia.

Behobian madrildar bakar bat
milaka baino gehiago
ta Bernabeun amets bakar bat
milioietatik harago.

Ikaragarria irundarrek
handik ekarri dutena,
askoz gehiago duela hamar
urte kendu zigutena.

Hauexek dira kirolak eman
dezaken politena ta
futbolaren aitzakian inoiz
gertatu behar ez zena.

Inon bazara hor izango da
Aizkorripean barrena
Aloñapean ere bizirik
dago zure oroimena.

## Pribatizazioaren kontsulta

**Rebeka Ubera eta Ander Rodriguez**
(Aralar eta Ezker Batua alderdietako Gipuzkoako batzarkideak)
Arrasate

Kontsultaz hainbeste hitz egiten den herri honetan, azkenean kontsulta bat burutzekoa zela entzuteak poztu egin gintuen.

Kontsulta deitzen duena dena delakoa dela, garrantzitsua da herriari hitza ematea eta gai zehatz baten inguruan duen iritzia zein den jakitea. Beti ere, iritzi hori kontuan hartuko bada. Eskoriatzako Udalak kontsulta egitea erabaki du. Kontsultaren gaia Eskoriatzako zaharren egoitza. Gaur egun 32 plaza eta 13 langile ditu, eta kudeaketa Eskoriatzako Udala kide duen Patronatu baten ardurapean dago. Badirudi Foru Aldundiaren irizpide teknikoen arabera, eraikinak ez duela gaur egungo araudia betetzen eta egokitu egin behar dela. Eta egokitzapen hori egiteko, Udaletik hiru aukera eman dira, baina, gure uste apalean, aukeretako bat lehenestera bideratuta.

Kontsultaren nondik norakoak plazaratzeko Udalak herritarren artean banatu duen txostentxoari gainbegiratua eman bezain laster, eta hango edukian sakontzen badugu, berehala konturatuko gara, oro ez dela urre. Alde batetik, harrituta gelditu gara kontsulta horren helburua zerbitzu publikoa pribatizatzean oinarritzea (hiru erantzunetatik bik halako irtenbidea planteatzen dute), azalpenak behin eta berriz irakurrita horixe baita agerian geratzen dena. Edo are gehiago esango genuke guk, ematen duen inpresioa ondorengoa da: Udalak ez duenez pribatizatzearen ardura beregain hartu nahi, pilota herritarren teilatuan uztea erabaki du. Badaezpada. Herritarren iritzia argi eta garbi jaso ordez. Ez diogu inori kontsultaren gaineko ikasketarik eman nahi, baina, gure tristura adierazi nahi dugu, behingoarren kontsulta baten bidez herritarren beraien iritzia adierazteko aukera izango dutenean, ba kontsulta desbirtuatu xamarra egotea.

Pribatizazio horren baldintzak, gainera, plazaratutako txosten horretan irakur daitekeenez, aldez aurretik Foru Aldundiarekin eta enpresa pribatu batekin adostuta daude. Inolako lehiaketa publikorik egin gabe. Hau da, enpresa bati atzamarrez esleituta. Zorionak. EAJk ez zukeen hobeto egingo.

Pentsa dezake norbaitek dokumentu horren edukietatik haratago joan garela interpretazio librea eginez, baina ez dago horretarako beharrik, bertan espliziтuki agertzen diren zenbaki eta asteriskoek daramaten noranzkoa argia delako oso. Ondo iruditzen zaigu herritarrei galdetzea, areago beraien zerbitzu bati buruz, baina ez dugu konpartitzen galdeketa horren atzean Udalak gustuko ez duen erabaki bat kontsultaren bidez mozorrotzea. Udalak erabakitzen baldin badu zerbitzuaren kudeaketa enpresa pribatu bati ematea, aurrera. Ondorio guztiekin. Udalak erabakitzen badu herritarrei galdetzea, oraindik askoz hobeto. Baina hori ere ondorio guztiekin eta manipulaziorik gabe.

Eta hau guztia gutxi balitz, txosten horretan, gainera, ondorengoa jasotzen da: patronoen batzordeak eta Udalak konpromisoa hartzen dutela kontsultako emaitza berresteko, baldin eta parte hartze maila esanguratsua bada. Ez duena zehazten da maila hori non dagoen. Kontsulta interpretazio subjektiboen menpe?

## Zabalotegiko auzokideen elkarteak, Bergarako EAJri

**Josune Azula**
(Zabalotegiko bizilagunen elkartea)
Bergara

Zabalotegiko auzokideen elkartekoak harriduraz hartu dugu EAJ berriro ere polemika piztu nahian ibiltzea gure kalea zeharkatuko lukeen errepidearen gainean. Uste dugu polemika hori modu artifizialean berpiztu nahi duela, horretarako egia erdiak erabiliz, eta errepide berri hori egitearen alde eta aurka daudenak, aurrez aurre jarri nahian.

Esan nahi dugu, beti egon garela jarrera guztiak argitzearen alde eta bergarar guztiei egitasmo honen benetako errealitatea argitzen saiatu garela. Horretarako, jakina, ez daukagu EAJk etxez etxe informazioa banatzeko daukan dirurik.

Baina antolatu ditugu berbaldiak, auzokideen arteko batzarrak, alderdi politikoekin eta Udalarekin batzarrak..., puntu eztabaidatsuenak argitzeko asmoarekin eta arazoari irtenbide egokiena emateko helburuarekin.

Ez dakigu ze interes duten gai hau berriro ere kalera ateratzeko. Baliteke edukitzea hauteskunde-interesak; edo higiezinekin lotutakoak? Baina ez dugu egoki ikusten irabazi asmoak edukitzea, giroa nahastuz, egia erdiak esanez eta errealitatea ezkutatuz.

Horregatik, EAJk etxez etxe banatutako panfletoan jasotzen diren egiaztapen batzuei eta Rafa Amasorrain alderdi horretako zinegotziak esandakoei, zehaztasunak egin nahiko genizkieke:

1. Lehenengo, gogorarazi nahi diegu, EAJ eta EA izan direla Udalbatza osatzen duten alderdi bakarrak errepide hori egitearen alde agertu direnak. Aurka egon dira PP eta Ezker Batua, aurreko agintaldian; eta Aralar, PSE-EE eta EAE-ANV, azken hauek bai lehen eta baita orain ere.

2. Aurreko egitasmoan, EAJk aurreikusten zuen alde zaharraren zati bat bakarrik bihurtzea oinezkoendako, Artekalea eta Arruriaga hain justu ere, eta kale horietatik doan trafikoa Zabalotegi eta Bolutik desbideratzea proposatzen zuen, baina trafikoa Burdiñate eta Masterrekatik pasatzea ere proposatzen zuen, orain ere egiten duen moduan; izan ere, kale horiek izango lirateke-eta auzo horiendako irteera bakarra.

3. Errepidea bai pasatzen da Errekaldeko lorategietatik eta hori egiaztatzeko daude aurreko agintaldietan jasotako proiektuen planoak. Egon izan balira parkea ikusteko antolatutako bisita gidatuan hobeto ezagutuko lukete; edo, bestela, Mendia Bizirik, Bergarako Lorategi Historikoak Ekimena edo Eusko Jaurlaritzako Kultura sailari galdetzea ere bazuten.

4. Zabalotegiko errepide berria ez litzateke egongo atarietatik 6 metrora. Etxeetako balkoietatik bi metro baino gutxiagora egongo litzateke eta balkoi horien altuera berean; hortaz, San Pedrotik igarotzen diren 4.658 ibilgailuak Zabalotegiko etxeetatik bi metrora pasako lirateke; Boluko etxeen azpitik (literalki, etxe batzuen egongelaren azpitik) eta Masterreka eta Burdiñatetik pasatzen jarraituko lukete. Gonbidatu nahi ditugu EAJkoak elkarrekin neurriak hartzera etortzeko.

5. Ez dakigu bergararren kezka nagusia den EAJk proposatzen duen errepide hori, baina guk, auzokideen elkarte moduan, badauzkagu kezka batzuk eta gure auzoak berpizteko interesa ere bai. Zergatik ez digute egiten Mizpildirako arrapala bat? Edo Mariaren Lagundiako aldapa konpondu? Edo, hondatuta zeudelarik, orain dela bost urte kendu zituzten ziburuen ordez berriak ipini?

6. Badakigu Bergarako trafikoaren arazoari irtenbidea ez dela erraza, baina beste alternatibarik aztertu da? Non daude eta zergatik baztertu ziren?

Beste adibide batzuk ere aipa genitzake, baina ez dugu nahi erortzerik batzuk eta besteak aurrez aurre jartzeko joko horretan. Gaiaren gainean gehiago jakin nahi duenarekin batzeko prest gaude eta auzokideen elkartea garen neurrian, herriaren alde lanean jarraitzeko prest, ez alderdien alde.

## Aretxabaletan igerilekuak urte guztian erabilgarri

**Araceli Herran eta Asier Muxika**
(Aretxabaletako Udaleko Kirol zinegotzia eta teknikaria, hurrenez hurren)
Aretxabaleta

Aurtengo azaroaren 7ko GOIENKARIAn Aretxabaletan kanpoko igerilekuak eskatuz argitaratutako gutunari dagokionez, Aretxabaletako Udalak kiroldegi berriaren proiektuak jarraitu duen bidea adierazi eta, bestetik, kanpoko igerilekuak proiektuan jaso ez izanaren arrazoiak azaldu nahi ditu honetaz baliatuta. Proiektuak izandako bilakaerari dagokionez (oso labur bada ere), hauek izan dira emandako urratsak:

- Aretxabaletak kirol instalazioetan dituen gabeziak antzeman eta instalazio berriak eraikitzearen beharraz jabetuta, hausnarketa bultzatuz bilera irekiak egin ziren Aretxabaletako kirol eragile eta hainbat herritarrekin (2004ko urrian, hain zuzen).

- Beharren zerrenda zehaztu ondoren, erabilgarri geneukan espaziora hobekien egokituko litzatekeen proiektua aukeratu asmoz, ideia lehiaketa burutu zen (2006ko urtarrilean).

- Lehiaketa irekian partehartzaile asko lehiatu ziren: izan ere, 19 proiektu aurkeztu ziren. Irabazle suertatu zenari, proiektua idaztea eskatu aurretik, herritarren iritziak eta iradokizunak jaso asmoz, erakusketa publiko bat egin zen udaletxeko ganbaran (2006ko irailetik azarora bitartean). Iritziak jaso ostean, proiektua idazteari ekin zitzaion

- Dagoeneko, 2008ko azaroan, kirol-etxe zaharraren eraiste lanak ekinda daude eta laster eraikuntza lanekin hastea aurreikusten da.

Honekin adierazi nahi dugu hausnartze eta erabakitze prozesu irekia eta parte hartzailea izan zela momentu guztian.

Instalazio beharrak zehazterako orduan, kanpoko igerilekuak eraikitzea planteatu bazen ere, kanpokoa bakarrik/propio ez eraikitzearen arrazoiak hauek izan ziren, besteak beste:

- Instalazio guztiak urte osoan erabilgarriak izatea. Igerileku bakarra izatea, baina uda eta negurako baliagarria. Sabai mugikorra jartzea aztertu bazen ere, solarium batera irteera/irekia dagoen igerilekuaren aldeko erabakia hartu zen.

- Kanpoko beste igerileku bat eraikitzeak esfortzu ekonomiko handiagoa izateaz gain, errentagarritasun mugatua zuen inbertsioa zela baloratu zen. Udako 2 hilabeteko erabilgarritasuna, eta hemengo klimak ahalbidetzen duenean. Barruko igerilekua, berriz, goizeko lehen ordutik gaueko azken ordura arte erabilgarri dago edozein egunetan.

- Erabilgarri daukagun espazioaren aprobetxamendu egokia. Herrian daukagun espazio gabezia ikusita, kanpoko igerilekuak eta, bereziki, bere inguruan eskatzen duen berdeguneak hartzen duen azalera guztia, urtean 10 hilabete erabili gabe edukitzea ez zen egoki ikusi.

Azkenik, jakinarazi behar da dagoeneko beranduegi dela eraikitze proiektuan aldaketak planteatzeko. Bestalde, tamalgarria da udal-ordezkariekin inolako bilerarik egin gabe, halako konturen bat jendaurrean prentsa bitartez argitaratu izana, eta sinadura aurkeztu duzuenok duela urte bi bultzatutako parte hartze eta erabakitze prozesuan parte hartu ez izana.

## Ezin okerrago

**Iñaki Gartzia**
Arrasate

Real Unionek eman digu poza oraingoan. A zelakoa, gainera!. Zer eta Real Madrid handia kanpoan utzi, 2.B mailako talde batek? Lotsa ederra, pasarazi diotena, Irunekoek zuriei. Baina, bestelakoan? Reala? Okerrago ezin. Joan zen zapatuko partidua, hutsegite guztien bilduma izan zen. Okerrena, jokalaririk onena, Zerio golegilea, 10 hilabeterako galdu dugula. Lehen galdu genituen moduan Prieto eta Elustondo. Onenak. Eta klubaren egoeraz? Bueno, hemen bada itxaropenerako izpirik: administratzaileak esan dute oraingo zuzendaritzak ez duela balio. Bat ez duela ondo egin eta haserre dagoela denekin. Aldatzea proposatzen du. Ea ba. Baina, zein jartzeko? Zer egiteko? Zeinek nahiko du?...

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


gizarte ekintza
hezkuntza
"...ILARGIA ERDIAN ETA ZU GORUNTZ BEGIRA..."
Bada, hori guztia bizitzeko aukera duzu orain
Zientziaren kutxaGuneko Planetarium berrian, Donostian
paregabea eta ikusgarria, benetan, bere Super High Definition sistemari esker
943 012 478
www.miramon.org
ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa
BRAD
JUSTIN

2008ko azaroaren 13tik 22ra

EROSKI

Zuk esandakoa entzun
egingo dugu: 902 54 03 40
www.eroski.es

zurekin

TRAVEL CLUB
6
puntu
gehiago




3 ERAMAN ETA 2 ORDAINDU
BAKOITZA
1,99€

1 EROSTEAN
2,99€

Atun argai oleiko askoko oliotan, ISABEL,
3x160 g, pisu garbia

Hil-bukaerara iristeko EROSKI eskaintzak: ehunka produktu 3×2 eskaintzarekin

Ogiaren berezia. Aukeratzen lagunduko dizuten gako osasungarriak.



**> ARRASATE**
Herritarrek Biteri plazaren gainean duten iritzia galdetuko dute **> 18**



**> ARETXABALETA**
Saharan ludoteka ipintzeko, jostailuak batuko ditu Iesbaak **> 31**



**> OÑATI**
Lehen erakusleiho lehiaketa deitu dute Udalak eta Txandak **> 33**



**> ARAMAIO**
Sagarzaleen Elkartekoek kupeletan sartu dute zukua **> 38**

**LEINTZ GATZAGA** > SAN MILIXANAK

# San Milixanetan, artisauen 15 postu eta beira puztuaren erakusketa

**POSTU EZBERDINAK**
Domekan denetariko postuak egongo dira: zeramika, zeta eta larrua besteak beste

**AURTEN EGUN BAT**
Aurten San Milixanak egun batekoak izango dira eta ez hirukoak, joan den urtean bezala



Aurten ere ez dira talogileak faltako; Sorginak emakumeen elkartekoak arduratuko dira lan horretaz. GOIENKARIA

## Egitaraua

**Herriko pilotalekuan**
Langintzen feria: bertan 15 postu egongo dira ikusgai; besteak beste, beira, bitxigintza, zeramika eta larrua.

**Pilotaleku kanpoan**
Beira puztuaren erakustaldia egongo da Irurako Argia Badago enpresaren eskutik.

**Kultura etxean**
Soinean taldeak garai bateko baserritarren hainbat jantzien erakusketa egingo du.

**Olabide dendaren ondoan**
Xaboi naturalen tailerra egongo da Zegamako Garbi xaboi enpresaren eskutik.

**Ekitaldi guztiak 10:00etatik 14:30era izango dira.**

**JASONE ZABALA** > LEINTZ GATZAGA
Domekan ospatuko dute San Milixan eguna Gatzagan. Artisauen inguruan antolatzen dute jaia eta aurtengoa izango da XVI. edizioa. Aurten egun bateko jaia izango da eta ez hiru egunetakoa, "ez baitzen jende askorik hurbildu pasa den urteko lehen bi egunetan", adierazi digu Ainara Zubillaga kultura zinegotziak.

**ARTISAUEN LANAK AZOKAK**
Artisau azoka 10:00etan hasiko da eta 14:30 bitartean zer ikusi eta zer erosi ugari egongo da pilotalekuan. Guztira 15 postu inguru egongo dira: bitxiak, otarreak, euskal zeramikazko ontziak, jostailuak, tapizak, zetazko jantziak eta pilotak, besteak beste.

Jose Ramon Salmanton zallarrak esaterako, saskigintzan egiten du lan eta saskiak nola egiten diren erakutsiko du domekan. Bilboko Urbelak, bestalde, zura erabiliz egindakoak ipiniko ditu ikusgai; besteak beste, kutxak, lanparak, ispiluak, argazki markoak eta bitxiontziak egiten dituzte, dekoraziorako eta eguneroko bizitzan erabilgarriak diren gauzak egiten dituzte.

**BEIRAGILEEN ERAKUSTALDIA**
Iruratik etorriko diren beiragileek, berriz, beira puztuaren erakustaldia egingo dute pilotaleku ondoan; beirarekin hainbat irudi egingo dituzte. Horretaz gain, eta urtero legez, Sorginak elkarteko emakumeek taloak egingo dituzte bertara doazen guztiendako eta aritsauendako bazkaria ere prestatuko dute. Egun hori prestatzeko egiten den lana handia da, Ainara Zubillaga kultura zinegotziak adierazi digun bezala: "Egun hau prestatzeko lana handia da; hala ere, herriko Sorginak emakumeen elkarteari eta herriko artisauei esker, lana denon artean banatzen dugu eta era horretan antolaketa erraztu egiten da", adierazi digu berak. Bisitariek aurten ere ezin izango dute herrian aparkatu, zirkulazioa hobeto bideratzeko asmoz. Gatzagain eta Gure Ametsa jatetxeetako aparkalekuetan utzi beharko dituzte autoak bertan hurbiltzen diren guztiek, autobusa ibiliko baita, joan-etorrian goiz guztian.

**Igor Obeso** > Beira puztua egiten du

## "Beira puztuaren teknika lantzen duen bakarra naiz Hego Euskal Herrian"

**J.Z.** > BERGARA
**Igor Obeso irurarrak 12 urte daramatza beira puztua lantzen. Tailerra Iruran bertan dauka eta hainbat motatako irudiak eta erabilgarriak egiten ditu beirarekin. "Oraingoz lanbide honekin bizimodua atera daiteke", adierazi digu berak. Hego Euskal Herrian beira puztuaren teknika lantzen duen bakarra dela esan digu. Domekan Gatzagan egongo da mota ezberdinetako gauzak egiten beira urturarekin.**



I.O.

**Jende askori arraro egingo zaio beira puztuaren lana. Zertan datza lanak?**

Beira lantzeko teknika bat da beira puztua. Labe batetan beira konposizioa sartzen da. Beroa emanez (1.200 gradutara) beira hori urtu egiten da eta erdi likido gelditzen da; hemen hasten da beirazko mota ezberdinetako gauzak egiteko prozesua. Ondoren, burdinazko kainabera batzuekin kristala hartzen da eta forma ematen zaio, putz eginez eta erreminta batzuen bitartez. Prozesua momentuan egiten da, beira beroa dagoen bitartean.

**Halako erakusketa asko egiten dituzue herriz herri?**

Urtean zehar sei erakusketa inguru egiten ditugu hainbat herritan zehar.

**Beira puztua egiten duten asko al daude? Bizimodua atera daiteke aurrera?**

Hego Euskal Herrian bakarra naiz beira puztuaren teknika lantzen duena. Nik badaramat 12 urte honetan jardunean eta oraingoz bizimodua ateratzen dut. Beti ideia berriak eginez eta gauza ezberdinak landuz saiatzen naiz arlo ezberdinetako bezeroak lortzen.

**Zein motatako erakusketa egingo duzue domekan?**

Domekan beira urtzeko labea eramango dut Gatzagara, eta beira urtuaren prozesua ikusteko aukera izango du bertara hurbiltzen den jendeak. Besteak beste, botilak, kopak, pitxarrak, animaliak eta beste gauza batzuk egingo ditut jendeak ikusi dezan nola den prozesua osorik.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Español | Araba, 14 | 943 79 18 65 |
| Domeka, 16 | Ruiz | Nafarroa, 1 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 17 | Etxeberria | Zarrugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 18 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Eguaztena, 19 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 20 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Egubakoitza, 21 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 16 | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 17 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 18 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 19 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 20 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 21 | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 16 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 17 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 18 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 19 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 20 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 21 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 16 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 17 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 18 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 19 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 20 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 21 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112)) SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia) ........ 943 46 11 11
DYA (Antzuola) ........ 943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) ........ 943 76 55 76
Suhiltzaileak ........ 943 78 28 00
Ertzaintza ........ 943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala ........ 943 03 53 00
- Antzuola ........ 943 76 62 23
- Aramaio ........ 945 44 53 40
- Aretxabaleta ........ 943 71 19 59
- Bergara ........ 943 03 54 00
- Elgeta ........ 943 03 54 00
- Eskoriatza ........ 943 71 44 52
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola ........ 943 76 62 46
- Arrasate ........ 943 79 14 39
- Aretxabaleta ........ 943 71 18 63
- Bergara ........ 943 77 91 06
- Eskoriatza ........ 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA ........ 902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate ........ 943 79 12 22
- Aramaio ........ 945 44 50 33
- Aretxabaleta ........ 943 77 12 64
- Bergara ........ 943 79 12 22
- Eskoriatza ........ 943 71 40 59
- Oñati ........ 943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea ........ 943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) ........ 943 78 15 12
Nekazaritza ganbera ........ 943 76 10 15
Zerga Bulegoa ........ 943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate ........ 943 77 11 43
- Bergara ........ 943 76 44 42
- Oñati ........ 943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio ........ 945 44 53 35
- Arrasate ........ 943 77 16 77
- Aretxabaleta ........ 943 71 26 28
- Bergara ........ 943 76 56 41
- Elgeta ........ 943 76 82 84
- Eskoriatza ........ 943 71 53 28
- Oñati ........ 943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola ........ 943 76 60 65
- Aramaio ........ 945 44 53 74
- Arrasate ........ 943 77 01 05
- Aretxabaleta ........ 943 71 10 27
- Bergara ........ 943 77 91 58
- Eskoriatza ........ 943 71 46 88
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 03 53

Udalak
- Antzuola ........ 943 76 62 46
- Aramaio ........ 945 44 50 16
- Arrasate ........ 943 79 09 00
- Aretxabaleta ........ 943 71 18 62
- Bergara ........ 943 77 91 00
- Elgeta ........ 943 76 80 22
- Eskoriatza ........ 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 15**

Zerua lainotuta egongo da eta tantaren bat botako du. Termometroa zertxobait gorago kokatuko da gaur, 15 ºC-en bueltan geratuz.



**Domeka, 16**

Domekan, zapatuan bezala, hodeitsu egongo da eta euria egin dezake. Tenperaturak mantendu egingo dira.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatuan, iparraldeko haizea edukiko dugu. Hau dela eta, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa iparraldean giro goibelagoa izango dugu. Zerua lainotuta egongo da eta tantaren bat botako du. Domekan, antzerako eguraldia izango dugu eta tenperaturak mantendu egingo dira.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Eguaztena, 5 — **3 ºC**

**MAXIMOA** Astelehena, 10 — **20 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **52,1 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 5** | 12 ºC | 3 ºC | 38,4 l/m² |
| **Eguena, 6** | 16 ºC | 10 ºC | 0,2 l/m² |
| **Egubakoitza, 7** | 13 ºC | 7 ºC | 1,7 l/m² |
| **Zapatua, 8** | 16 ºC | 8 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 9** | 17 ºC | 6 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 10** | 20 ºC | 9 ºC | 1,1 l/m² |
| **Martitzena, 11** | 19 ºC | 10 ºC | 10,7 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA AZAROAN

| Ilgora | Ilbete | Ilbehera | Ilberri |
|---|---|---|---|
| 6 | 13 | 19 | 27 |

## oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA
**> Reflexoterapia ikastaroa antolatu dute**
Egun osoko reflexoterapia ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak zapaturako, hilak 22, udaletxe zaharrean. Izenematea zabalik dago hilaren 19a arte, 943 77 09 70 telefonoan. Bazkideek 10 euro ordaindu behar dute, eta gainerakoek, berriz, 15.

ARRASATE
**> AHTren aurkako mendi martxa, bihar**
*AHT Ez!* leloarekin, mendi martxa deitu dute biharko, zapatua, Herriko plazatik hasita, 09:00etan. Honako ibilbidea egingo dute: Arrasate-Ikutixo-Baztargain-Suña-Untzilla-Naparrena-Ikutixo.

ARRASATE
**> Elikadura ikastaroa Ekin elkartearekin**
Elikadura eta sukaldaritza osasuntsuaren gaineko ikastaroa antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak, azaroaren 20an hasita. Izenematea zabalik dago hilaren 18a arte euren egoitzan (Pablo Uranga 6); 943 79 83 70 / 651 70 79 38 telefonoetan; edo *ekin.emakumeak@telefonica.net* helbidean.

ARRASATE
**> Vietnam eta Kanputxearen gaineko hitzaldia**
Vietnam eta Kanputxean egin daitezkeen bidaien gainean berba egingo dute Eroski Bidaietako ordezkariek eguenean, hilak 20, Iamai kafetegian, 19:30ean.

BERGARA
**> 'Euskaldun erdaldunaren metamorfosia'**
Xabi Payak *Euskaldun erdaldunaren metamorfosia* delako hitzaldia egingo du hilaren 20an, eguena, kultura etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA
**> 1974an jaiotakoen kinto afaria**
1974an jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute azaroaren 22an, Arrasateko Erreka jatetxean. Izenematea, Urbaltz tabernan.

ARRASATE
**> 1954an jaiotakoen kinto ospakizuna**
1954an jaiotakoek ospakizuna izango dute azaroaren 22an: meza eta poteoa 12:30ean eta bazkaria Hilarionen, 14:30ean. Izenematea epea bihar, zapatua, bukatzen da, Euskadiko Kutxako kontuan 50 euro sartuta.

OÑATI
**> Arreta gabeziaren gaineko jardunaldiak**
Arreta gabezia familian tratatzearen gaineko jardunaldiak antolatu ditu Elkar Hezi ikastetxeak martitzenerako, hilak 18. LHko 3. zikloko eta DBHko gurasoendako da. Santa Marinako mediatekan da, 18:30ean.

ARRASATE
**> Euskararen gaineko hitzaldia, AEDrekin**
AED elkarteak antolatuta, *Euskarak, gerorik bai?* zikloko bigarren hitzaldia egingo du Joxerra Garziak: *Sehaskatik sarera. Euskararen atarramentuak Komunikazioaren Gizartean*. Eguenean, hilak 20, izango da Kulturaten, 19:00etan.

DEBAGOIENA
**> Zuberoako ikastolen aldeko Gabonetako otarrak erosteko aukera dago**
Zuberoako Alozeko Basabürü eta Sohütako Eperra ikastolei laguntzeko, hango gurasoek Gabonetako otarrak jarri dituzte salgai, Zuberoako produktuekin: 39 eurotan, ardi gazta, ezti akazia, patea eta bizkotxo poltsa bat. Eskaerak egiteko, bidali mezua *zuberoako.ikastola1@orange.fr* helbidera.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

ESKORIATZA, ARRASATE, ARETXABALETA
**> Sobroneko abentura parkera irteera**
Gazteleku eta gazte txokoetako erabiltzaileek Sobroneko abentura parkera joateko aukera dute azaroaren 22an, zapatua. Izena emateko, jo gazteleku edo gazte txokoetako edozein hezitzailerengana. 10 euro da.

ARRASATE
**> Egoera ekonomikoaren inguruko hitzaldia**
Gaur egungo egoera ekonomikoaren inguruko hitzaldia egingo du Antton Perez de Calleja ekonomialariak eguenean, hilak 20, Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan (Nafarroa etorbidea, 17), 17:30-19:30. Edozein tamaina edo sektoreko enpresei zuzenduta dago.

BERGARA
**> 1939an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
1939an jaiotako bergararrek batera bazkaltzeko parada dute azaroaren 22an. Izenematea: 943 76 24 79 (Eulalia Elgarresta) edo 943 76 28 58 (Pello Garitano).

BERGARA
**> Domingo de Iralaren gaineko hitzaldia**
*Domingo de Irala, bergarar bat Mahomaren paradisuan* hitzaldia izango da eguaztenean, hilak 19, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.

kale inkesta

# Erabiliko dituzu Domingo Iralako komun publikoak?



**Juan Maria Cerveira**
Erretiratua
Bergara

Beharra izanez gero, erabiliko ditut, bai. Oso ondo iruditzen zait komun publikoak jartzea. Lehen tabernara joatea zen aukera bakarra. Tokia ere egokia iruditzen zait, erdigunean daude eta.



**Oinatz Urbistondo**
Langilea
Bergara

Ondo iruditzen zait komun publikoak jartzea, baina agian tokia ez da egokiena, denda baten ondoan daude eta; nik ez nituzke hor jarriko. Frontoi aldean edo Usondo parkearen inguruan, hobeto.



**Belen Albisua**
Langilea
Bergara

Komun publikoen beharra zegoen eta ondo iruditzen zait jartzea, bai. Erabiliko ditut beharra izaten dudanean. Orain, garbi mantentzen diren edo ez ikusi behar, eta hori gure ardura ere bada.



**Regino Valle**
Erretiratua
Bergara

Ideia ona iruditzen zait. Asko pasiatzen dut eta ez naiz tabernetara joateko zalea, beraz, erabiliko ditut, bai. Autobus geltokian ere badaude, eta Poligonoan egotea ere txarto ez, jendea badabil eta.



**Nikolas Zabaleta**
Ikaslea
Errusia

Ez nekien Domingo Iralan komun publikoak zeudenik, ez naiz enteratu. Lagunekin askotan jolasten dut kale horretan eta erabiliko ditut, bai. Orain arte tabernara sartzen nintzen beharra nuenean.

txistuak




GOIENKARIA

## San Antonio kaleko biribilgune arriskutsua

Bergarako herritar batek bidali digu aste honetako kexa, San Antonio kaleko biribilgunea dela eta. Berak bi arrisku ikusi ditu biribilgunean: alde batetik, Antzuola aldetik datozen autoek ikuspena ez dela batere ona; eta, bestalde, biribilgunearen ondoren Zurradero kalera joateko dagoen zebra bideak argiztapen eskasa duela.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 210.000

ONCEko loteriak diru kantitate polita utzi zuen pasa den azaroaren 11ko zozketan Aretxabaletan. 35.000 euroko saria zuten sei kupoi saldu zituen Ainhoa Borrero saltzaileak; guztira 210.000 euro. Zenbaki saritua 22.478 izan zen. Zorionak, beraz, irabazleei!

usteak uste

**Irati Agirreazaldegi**

## Gaztaina, Gabonen atean, bikaina

Ibarrean han eta hemen aukeran gaztaina erre jana. Batzuek gertatzen eta besteek jaten ipintzen dute afana. Eguraldi euritsuarekin gustura hartzen da bero-bero dana, baina batez ere doan emana. Eskerrak ematea da askoren ahanzturan geratzen dana.

Danbolinean zein labean erretako gaztaina. Urrutitik hartzen da usaina, jateko gogoa pizteko aina, udazkenean eta neguan jateko bikaina. Tripen kalterako haizeen eragile izaten da baina...

Kaleetan erre usain hori hartu orduko, Gabonak dira gertuko. Jai egun horiekin zein ez da, bada, akordatuko?

Akordatu edo oraindik konturatu ez denari, batean eta bestean emango diote ohartzeko pista ugari. Supermerkatuetan behintzat bada begi bistan turroi, polboroi, bonboi eta Gabonetako gozo ugari.

Erosteko aukerak mila, baina asko han eta hemen dabil diru eta sosen bila. Opari merkeak eta politak aurkitzen dituena, hura bai, abila.

Gabonak eta krisia. Hori izango omen da urte amaierako auzia. Zalantzan ote dago Olentzeroren bisita eta Gabon argiek herrietako kaleetan ustez sortzen duten giro bizia?

5 galdera...

# Igor Arrese

Alzu arrantza eta ehiza denda
Oñati

**1. Ehiza denboraldia hasi da dagoeneko. Lizentzien aldetik, joan den urtean baino gehiago egin dituzue?**

Urtero ateratzen dudan lizentzia kopurua oso antzekoa izaten da, ez da asko aldatzen urtetik urtera; beraz, aurten ere antzerako kopurua atera dut.

**2. Orain arte, eta materialari dagokionez, zer da gehien eskatu dutena ehiztariek?**

Denetatik saltzen da. Euri txarrarekin, boten eta euritarako txamarren salmenta gora joaten da. Uso pasea egoten bada, berriz, kartutxoen salmentan ere igartzen da.

Bestalde, txakurrarekin erlazionatutako produktuak ere ondo saltzen dira, bai lekuratzeko koilare elektronikoak edo eta txakurra hezteko koilare elektronikoak.

**3. Krisi egoera dela-eta, hori nabaritu duzue dendan edo ehiza munduan ez da halakorik igartzen?**

Momentuz ez dut igarri; hala ere, ziur nago inguruan, beste sektore batzuetan, krisia egonez gero, nik ere igarriko dudala lehenago edo geroago.

**4. Ehiza garestia dela diote. Ehizara joateko beharrezkoak diren oinarrizko gauzak kontutan hartzen baditugu, zenbat euro kostatu daiteke denboraldi bat?**

Lizentzia, segurua eta kartutxoak kontutan hartzen baditugu, 100 euro ingurutan irten daiteke denboraldia; horretaz gain, ehiza-barrutiren bat edo uso posturen bat hartuz gero, kopuru hori dezente igo daiteke.

**5. Lehen aldiz ehizara doan bati zeintzuk dira emango zenizkiokeen aholkuak?**

Aholku bakarra emango nioke: lehen aldiz baldin badoa, ehizan esperientzia duen norbaitekin joateko, asko ikasiko duelako horrela.



**JENDATEA** > HERRI PARTAIDETZA

# Biteri plazaren eta Kulturateren gainean galdetuko diete arrasatearrei

Biteri plaza berritzeko zer egin daitekeen galdetuko diete herritarrei

Kulturatek eskaintzen duen zerbitzuaren gainean dagoen iritzia ere batu gura dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

San Josepe harrobiaren gaineko bozketa bukatuta, datorren urtean Arrasateko beste bi konturen gainean galdetuko diete herritarrei: Kulturatek eskaintzen duen zerbitzuaren gainean eta Biteri plazaren etorkizunaren gainean.



Aterpe eta guzti izan arren, herritarrek ez dute ohitura handiegirik Biteri plazan ibiltzeko. U.M.

**KULTURATEREN GAINEAN**

Kulturateri buruz, kontuan hartuta kultura etxearen zerbitzua berria dela, Udalak haren gaineko balorazioa eskuratu gura du. Oihana Aranburu alkateordeak azaldu duenez, "parte-hartzearen bitartez" jakin gura dute "zein behar ikusten dituzten edo zein proposamen duten" erabiltzaileek. Aranburuk esan du badituztela proposamen batzuk, adibidez, "udako ordutegia dela-eta hura handitzeko, edo azterketetan malgutasun gehiago eskatzen ordutegiarekin". Herritarrei galdetuta Udalak gura du lortu "oinarria" zerbitzuaren erabilera hobetzeko.

**BITERIREN ETORKIZUNA**

Biteri plazari dagokionez, berriz, Arrasateko Udalak ikusten duena da "plazaren erabilera ez dela pentsatzen zena modukoa"; hala, gura duena da herritarrei galdetu "zein erabilerarako ikusten duten aproposa", dio alkateordeak. Edozelan ere, gaineratu du horrek ez duela esan gura "gero gauzatuko denik", baina balioko diela herritarren iritzia jakiteko.

**URTE BETEKO EPEA**

Bi egitasmo horiek Gipuzkoako Diputazioarekin eta Eudelekin elkarlanean egingo ditu Udalak. Hala, Edurne Egañak, Lehendakaritzako eta Foru Administrazioko foru diputatuak emandako xehetasunen arabera, Kulturateren gaineko iritzia galdeketa bitartez batuko dute. Gizaker enpresa arduratuko da horrekin eta telefonoz zein etxez etxe banatutako inkestak egingo dituzte.

Biteri plazaren gaineko iritzia batzeko, berriz, beste metodologia mota bat erabiliko dutela esan du diputatuak: "Sistema luzeagoa izango da, herritarren erantzunaren araberakoa. Tailerrak, herritarrekin batzarrak… egingo ditugu, tokian tokiko beharren arabera". Siadeco enpresak egingo du lan hori. Edozelan ere, helburua da bi kasuetan, urtebeteren buruan izatea emaitza.

Diputatuak kontatu du herritarren parte-hartzearekin lotuta halako zerbait egiten duten lehen aldia dela. Arrasaterekin batera, Gipuzkoako beste bederatzi herritan egingo dituzte antzerako ekimenak, tartean, Oñatin.

**ETXEBIZITZAK** > IZENEMATEA

## Datorren astean has daiteke izena ematen La Caixako etxeen zozketan parte hartzeko

Errenta ez da izango hilean 270 euro baino altuagoa; zozketa martxoan egingo dute

**U.M.** > ARRASATE

Datorren astelehenean, azaroaren 17an, hasi eta urtarrilaren 16ra bitartean eman ahal izango da izena La Caixako etxeen zozketan parte hartzeko; Zerrajeragunean eraikitzen dabiltzan errentan emateko 148 etxebizitzen zozketarako, hain justu ere.

Izena emateko eskaera orria bete behar da, eta bi lekutan eskuratu ahal da hori: Biztanleen Arreta Zerbitzuan edo La Caixak Arrasaten edo Debagoienean dituen edozein bulegotan.

**BALDINTZAK**

Jakina, zozketan parte hartzeko gutxieneko baldintza batzuk bete beharko dira. Adibidez, asko jota pertsona batek 35.000 euro irabaz dezake urtean; eta bi pertsonako familia batean (biak irabazten), adibidez, asko jota, 40.936 euro.

Bestalde, gutxieneko dirusarrerak ere izan behar dira; kasu horretan, 2006an 3.000 euro baino gutxiagoko sarrerak izan zituztenek ezin dute izenik eman.

Berez, etxe horiek dira 35 urtetik behera edo 65etik gorakoendako; baina eskaera gutxi badaude, adin tartea zabaldu egingo dute.

> NAGUSIAK

## Oinak zaintzearen garrantzia aztertuko dute, Musakolan

Musakolako Erretiratuen Elkarteak iragarri du datorren eguaztenerako, azaroaren 19rako oinen zaintzaren gaineko hitzaldia antolatu duela: *Oinen zaintza, norberaren ongizatearendako*. Ana Atienzak, gai horietan aditua denak egingo du berba; hitzaldia gaztelaniaz izango da eta 17:00etan hasiko da. Besteak beste, oinen zaintzaren gaineko gomendioak egingo ditu. Hitzaldia Musakolako elkarteak antolatu arren, interesa duen edozein gonbidatu dute hitzaldira.

> AZPIEGITURAK

## Ospitalean dagoen aparkaleku arazoari irtenbidea eman nahian

Arrasateko Udala badabil aztertzen aukera lehengo Gamei fabrikaren, (orain Fagor Arrasaterena den pabilioiaren) aparkaleku zati bat egokitzeko, ospitale eta anbulatorioko langile eta erabiltzaileendako. 2.500 $m^2$ ditu aparkalekuak eta asmoa da hesi baten bitartez banatzea bi zatitan: bata fabrikako langileendako eta bestea ospitaleko erabiltzaileendako. Lagapen hori ospitaleko lanak bukatu arte izango litzateke, 2010era arte. Hitzarmenaren xehetasunak lantzen dabiltza orain.




Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**EUSKARA** > AED ELKARTEAK, 25 URTE

# Hizkuntza gutxituen egoera eta beste dira aztergai abenduan

## Hizkuntza gutxituen gaineko jardunaldiak Kutxak babestuko ditu 15.000 euro emanda

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Hizkuntza gutxituak izango dira protagonista Arrasaten abenduan, AEDk, elkartearen 25. urteurrenaren harira, Nazioarteko Jardunaldiak Hizkuntza Gutxituen Inguruan antolatu ditu-eta. Hain justu, asteon sinatu dute hitzarmena AEDk eta Kutxak, azken erakunde hori izan dadin, bereziki, jardunaldi horien babesle eta oro har, 25. urteurreneko ospakizunen laguntzaile. Aurrezki kutxak 15.000 euro emango dizkio AED.

**NAZIOARTEKO ADITUAK**
Abenduaren 19an eta 20an dira jardunaldiak, Garaian eta Kulturaten, hurrenez hurren. Garaian landuko duten gaia zera izango da: *Hizkuntza gutxituak gaur egun, erronkak eta aukerak*. Kulturaten, berriz, beste hau: *Euskara Elkarteen Arteko Topaketak*. Polonia, Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko adituak etorriko dira parte hartzera. Batzuk aipatzearren: Tomasz Wicherkiewicz, Poloniako Adam Mickiewicz University-ko hizkuntza gutxituen saileko burua; Carme Junyent, Kataluniako Grup d'Estudi de Llengües Amenaçades elkarteko lehendakaria; eta Carlos Callon, Galiziako A Mesa pola Normalización Lingüística elkarteko presidentea.

Jardunaldiotarako izena eman beharra dago; AEDk esan duenez, datorren astean jakinaraziko dute zein den bidea eta epeak.

**EUSKARAREN ETORKIZUNA**
Bestalde, 25. urteurrenaren harira, azaroan euskararen etorkizunaren gaineko hitzaldi sorta dabiltza egiten. Datorren eguenean dute bigarren saioa. Joxerra Gartziak berba egingo du; hark dioen moduan, "ezagutzak dezente gora egin duen arren, erabileraren garapena askoz apalagoa izan da, eta horrek eman beharko liguke zer pentsatu". Halakoak aztertuko ditu, Kulturaten, 19:00etan.



Marta Madinabeitia (Kutxa) eta Zigor Masip (AED) hitzarmena sinatzen. TXOMIN MADINA



GOIENKARIA



GOIENKARIA

# 'Kareharria Oinarri' proiektua gura herritarrek

Herri bozketan balioetsitako 336 botoetatik %22rekin, *KO* proiektua aukeratu dute herritarrek San Josepe harrobiak utzitako gunean gauzatzeko egokien moduan. Lehiaketa, hortaz bigarren fasean sartuko da orain; horra iritsi diren bost proiektuak sakon landu beharko dituzte, epaimahaiak bost horietatik bat aukeratu dezan. Martxoan emango dute jakitera ze proiektuk jasoko duen 88.000 euroko saria.

**ZERBITZUAK** > UDAL GAZTE BULEGOA

# 'Gaztebulegoa.com', sareko erreferente berria gazteentzat

## Edukiz mamituta eta informatzeko kanal eta bide berriekin, gune berria aireratu dute

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE
Itxuran berritua eta mamian informazioz beteta dator Arrasateko Udal Gazte Bulegoaren webgune berria (*www.gaztebulegoa.com*). Sareko informazio iturri eta erreferentzia izateko aurkeztu berri duten guneak gazteei, hain zuzen gertuko zaien inguruan bertan, zerbitzua ematea du helburu. Egubakoitzero aldizkari elektronikoa, SMS bidalketa, RSS harpidetza edota egoitzan ipiniko duten pantaila elektronikoa dira teknologia berriei esker Gazte Bulegoak hartu duen bultzada berriaren zutabeak. *Arazoak 11* kanpainari erantzuna da aurkeztu zuten azaroaren 11n.

Luzapen birtuala izango du, hortaz, aurrerantzean Udal Gazte Bulegoak sarean. Webgunea 2005ean aireratu bazuten ere, eduki eta, batez ere, informatzeko bide berriekin dator hornituta oraingoan.





Xose Manoel Nuñez galiziarraren hitzaldiaz itxi zituzten zinema jardunaldiak. Ondoan, Jon Ander Ramos antolatzailea. ARIZMENDI

**ZINEMA ETA HISTORIA** > JARDUNALDIAK

# Jende askok hartu du parte 36ko gerraren jardunaldietan

Bataz beste 50 ikusle inguru izan dira Kulturaten ekimena ospatu den jardunaldi bakoitzean

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arizmendi ikastolak antolatuta, martitzenean amaitu ziren *II*. Historia eta Zinema jardunaldiak. Aurten 36ko gerra izan da protagonista, Jon Ander Ramos ekimenaren zuzendariak arrazoitu duenez, "gertu dugun gaia delako".

**36KO GERRA, 'GAI APROPOSA'**

Aurtengo jardunaldien balorazioa egiterako orduan pozik agertu da Ramos: "Antolatzaile guztiak oraindik bildu ez bagara ere, pozik gaude jardunaldiek izan duten harrerarekin". Horretan, Ramosen ustez, eragin zuzena izan du jardunaldiek Espainiako gerra hizpide izan izana; bada, dio Arizmendiko irakasleak, "gai aproposa izan da, gerra hura gertu bizi izan zuen adineko jende asko erakarri duelako".

Adineko jendeaz gain, gazteek ere (ikasle asko) hartu dute parte.

**IAZ BAINO JENDE GEHIAGO**

Iaz Historiako aro guztiak landu zituzten umorezko zinemaren bitartez. Aurten, gai zehatz bat aukeratu dute eta, arrakasta ikusita, horrela jarraitzea da asmoa.

Bigarren edizio honetan ekimena finkatu egin dela dio Ramosek. Horren lekuko garbia da jardunaldiotara iaz baino jende gehiago hurbildu dela. Azken lau martitzenetan proiektatu dira filmak, eta hauetara 50 pertsona inguru gerturatu dira, batez beste; azken hauetatik 15 inguruk film guztiak ikusi dituzte.

**MUSIKA** > ARRASATE MUSIKAL

# Santa Zezilia dela-eta, Arrasate Musikalen ekintzak

Arrasate Musikalek zenbait kontzertu eta kalejira bat prestatu ditu datozen egunotarako

**J.B.** > ARRASATE

Udazkenean 17:30erako ilundu egiten du; kaleak tristatu egiten dira. Bada, hoztasun honi aurre egiteko Arrasate Musikal sendagaia izan daiteke. Izan ere, musika orkestra beteranoak hainbat ekitaldi antolatu ditu aste bukaera eta datorren asterako. Domekan, esaterako, txistulariek kontzertua eskainiko dute Aramoioko Gantzaga auzoko elizan. 11:00etako mezan joko dute eta ordubete geroago aspaldiko ohitura bihurtu den emanaldia egingo dute. Pieza gehienak Euskal Herrikoak izango dira.

**SANTA ZEZILIA EGUNA**

Musikarien zaindari Santa Zezilia omentzeko ere zenbait ekintza antolatu dituzte.

Azaroaren 18an, martitzena, Arrasate Musikaleko ikasleek Nafarroako Kutxan (Garibai etorbidean) kontzertua emango dute (18:00): gaztetxoek denetariko instrumentuak joko dituzte. Egubakoitzean, bestalde, Arrasate Musikaleko banda nagusiak kalejira egingo du Arrasateko kaleetan zehar. 19:30etik aurrera, *Egun da Santimamiñe* eta *Ikusi Mendizaleak* piezak interpretatuko ditu bandak.



Arrasate Musikalek aurten eskaini duen kontzertu bat. ARRASATE MUSIKAL



Naturak 2008an eman dituen erretratu onenak ikusgai izango dira Kulturaten. A.U.

**ERAKUSKETAK** > 'NATURAREN ARGAZKILARIAK 2008'

# Urteko natura argazki onenak, ikusgai Kulturaten

**J.B.** > ARRASATE

Kutxaren babespean, munduko natura argazkilari onenen argazki ikusgarrienekin osatutako erakusketa izango da. Erakusketa gaur zabaltzen bada ere, bihar izango da inaugurazio ofiziala, 18:00etan hasita. Abenduaren 10a arte egongo da zabalik.

**ARGAZKI IKUSGARRIAK**

100 argazki inguru ikusi ahalko dira erakusketan, bata bestea baino ikusgarriagoa. Izan ere, Wildlife Photographer of the Year deritzon lehiaketara –mota honetako txapelketetan garrantzitsuena– aurkeztu direnen artean argazki onenak dira.

> ZINEMA

## Fantasiazko eta beldurrezko zinema maratoia gaur, Amaian

Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinema asteko filmak heldu dira Amaia antzokira. Hasteko, euskal film laburrak proiektatuko dira, eta ondoren, film luze bi emango dituzte. Maratoia 19:30ean hasiko da eta sarrerak hiru euro balioko du. Sarrerak Kutxaren bitartez erosi ahalko dira.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE
Gaur azaroak 14
00:00etatik aurrera
Martín Luna
Umorezko saio musikala



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6, behea / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
Arrasate / Mendia Jauregia.
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.


Arrasate Kanpanzar atletismo taldeko erretratua, Mojategiko kirol instalazioetan. ARRASATE KANPANZAR

**ATLETISMOA** > 2008-2009 DENBORALDIA

# Arrasate Kanpanzar taldea denboraldi berriaren aurrean

Arrasate Kanpanzar atletismo taldeak krosekin hasiko duten denboraldi berria aurkeztu du asteon

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Arrasate Kanpanzar taldeak oraingo asteburuan estreinatuko du 2008-2009 denboraldia, Irunen egingo duten krosean: "Krosekin hasiko dugu denboraldia, eta segidan etorriko dira pista estaliko probak, abenduan", adierazi du taldeko ordezkari Fernando Zufiriak. Hala, asteburuan Irunen izango dira, beteranoetan, Maria Jose Gil (2.420 metro), Cesar Diez eta Javier Mentxaka (4.380 metro). Gazte mailan Martin Berrizbeitia izango da (5.380 metro), kadete mailan Andoni Perez (4.380 metro), infantiletan Maria Jaca (1.530 metro) eta alebinetan Julen Garai (1.200 metro).

**DENBORALDIKO HELBURUAK**

Joan berri den denboraldia ona izan da Arrasate Kanpanzar taldearendako, eta garbi daukate hurrengo denboraldirako helburuak zeintzuk diren: "Atleta gazteekin lan egitearekin batera neska-mutikoek euren gutxieneko markak gainditzea izango da helburuetako bat, bakoitza bere mailan. Gipuzkoako txapelketetan lehia daitezela, eta ahal den neurrian Euskadiko txapelketetara eta Espainiakoetara joateko ahalegindu daitezela. Horrekin batera, Euskadiko selekzioan egotea ere oso garrantzitsua da, horretarako egin behar dute lan".

Asteburuko probaren gainean galdetu diogu Zufiriari: "Krosrako sufritzeko gaitasuna daukaten atletak aukeratzen ditugu, maila ona eman ahal dutenak, eta aukeraketa zorrotza egiten dugu. Lasterketa gogorrak izaten dira, eta neska-mutiko asko halamoduz iristen dira helmugara; nik ez dut gure atletendako horrelakorik gura, eta horregatik egiten dugu aukeraketa zorrotza.

**KIROLGIREN LAGUNTZAREKIN**

Aurten lau lagunek izango dute Kirolgiren laguntza. Izan ere, Jonathan Perezek (Reala) eta Markel Blancok orain arte izan duten laguntza jasoko dute pertika jauzian nabarmentzen dabiltzan Lore Marrek eta Maialen Axpek. Bi atleta horiek aurreko postuetan ibili dira Espainiako Txapelketan, eta progresiorako tarte handia dute. Horrekin batera, federatutako 40 atleten atzetik, eskola mailako 80 neska-mutikoekin ere badago harrobia; esaterako, Arizmendiko infantil mailako atletak bigarren sailkatu ziren Gipuzkoako Txapelketan, eta hirugarren Euskadikoan.

Talde hori zuzentzeko lanean ibiliko dira Jon Ormaetxea (presidentea), Joxe Inazio Elortza (diruzaina), Jesus Soto, Juan Carlos Martin eta Jose Ramon Petreñas zuzendaritza taldean, eta entrenatzaile moduan jardungo dute Fernando Zufiriak, Jonathan Perezek, Lontxo Avilak, Mikel Uribesalgok eta Jon Ander Amadok: "Eskerrak eman gura dizkiogu Kanpanzarri, ekipamendu berriagatik, eta baita lehengo ekipamendua egin zigun Arrasate Kirolaki ere".

DATUA

**40**

**FEDERATU**

Denboraldi berrira begira 40 federatu izango ditu Arrasate Kanpanzar Taldeak, eta eskola mailako beste 80 atleta.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer-Saukelu Kabia | **1-4** |
| AT Celaya-Iturriotz Taberna | **3-2** |
| Total Disaster-Urza | **5-6** |
| Ekaitz Taberna-Bar Aldapa | **5-2** |
| HLB 108-Dublin Irish Pub | **2-2** |
| Abokajarro-Equs | **4-4** |
| McAwenDauen-Iriztu Taberna | **6-2** |
| Iluntz-Cipris | **3-8** |
| Lasagabaster-Paulaner Dribling | **4-3** |

**PARTIDUAK**

| **Azaroak 15, zapatua** | **Epaileak** |
|---|---|
| **10:00** Betrayer-Iturriotz Tab. | **Dublin Irish** |
| **11:00** Lasagabaster-Dublin Ir. | **Betrayer** |
| **12:00** McAwenD.-Paulaner Drib. | **Lasagab.** |
| **13:00** Cipris-Abokajarro | **McAwenDauen** |
| **16:00** Saukelu Kabia-Urza | **Iriztu Tab.** |
| **17:00** HLB 108-Iriztu Tab. | **Urza** |

| **Azaroak 16, domeka** | **Epaileak** |
|---|---|
| **11:00** Equs-Ekaitz Taberna | **Dublin Irish Pub** |
| **12:00** Dublin Irish Pub-Total Disast. | **Equs** |
| **13:00** Iluntz-Lasagabaster | **Total Disaster** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwen Dauen | 12 | 4 |
| **2.** | Iriztu Taberna | 9 | 4 |
| **3.** | Saukelu Kabia | 9 | 4 |
| **4.** | AT Celaya | 9 | 4 |
| **5.** | HLB 108 | 7 | 4 |
| **6.** | Paulaner Dribling | 7 | 4 |
| **7.** | Betrayer | 6 | 4 |
| **8.** | Lasagabaster | 6 | 3 |
| **9.** | Ekaitz Taberna | 6 | 4 |
| **10.** | Abokajarro | 5 | 4 |
| **11.** | Cipris | 4 | 4 |
| **12.** | Dublin Irish Pub | 4 | 3 |
| **13.** | Iluntz | 4 | 4 |
| **14.** | Bar Aldapa | 4 | 4 |
| **15.** | Iturriotz | 3 | 4 |
| **16.** | Urza | 3 | 4 |
| **17.** | Equs | 2 | 4 |
| **18.** | Total Disaster | 0 | 4 |

### McAwenDauen, lidergoa sendotuta

MacAwen Dauen taldeak aurrerapausoa egin du sailkapenean, bigarren dagoen Iriztu Taberna 6-2 mendean hartuta. Hori horrela, talde horrek bakarrik irabazi ditu orain arte jokatutako norgehiagoka guztiak. Beste aldean, sailkapeneko azken postua alde batera uzteko lehiatu ziren Total Disaster eta Urza, eta daramaten izenari kasu eginda, Total Disasterrek jarraituko du izaten azkena. Amaitzeko, oraingo jardunaldian Dublin Irish Pub eta Lasagabaster taldeek jardunaldi bikoitza izango dute.

AZAROKO ESKAINTZA
PRAKAK
• TIRO BAXUKO ZANGO-ESTUAK: **24,95€**
• TIRO ALTUKO ZUZENAK: **29,95€**
• MODERNOAK(MUTILAK): **29,95€**
*Praka bat erosiz gero, kamiseta bat opari!!!*
Zerkaosteta kalea 3 - ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

bote-prontuen

**Itziar Uriarte** > Loramendi Kiroletako arduraduna

# "Zumarragako denda aurrerapausoa da"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Itziar Ugartek 14 urte daramatza Loramendi Kirolak dendan lanean; gustuko du jarduera hori. Orain buru belarri ari dira lanean abendu hasieran Zumarragan zabalduko duten denda berriari azken ukituak ematen.**



**Kirol dendan krisiaren eragina nabari duzue?**

Beste sektoreetan bezala, komertzioan ere nabari da jendeak ez duela lehen bezala gastatzen. Prezioak inoiz baino garrantzi handiagoa dauka, eta Intersport etxeko markak gehiago saltzen dira kalitatea prezio baxuetan eskaintzen dutelako.

**Gazteen artean zer da gehien saltzen dena?**

Gazteak gauza berriek erakartzen dituzte. Denetik saltzen da, baina osagarriak gero eta garrantzi handiagoa daukate.

**Arrasaten bi denda dituzue eta abenduan beste bat zabalduko duzue Zumarragan.**

Bai, Zumarraga erdialdean zabalduko dugu. Bertako bezeroei gauza desberdin eta erakargarriak eskaintzea da gure erronkarik handiena. Gazteei zuzenduta egongo da gehienbat, eta arropa eta oinetakoetan oinarrituko dugu bertako aukera.

**Negu garaian hotzari aurre egiteko zein da arroparik aproposena?**

Kipularen geruzen antzera, kamiseta termikotik hasi, beroa eta transpiragarri den jantzia gainetik eta, bukatzeko, euri eta haizetik babestuko gaituen mintza duen jaka, hori ere transpiragarria.

**Urtetik urtera, moda kontuetan aldaketak izaten dira. Zer da aurten modan dagoena, bada?**

Kolore aldetik, morea, gorria eta, noski, beltza. Jantzi aldetik, arin eta erosoak, baina neguko eguraldiari aurre egiteko aproposak direnak.

**Zer eramango zenuke 8.000 metroko mendi tontor batera?**

8.000 metrotako mendietara hurbiltzea bakarrik sekulako esperientzia ikusgarria izango litzateke niretzat. Bertako jendea ezagutzeko aprobetxatuko nuke.

txutxu-mutxua



A.I.

# 1956an jaiotakoek kinto bazkaria egin zuten

Pasa den azaroaren 8an, 1956an jaiotakoek kinto bazkaria egin zuten Arrasaten, urtero egiten duten moduan. Eguerdi aldean Portaloian elkartu ziren guztiak, eta, herriko tabernetan txikiteoan ibili ondoren, 14:30 aldean bazkaltzera joan ziren batzokira. Guztira 55 lagun inguru bildu ziren egun horretan bazkarirako. Bazkaldu ondoren, otorduondo luzea egin zuten bertan bildutakoek eta giro ezin hobean pasa zuten arratsaldea, urte betean zehar gertatu direnak eta ez direnak elkarri kontatuz.

bere ustez



**Antxon Mendizabal**

# Obamaren garaipenaren inguruan

Ez dut nirea egiten Obamaren garaipena. Onartzen dut Sahara azpiko herrietan Obamaren fenomeno mediatikoak sortutako ilusio eta identifikazioa. Onartzen dut afroamerikar eta indoamerikar autoestimarendako Obamaren garaipenak eduki duen eragin positiboa. Baina Obama ez da beltzen liderra baizik eta munduko lider izatea lortu duen beltza.

Ez nago orduan Obamarekin egin behar politikoarekin. Obama da Estatu Batuetako inperialismoaren gainbehera kudeatu behar duen pertsona. Eta badauzka horretarako eginbehar handiak: Amerikan jaiotako finantza burbuilak ekarri digun mundu mailako krisi finantzarioa; ozeano bareko ardatzak munduko ekonomiaren akumulaziorako lortu duen zentralitatea; azkeneko hamarkadetan Ameriketako Estatu Batuek (AEB) bildutako zor erraldoia, munduko handiena bihurtu dena; terrorismoaren aitzakiarekin, hegemonia berreskuratzeko Bushek erabilitako nagusitasun militarrak, Iraken ezagutu duen porrota; Latinoamerikara begira AEBek eskainitako ALCAk ezagutu duen porrota. Itxura eraldatuz eta kudeaketa hobetuz, zer konpondu dezake Obamak?

**"Obama ez da beltzen liderra, baizik eta munduko lider izatea lortu duen beltza"**

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
**Erakusketa eta biltegia:**
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

S. CARRASCAL S.L.
**Guk egindakoak:**
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
*Erakusketa berria*
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

arrasaten - biteri 11 - 943 08 15 40
biteri aparkaleku parean
PROMOZIO
%10
BEREZIA
jertse eta kirol-jertseak
hamabostaldia
azaroaren 17tik 29ra arte
badabil

**UDALA** > PLAN OROKORRA

# Datozen urteetan herriak izango duen antolamendu eredua, onartuta



Bergarak egun duen itxuraren ikuspegi orokorra Surrako gainetik.

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Datozen urteetan Bergarak izango duen antolamendua, itxura, jasotzen duen behin-behineko Plan Orokorra onartu zuen udalbatzak asteleheneko ez ohiko osoko bilkuran. Udal gobernuak eta PSE-EEk alde bozkatu zuten eta EAJ eta EA abstenitu egin ziren. Zabalotegiko errepidea ez jasotzea da EAJrendako puntu nagusiena: "Herri barrua oinezkoendako uztearen aldekoak gara eta uste dugu errepide hori egin behar dela, zirkulazioari irtenbidea emateko, eta ez du berdegune historikoa ukitzen", dio Rafael Amasorrain EAJko zinegotziak. Udal gobernuarendako, "errepide horrek galera gehiago ekarriko dizkio herriari onurak baino. Abendurako jakingo ditugu mugikortasun azterketaren emaitzak eta orduan ikusiko dugu ze beste aukera dauden", dio Agurne Barruso alkateak.

**JAURLARITZAREN ONIRITZIA**

Orain Eusko Jaurlaritzara bidaliko du Udalak onartu berri duen behin-behineko Plan Orokorra; hain zuzen ere, Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Batzordera. Batzorde horretako teknikariek sailka aztertuko dute Plan Orokorra. Esaterako, azpiegituretan adituak direnek gai hori aztertuko dute. Berdin gertatuko da ingurumenarekin eta ondare artistikoarekin, adibidez. Teknikari horiek ikusten badute zerbait ez dagoela egon behar den moduan, aldaketa egitea proposatuko dute. Batzordeak bere analisia bidaliko dio Udalari, aldaketekin edo ez. Agiri hori udalbatzak osoko bilkuran onartu behar du Plan Orokorra behin betikoa izateko. Eusko Jaurlaritzak hiru hilabeteko epea du bere erantzuna emateko.

> 1.462 etxebizitza: %52,5 libreak, %20,76 tasatuak eta %26,74 babestutakoak

> Merkataritza zentro handien tamaina ere zenbatekoa izan behar den jasotzen du

> Udalaren gainetik dauden proiektuak ere ikusten dira Plan Orokorrean

**PLAN OROKORRA**

Plan Orokor horrek 1996ko Arau Subsidiarioak ordezkatuko ditu. Han jasotakoak ez du gehiago ematen eta horregatik, herriaren antolamendu berria egin behar izan du Udalak. Duela hiru urte, 2005eko azaroan aurkeztu zuen orduko Udalak Planaren Aurrerapena. 48 iradokizun jarri zizkioten. 2006ko uztailean erantzuna eman zien Udalak iradokizunei, eta irizpideak eta helburuak finkatu zituen dokumentu berri bat egiteko. Bitartean, 2006ko irailean, Lurzoru Publikoaren legea onartu zuen Jaurlaritzak eta horrek aldaketak ekarri zituen. Batetik, lehen Arau Subsidiarioa zenak Plan Orokorra izena hartzen du; eta, bestetik, urbanizazio plangintza jarraituko duen Aholku Kontseilu bat sortu behar da. Lehengo agintaldiko osokoan onartu zuten batzorde hori nortzuk osatuko zuten eta bere araudia.

Batzorde horren ekarpenak osokoan eztabaidatu ostean, Plan Orokorraren Hasierako Onarpena onartu zuen udalbatzak 2007ko apirilean. Maiatzean udal hauteskundeak izan ziren eta udalbatza aldatu egin zen. Udal gobernuan dauden alderdiak ez zeuden ados hasierako onarpenak jasotzen zituen puntu batzuekin, batez ere Zabalotegiko errepidea egitearekin, eta, aldaketa hori jasotzeko, beste dokumentu bat egin behar izan zuten. Aholku Kontseilua ere berria osatu zuten, agintaldiaren iraupen bera duelako batzorde horrek. Aurrekoa baino zabalagoa sortzen dute, auzo alkateak eta sindikatuak ere sartuz, adibidez.

Pasa den uztailaren 16an, Zabalotegiko errepidea kentzea eta Uberatik saihesbidea egiteko aukera jasotzen dituen dokumentua onartu zuen udalbatzak. Bost alegazio jaso ziren hor. Azaroaren 10eko osoko bilkuran behin-behineko onarpena jaso du Plan Orokorrak.

## LUR INDUSTRIALAK

**> LARRAMENDI**

Larramendi da San Juan auzoko industria gune berria, Sprilurrekin batera bultzatutakoa. Hara joateko, biribilgune bat egingo dute Torunsa parean. Basalgotik ez du sarrerarik izango.

Sprilurrek 300.000 metro koadroko lursaila erosi du, gutxi gorabehera, eremu horretan, eta orain urbanizatu egin behar du. 2009ko abenduan bukatuko zaio lan horiek egiteko epea. Urbanizazio lan horiek egindakoan, Debagoieneko Industrialdeari 25.000 metro koadro salduko dizkio. Gainerakoak, enpresei salduko dizkio zuzenean eurek pabiloiak eraikitzeko, edo berak eraikiko ditu, erosleak horrela eskatuz gero. Debagoieneko Industrialdeak 300 metro karratu inguruko pabilioiak egingo ditu saltzeko. Aurretik, proiektua enkargatuko du eraikin horiek egiteko. Dagoeneko enpresa batek baino gehiagok erakutsi du interesa Larramendira joateko.

**> MEKOLALDE**

Mekolaldeko industria gunean, Lazpiurrek handitu egin du bere lantegia, Tornilleria Deba hantxe dago joan den udatik, Danobat lantegia eraikitzen ari da orain eta beste enpresa batzuk ere hitza emanda dute berdina egiteko. Bestalde, zubi zaharretik ezkerrera, lehengo Narbaiza enpresaren araztegiak daude, eta lursail horretan ere pabiloiak eraiki daitezke. Mekolaldeko industria gune horretara joateko zubi berria eginda dago baina sarrera egin behar diote orain. Bergaratik Osintxura bidean ezkerrera gelditzen den mendiari zati bat kenduko diote zubi berriari sarbidea egiteko. Bestalde, zubi zaharra bota egingo dute eta oinezkoendako bakarrik izango den pasabide bat egingo dute.

**> KUKUBASO**

Hirugarren industria gunea Ipiñarri zerrategiaren atzean, Kukubaso izeneko eremuan egingo dutena da. Hara joateko zubi bat egingo dute Mostei enpresaren parean, Olan.

Kortazi
ile apaindegia
Asteartean %15eko
deskontua erretiratuentzat
Martoko 30 BERGARA Tel.: 943 76 52 38



Ion Murgizu
Pinturak
Margoketa orokorrean
• Enpapelatuak
• Iztukoak
• Fatxadak
• Eskilarak eta patioak
• Pintura industriala
Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behea • Soraluze
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92


JASONE ZABALA


Tornilleria Deba zegoen orubean etxebizitzak egingo dituzte. J.Z.


Mekolaldeko industria gunea. J.Z.

## ETXEBIZITZAK

> LABEGARAIETA
20. Tasatuak.
> OZAETA
32. Babestuak. (Egiten ari dira).
> URTEAGA KALEA
Guztira, 267 (128, babestuak. 24, tasatuak. 115, libreak).
> SAN ANTONIO
38. Tasatuak. (Egiten ari dira).
> ALGODONERA
Guztira 320. (25 babestutakoak, 55 tasatuak eta 240 libreak).
> TORNILLERIA DEBA
Guztira 327-342. (68-84 babestutakoak, 52 tasatuak, 207 libreak).
> MARTOKO GAINA
Guztira 74. (42 tasatuak, 32 libreak).
> OREGI EHUNGINTZA + MUGERTZAKO GAINA
Guztira 72.
> ARTABILLA EREMUA
Guztira 128. (96 babestutakoak, 22 libreak).
> UBERA
Guztira 15. (6 tasatuak, 7 libreak, 2 familia bakarrekoak).
> ANGIOZAR ETA OSINTXU
Auzo horietan ere egingo dituzte.

## AZPIEGITURAK

**> ERREPIDEAK**
AP1 autobidea dagoeneko eginda dago Bergara parean, eta Beasain-Durango errepidea datozen urteetan egingo dute. Goenbulu, Bonbulu parean lotura izango du errepide horrek Urteaga kalearekin: Beasain Durangok sarrera eta irteera izango du gune horretan.

Bestalde, aipatutako errepide hori San Miguel azpitik pasako da eta Aritzeta mendia zulatu egingo dute tunela egiteko.

**> TRANBIA**
Jaurlaritzak egindako proiektuari bi alegazio nagusi aurkeztu dizkio Udalak: Ibargarai zeharkatu ordez tranbia Zurraderotik pasatzea, errekaren beste aldeko bidegorritik, eta Labegaraieta aldera joateko tunel barrutik pasa ordez, errepidetik pasatzea. Bigarren aukera hori gauzatzeko, Udalak egindako proiektuak jasotzen du: tunela botatzea, Gabiria baserria botatzea, Iberdrolak Artabillako gunean duen zentro elektrikoa tokiz aldatzea eta errepidea zabaltzea, mendiari zati bat janez. Gainera, Ibargarai kaletik Algodonerako orubera zubi berri bat egitea ere aurreikusten du Udalaren proiektuak. Modu horretara, Algodonera gunetik Ozeta aldera joateko kalea egongo litzateke.

Aldaketa nagusi horrekin batera, tranbiak Telleriako biribilgunera arte herri barruko abiadura izatea eta Labegaraietan geltokia jartzea ere eskatu du Udalak. Jaurlaritzak ez die alegazioei erantzun oraindik baina Plan Orokorrak jaso ditu.

**> BIDEGORRIA**
Bergaratik Antzuolarako bidegorriak du lehentasuna. Bidegorri hori joango da Bergaratik Antzuolarako bidean Urola errekaren ezkerretik, Errege bidea deitzen den tokitik. Trazatua eginda dago eta falta da bidea bera garbitzea eta egokitzea. Goenbulu, Bonbulu, parean dago arazoa, hor elkartzen direlako Beasain-Durango errepidea batetik eta uraren kolektorea bestetik. Hain zuzen ere horregatik atzeratu da bidegorri hori, ibilbidearen puntu baten nahastu egiten direlako hiru proiektu horiek: errepidea, kolektorea eta bidegorria.

Beste adarrak dira: Mekolaldetik Arrasatera eta Mekolaldetik Urretxura. Osintxutik Mekolaldera egitea onartuta dago eta laster asfaltatuko dute bidea. Hori eginda, bidegorria egongo da Mekolaldetik Soraluzeraino. Mekolaldetik Bergara alderako zatia industria gune horretan dauden enpresei dagokie egitea.

**> ABIADURA HANDIKO TRENA**
Oraindik informazio zehatzik eduki ez arren, AHTren ibilbidea ere jasotzen du Plan Orokorrak.

Herriaren antolamendua jasotzen du Plan Orokorrak eta Udalak egiten du plan hori, baina Udalak nahi eta nahi ez jaso behar ditu bere gainetik dauden proiektuak. Esaterako, Plan Orokorraren gainetik daude Jaurlaritzak egiten duen Lurralde Zatiko Plana eta AHT. Udal gobernua AHT proiektuaren aurka egon arren, derrigortuta dago Plan Orokorrean jasotzea eta horregatik, egun tren horrek duen ibilbidea agertzen da Udalak egindako agirian.

## HEZKUNTZA ETA ZERBITZUAK

**> HEZKUNTZAN**
Hezkuntza arloan Miguel Altuna Institutuko eraikin berria da Plan Orokorrak jasotzen duen aldaketa bakarra. Eraikin berri hori Artabilla eta Candy-Hoover enpresaren artean egingo dute, Kilometroak festaren guneetako bat egon zen tokian, herriko jaietan motokros lehiaketa egin zuten lekuan.

Eraikin hori egiteak lehentasuna du Udal gobernuarendako eta ahalik eta azkarren egin gura du. Asmoa da Jaurlaritzako legealdi hau bukatu aurretik egitea lanen lizitazioa.

**> KOMERTZIOAK**
Lur industrialetan ere aukera dago eremu handiko merkatal zentroa eraikitzeko, baina Plan Orokor honek muga jarri dio aukera horri: merkatal zentro hori ez da izango Eroski berria baino handiagoa.

**> BERDEGUNEAK**
Herriko berdeguneen inguruan, Plan Orokorrak ez du inolako aldaketarik jasotzen.

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Almacenes MAHER
ETXERAKO ARTIKULUAK
Izarak, funda nordikoak, mantak, toallak, sukaldeko trapuak, etab.
eta AZAROtik aurrera
ALZA
sukaldeko tresneria
FABRIKAKO PREZIOAK!
Bidekurutzeta 29 Bergara

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

**MUSIKA** > SANTA ZEZILIA

# Musika Eskolak Santa Zezilia eguna ospatuko du eguenean

Musikarien zaindariaren eguna ospatzeko, Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du Mariaren Lagundian, gaur 20:00etan

**NEREA MENOR** > BERGARA

Datorren asteko eguenean, hilaren 20an, Bergarako Musika Eskolak Santa Zezilia, musikarien zaindariaren eguna, ospatuko du. "Ospakizuna herriari zabaldu nahian Euskal Herriko musika eskola guztiak egun berean eta ordu berean irtengo gara kalera", esan du Musika Eskolak.

Musika eskolen elkarteak *Musikalean* –Musika kalean– izena jarri dio ekimenari eta egun horretan Kukuxumuxuk diseinatutako kamisetak aterako ditu. "Guztira Euskal Herriko 34 musika eskolak parte hartuko dugu, horietatik 24 gipuzkoarrak izango garelarik. Guztira 1.500 ikasle irtengo gara", esan digute Musika Eskolan.

Azken 24 urteetan, Bergarako kaleetan zehar, gazte bandak eta eskolako ikasleek kalejira egin izan dute. Aurten ere, ohiturari jarraituz, musika eskolatik kalejiran irtengo dira 17:30ean. Ondoren, San Martin plazan ekitaldi txiki bat egingo da. Talde askok hartuko dute parte: txistu taldeak, trikiti taldeak, akordeoi taldeak edo abesbatzak, adibidez. "Bertara hurbiltzen diren guztientzat txokolatada eskainiko dugu".



Urtero bezala, aurten ere, kalejiran irtengo dira Musika Eskolako ikasle eta irakasleak. MUSIKA ESKOLA

**GAUR, ORKESTRA SINFONIKOA**

Bergarako Orkestra Sinfonikoak ere ospatuko du Santa Zezilia eguna. Gaur, 20:00etan, Mariaren Lagundiko elizan egun hau ospatzeko kontzertua eskainiko dute. "Berez, azaroaren 22an ospatzen da Santa Zezilia, baina musika bandak 23an jotzen duenez, batera aritzeko, astebete aurreratu dugu", dio Alfredo Gonzalez Chirlaquek. 35 minutuko kontzertu arina emango dute eta doakoa izango da.

Hasteko, ganbara taldeak irtengo dira: aurten oboe eta adar ingelesekoak izango dira. Ondoren, klarinete baxuek eta fagotek joko dute. Amaitzeko, orkestra guztia batuko da: hasieran sokazkoak irtengo dira eta ondoren orkestra guztiak joko du.

Gabonetako kontzertua antolatzen daudela azaldu digu Chirlaquek. Bertan, ohiko taldeek hartuko dute parte. Abenduaren 20an izango da, Udal Pilotalekuan, eta aurten, zuzendariak berak konposatutako *Urdiroz* lana interpretatuko dute.

**ERAKUSKETA**

## Xanti Arrietaren erakusketa azaroan

**J.Z.** > BERGARA

Hilabete honetan guztian zehar Xanti Arrieta pintore, eskultore eta zeramika egile bergararraren lanak egongo dira ikusgai Nahikari tabernan.

Bertan guztira 15 lan egongo dira ikusgai: zeramikazko bi mural abstraktu eta 13 koadro. Koadroetarako Arrietak gehien erabili duen gaia paisaiak izan dira. Eskulturak ere egiten ditu, baina ez ditu ikusgai ipini lan horiek.

**ARRIETAREN IBILBIDEA**

Arrietak bere estudioa Bolun dauka, herriko beste hainbat artistaren moduan. Hurrengo erakusketa Donostian egingo du Arrietak.

> 'GAZTAÑATAN'

### Jon Arretxeren diapositiba emanaldia Osintxuko ludotekan

Jon Arretxe idazle ezaguna Osintxun izango da gaur, *Gaztañatan* egitarauaren barruan. *Karakorumeko goi bide bizikletaz* izeneko diapositiba emanaldia egingo du 19:00etan ludotekan.

Hilaren 23an Erretiratuen Eguna ospatuko da, bazkari batekin Txuringon.

> GAZTE INFORMAZIOA

### Egutegien diseinuak aurkezteko epea amaitzear da

Gazte informazio guneko 2009ko egutegiaren diseinuaren lehiaketara lanak aurkezteko epea gaur, 20:00etan, amaituko da.

Oraindik lanak aurkeztu ez duzuenok, Bergarako Gazte Informazio Gunean edo Kultura Zerbitzuan aurkeztu beharko dituzue.

**MUSIKA** > KONTZERTUA

# Trikitixa soinuak eta perkusioa Zabalotegin, bihar

Ordubete pasatxo iraungo du kontzertuak; folkloreari dagozkion abestiez gainera hainbat motatako abestiak eskainiko dituzte

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Bihar 19:30ean Zabalotegi aretoan Donato Goienetxe eta Xabier Arakama trikitixa eta perkusio bikotearen kontzertua egongo da, Bergarako Udalak antolatuta Kutxaren laguntzarekin.

Trikitixa Euskal Herriko musika tresna tradizionala da, eta, oro har, panderoarekin batera jotzen da. Baina oraingo honetan, ordea, beste tresna hauek izango dira trikitixaren laguntzaile: bongoak, afrikar danborra, xilomarimba, kristinak eta temples block kutxa besteak beste. Errepertorioa, folkloreari dagozkion abestiez gainera, hainbat musika motatako – klasikoak, herrikoiak eta, bereziki, Hego Ameriketakoak– abestiak sartzen dira. 75 minutuko iraupena izango du kontzertuak.

**BI MUSIKARIAK**

Donato Goienetxe Donostiako Goi kontserbatorioko perkusio katedraduna da. Irakasle izateaz gainera, kontzertuak ematen ditu. Xabier Arakamak, berriz, trikitixa eta pandero irakasle dihardu. Trikitixaren berritzaile honek hainbat kontzertu eskaini ditu beste herrialde batzuetan.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84





## BERGARAKO UDALAREN UMEENTZAKO AISIALDI ZERBITZUA

Zure seme-alabek ondo pasatzeko, euskaraz hitz egiteko, lagunak egiteko…

**AGORROSINEN:** ludoteka astelehenetik larunbatera bitartean.
- Astelehenetik ostiralera: 17:00 – 20:00
- Larunbatetan: 10:00 – 13:00
- Informazioa: ludotekan bertan **943 77 70 95**

**OSINTXUKO LUDOTEKA:** astelehenetik larunbatera bitartean.
- Astelehenetik ostiralera: 17:00 – 19:00
- Larunbatetan: 10:00 – 13:00
- Informazioa: Osintxuko ludotekan (eskola ondoan) eta Osintxuko liburutegian **943 76 12 21**

**ANGIOZAR:** liburutegia eta haurrentzako ekintzak astelehenetik larunbatera.
- Astelehenetik ostiralera: 16:30 – 20:30
- Larunbatetan: 10:00 – 13:00
- Informazioa: Angiozarko liburutegian (eskola ondoan) edo **943 76 16 19**

***ZATOZ, JOLASTU ETA ONDO PASATU!***

BERGARAKO UDALA



Neurriak 38tik 60ra

**Mirari**
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Udazkena Negua

**FUTBOLA**

# Bergara-Elgoibar B zapatuan, Agorrosinen

Bigarren tokian da Bergara, Lagun Onak liderrarengandik bi puntura

**E.M.** > BERGARA

Joan den zapatuan Lazkaon husna berdindu eta gero, sailkapeneko bigarren tokian dago lehen erregional mailako Bergara futbol taldea. Lagun Onak bakarrik dute aurretik, bi puntura.

Bihar, zapatua, Manu Diazen mutilek Elgoibar B hartuko dute Agorrosinen, 15:30ean. Elgoibartarrak sailkapeneko 10. tokian dago, 10 punturekin. Bederatzi jardunaldiren ostean, Bergarak ez du partidurik galdu orain arte.

**BTLS, ORION**

BTLS taldeak Oriori egingo dio bisita bihar, zapatua, 16:30ean. BTLSek Eibartarrak taldeari irabazi zion azken jardunaldian, 2-1. Bergararrak 11. tokian dira orain.

> SASKIBALOIA

## Bi saskibaloi partidu aste bukaeran Bergaran

Senior mailako mutilen Soraluce Bergara taldeak Ganbararen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 16:00etan.

Gazte mailako Soraluce BKE nesken taldeak Añorga izango du bisitari, 18:00etan, Mariaren Lagundian.

Bestalde, kadete mailako mutilek etxetik kanpo jokatuko dute aste bukaeran. Konde Panaderokua taldeak Ordizian jokatuko du zapatu goizean, Colchones Atseden taldearen aurka, 10:00etan hasita. Hamar talde dira ligan eta sailkapenaren goialdean dira bergararrak.




Eskuin hegalean jokatzen du Erik Polancok. Argazkian, eskuman, iazko Real Madriden aurkako partiduan. GOIENKARIA

**FUTBOLA** > ERIK POLANCO, LEZAMAN

# Bergarar gaztetxo bat Athleticeko harrobian

Erik Polancok sei urte darama Lezaman; aurten Euskal Ligako kadete mailako taldean dabil. Liderrak dira eta hiru gol egin ditu Erikek

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Lezaman, Athleticek bere harrobia lantzen duen tokian, bergarar gaztetxo bat dabil aspaldian. 15 urte besterik ez ditu Erik Polancok, eta azken sei denboraldiak Athleticeko harrobian eman ditu. Madura taldearekin Aretxabaletan gaztetxoen txapelketa bat jokatzen zebilela, Gregorio Palacios entrenatzaileak ikusi eta Athleticeko azpiko kategorietara eraman zuen. Alebin, infantil eta kadete mailetan jokatu du zuri-gorriekin. Aurten Euskal Ligako kadete mailako taldean dihardu, Gontzal Suances jokalari ohiaren aginduetara. Sailkapeneko liderrak dira, Reala eta Danok Bat taldeen aurretik. Joan den zapatuan 0-3 irabazi zioten Arenasi eta bihar Alaves hartuko dute etxean. Partidu bakarra galdu dute, Eibarren (2-0).

Hamaikakoan finkoa da Erik Polanco; 7 zenbakiarekin jokatzen du eta dagoeneko hiru gol egin ditu ligan (aurre denboraldian beste zortzi). Eskuin hegalean jokatzen du, aurrean, baina atzean, defentsan ere jokatu izan du: "Berdin dit non jokatu, baina aurrean hobeto moldatzen naiz", dio Erikek. "Beharbada teknika, driblina eta abiadura dira nire ezaugarri onenak; buruko erremateekin, berriz, hobetu beharra daukadala esaten dit entrenatzaileak...". 1,77 m-ko altuera du Erikek.

**ASTE OSOA BILBON**

Athleticek harrobiarendako duen egoitzan, Derion, aste osoa ematen du bergarar gaztetxoak. "Han nabil ikasten orain eta astelehenetik eguenera egunero entrenatzen gara, arratsaldez. Martitzenetan eta eguenetan goizez ere bai... Egubakoitzetan etortzen naiz etxera eta zapatuetan partidua izaten dugu. Oso gustura nabil Bilbon. Hasieran gogorra egin zitzaidan baina ondo ohitu naiz hango bizimodura. Egubakoitzetan etxera etorri eta lagunekin egoteko gogoz egoten naiz. Eibarren jokatu genuen partidutara etorri ziren koadrilako batzuk... Gurasoak eta arreba dira jarraitzaile finenak".

**IRAOLAREN JARRAITZAILEA**

Txikitan realzalea zela aitortu arren, gaur Athleticzale amorratua dela diosku: "Reala saiatu da pare bat aldiz ni Zubietara eramaten, baina nahiago dut Athleticen jarraitu". Hainbat partidutan baloi-biltzaile jardutea tokatu zaio San Mamesen. Almeria, Valladolid, Barca edo Recreativo (kopan) ikusi ditu aurten. "Iraola da nire faboritoa. Oso jatorra da gainera. Eta Athleticetik kanpo David Villa eta Sergio Ramos atsegin ditut gehien". Valladoliden aurkako partiduan, amaieran, Amorebietak kamiseta oparitu zion Eriki. Athleticen egoeraren gainean zera dio: "Caparrosek ez du umorea galtzen eta zulotik aterako dira".

Iaz Euskadiko txapeldunak izan ondoren, Espainiako txapelketan hirugarren sailkatu ziren, Castellonen. Bartzelonaren aurka penaltietan galdu zuten eta 3. posturako partiduan Villareali irabazi zioten Erikek eta haren taldekideek, 2-0. Ligako txapeldunak izatea eta ahalik eta gehien jokatzea, futbolaz gozatzea da Eriken asmoa aurten.

ESANAK

**"Reala saiatu da pare bat aldiz ni Zubietara eramaten, baina nahiago dut Athleticen jarraitu. Gustura nago hemen"**

**Erik Polanco** > Kadete jokalaria

> KARATEA

## Shotokan taldekoek denboraldi hasiera ona

Shotokan karate taldeko kideek denboraldiko lehen hitzordua izan zuten domekan Urnietan. Kadete mailan, kumitetan, Iker Moreno, Sara Manzano, Joane Amasorrain lehenak izan ziren; Jon Urkia, Eneko Cruz, Jone Agirrezabal eta Kepa Odriozola bigarren sailkatu ziren; eta Mikel Aginagaldek hirugarren postua eskuratu zuen. Era berean, Haizea Iñarra hirugarrena izan zen katetan, Urnietako proban.

> TXIRRINDULARITZA

## Txirrinduzaleen batzarra eta afaria hilaren 22an

Bergara Txirrindulari Elkarteak antolatuta, denboraldi amaierako afaria izango da datorren zapatuan, azaroaren 22an, Azpeitxi jatetxean. Afarira joateko interesa dutenek izenematea i2 (943 76 41 63) eta Igartua (943 76 11 21) bizikleta dendetan egin dezakete hilaren 18ra arte. Afariaren aurretik batzar orokorra egingo dute Zuloan, 19:30ean. Elkarteko kideei joateko deia egiten die zuzendaritzak.

> ESKOLA KIROLA

## 3x3ko saskibaloi txapelketa bihar Labegaraietan

Eskola Kiroleko programazioaren barruan, 3x3ko saskibaloi partiduak jokatuko dira bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian. Alebin eta benjamin mailetako partiduak jokatuko dira kiroldegian, 09:15etik aurrera.

Partidu bakoitzak zazpi minutuko iraupena izango dira eta maila bakoitzeko talde guztiek elkarren aurka jokatu beharko dute zapatuko jardunaldian, txapeldunak nortzuk diren jakiteko.

> TXIRRINDULARITZA

## Pedalaren Eguna, Lokatzaren eskutik azaroaren 22an

Lokatzak Pedalaren Eguna ospatuko du datorren zapatuan, azaroaren 22an. Lokatzaren sorreratik hona taldean ibilitako txirrindulariak eta zuzendariak batu nahi dituzte antolatzaileek afari baten. Beraz, Lokatzarekin zerikusia izan duten guztiei deialdiarekin bat egiteko eskatzen dute.

Afarirako izenematea Euskadiko Kutxan egin daiteke, 25 euroko ingresoa eginez.

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

mingainari tiraka

**Eva Garcia eta Ana Zubizarreta** > Ziburu jantzi dendako jabea

# "Gehien saltzen den jantzia praka 'pitilloa' da"

NEREA MENOR > BERGARA

**Duela hilabete eta erdi zabaldu zuen Eva Garciak Ziburu denda Iparragirre kalean. 2 hilabetetik hasi eta 16 urterainoko gaztetxoak janzteko arropa dute eta markа bereziekin egiten dute lan: Levi's, Chipie, Floriane...**



**Duela gutxi ireki duzue denda. Zelan doa?**

Urriaren 2an zabaldu genuen Ziburu. Ni jabea naiz baina ahizpak ere egiten du lan hemen. Egia esan, krisia igarri dugu, baina pozik gaude oraingoz.

**Zein da moda udazken honetarako?**

Neskatilendako, *leggins*-ak, soinekoak, praka motzak eta *pitilloak* daude, beste gauza askoren artean. Koloreen aldetik gauza asko dago, jantzi beltzak saltzen ditugu baina baita gorriak, moreak edo urdinak ere.

**Adin guztietako umeentzako jantziak dituzue?**

Jantzi gehienak 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoentzat dira. Hala ere, hainbat markak 2 hilabetetik gorako umeentzako jantziak ekarri dituzte. 16 urteko gaztetxoendako ere baditugu. Jantzi gehienak neskatilendako dira, baina hasi gara mutikoentzako arropa ekartzen, eta nahikotxo daukagu dagoeneko.

**Zein da gehien saltzen duzuen jantzia?**

Neskendako, praka *pitilloak* asko saltzen dira. Txamarrak, gorroak eta bufandak ere asko saldu ditugu. Levi's markako jantziak salduenak dira, Chipie edo Catimini markak ere baditugu.

**Umeen arropak nagusienen antza du?**

Gaur egun bai, 3 urtetik 12 urtetarainoko umeentzako alkandora batzuk ditugu eta nagusien alkandorak bezalakoak dira. Gainera, umeek badakite zer nahi duten eta zeresan asko dute arropa aukeratzerako orduan.

**Zelan janzten dituzu seme-alabak?**

Prakak asko erabiltzen ditut baina gona motzak ere asko gustatzen zaizkit. Ondo jantzita eramaten ditut.

hau be badaukogu

## Geriatria-laguntzaile ikastaroko diplomak banatu zituzten aurreko zapatuan

**Joan zen zapatuan, KutxaZabaleko geriatria-laguntzaile ikastaro amaierako diplomak banatu ziren Unedeko egoitzan. KutxaZabal Deba eta Bergarako Unedek antolatutako ikastaro honetan 12 ikaslek hartu dute parte eta praktikak ere burutu dituzte; 252 ordu izan dira guztira: Oñatiko San Martin egoitzan; Bergarako Goiz Argi etxez-etxeko laguntza zerbitzuan; eta Arrasateko Aita Menni ospitalean. Argazkian, KutxaZabaleko koordinatzailea, irakasle bi eta 12 ikasleetatik 10 agertzen dira. KutxaZabal Deba eta Uned ikasturte berrirako prestaketa lanetan dabiltza. Abenduan irekiko da matrikulazio epea.**



KUTXAZABAL

bere ustez



Andres Osa 'Sakona'

## Lapurrarentzat kartzelarik ez dago

En esta legislatura lograremos el pleno empleo" (Zapatero). Hori esan eta hamar hilabetera 800.000 langabe gehiago. Guztira 3.000.000 inguru eta aurki beste milioi erdi gehituko dira Estatu mailan. Zapatero gezurtero! Hauteskundeak irabazi eta hor konpon! Segi gezurretan. Ez dago krisirik.

Krisiaren berri baldin bazekiten kartzelan egon behar lukete betirako. Ez zekitela? Motibo aski behin betirako baztertu eta ahazteko. *ZP* 640 aholkulariz inguratu-

**"Hauteskundeak irabazi eta hor konpon! Segi gezurretan. Ez dago krisirik"**

rik sekulako dirutza jasotzen dutelarik. Horretarako? Hila amaitu ezinean. Paroan gelditzeko beldurrez. Hipotekak ordaindu ezinean. Familia askotan eraman ezinezko egoerak. Kalbarioak jarraitzen du... Estatua eskuzabal lapurrekin gure diruaz baliatuz. Hainbeste lapur kalean eta bakar bat ere ez daramate barrura. Guztiak hegaraz hasiko balira eguna gaua bihurtuko litzateke.

Bitartean sindikatuak geldik eta mutu salaketa soilari ere uko eginaz. Alderdi politikoen eginkizun nagusia lapurrei laguntza ematea da, ANV udaletan euren soldatak jaitsi eta ustelkeriak salatzen ari den bitartean. Eliza *zorionekoak pobreak, zuentzat da zeruko erreinua* eta predikatzen.

Raizabal gozotegia
100 urte zuekin eskerrik asko guztioi
Artekale 9 Tel.: 943 76 11 83 / Bidekurutzeta 20-22 Tel.: 943 76 12 19

GAZTELU, S. A.
BURDINDEGIA
HORNIDURA INDUSTRIALAK
Mintegi kalea 1
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32





iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

ELKARTASUNA > SAHARA

# Jostailuak batuko dituzte, Tindoufen ludoteka osatzeko

Tindouf hiriko Martin Schreif zentroko umeendako izango dira jasotako jostailuak

Ludotekak eta Iesbaa elkarteak antolatuta hainbat ekitaldi egingo dituzte asteotan

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Saharara bidaltzeko jostailuak jasoko dituzte Algara ludotekan astelehenean hasi eta abenduaren 14a bitartean. Ludotekak eta Sahararí laguntzea helburu duen Iesbaa elkarteak antolatu dute ekimena, eta jostailu batze soil bat baino gehiago izango da. Egitasmoak Saharako umeen egunerokotasuna erakutsiko diete Aretxabaletako neska-mutikoei, eta Saharako kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera izango dute.



Saharako umeak motxilan aldean hartuta eskolara bidean. IESBAA

**EGOERA ONEAN DAUDENAK**

Aljeriako Tindouf hiriko errefuxiatu kanpamenduan dagoen Martin Chreief zentroari lagundu gura diote. Zentro horretan bizi dira Saharako gatazkaren ondorioz zauritutakoak eta gaixorik dauden lagun asko. Eta bertan izaten dira umeak ere senideak bisitatzen edo opor eta jai egunetan. Hala, ume horien egonaldia arinagoa izan dadin zentro horretan, eta adinari dagokion jolasak egiteko jostailuak bidali gura dituzte Aretxabaletatik. "Jostailuak izanez gero, jolasteko toki bat izango dute, hau da, ludoteka", diote antolatzaileek.

Astelehenetik aurrera jasoko dituzte jostailuak Algara ludotekan. Hiru baldintza jarri dituzte jostailuendako: egoera onean egotea; pilarik ez behar izatea; eta hautsik jasoko ez dutenak izatea –hartz panpinak, peluxeak… ez dituzte onartuko.

Baina jostailu batze bat baino gehiago da egitasmoa, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte horren inguruan: argazki erakusketa, ipuin kontaketa, Saharako jakiekin merienda… eta bukatzeko, jaialdia, abenduaren 13an. Azaroaren 28ko merienda ludotekako bazkideendako bakarrik da, baina gainerako ekitaldietan herriko ume guztiek har dezakete parte.

OLAIA SAGREDO –IESBAA ELKARTEKO ARDURADUNA–

### Martin Chreief zentroko umeak

"Tindouf hiriko errefuxiatuen kanpamenduetan dagoen Martin Chreief zentroan egonda nago. *Oporrak Bakean 2008* egitasmoarekin etorritako 11 ume –Lasturko aterpetxean egon dira, familietara joan barik– bertakoak dira. Euren ama, aita, aitona… biktimak dira, itsu, hanka edo esku baten faltan edo paraplegiko daude. Eta ume horiek denbora luzea pasatzen dute zentro horretan bai bisitan, bai senideak zaintzen. Antzemango zenuten hori ez dela umeendako lekurik aproposena. Horregatik, hain zuzen, ekarri ditugu udan, eta horregatik nahi dugu ludoteka bertan egin, jolaserako eta denbora pasatzeko leku bat izan dezaten zentroan dauden bitartean.

Jarraipena egingo diogu proiektuari, noski. Zentroko arduraduna orain Alacanten dago eta laster etorriko da gurera. Zer behar dugun esango diogu eta Aste Santuan jostailuekin joaten garenean lekua antolatuta izango dute. Gainera, biktima bat izango da ludotekako arduraduna".

### Ekitaldiak

**Azaroak 14-21**
Argazki erakusketa: Saharako umeen eguneroko bizitza argazkitan.

**Azaroak 17-abenduak 14**
Jostailuak jasotzea ludotekan.

**Azaroak 21, egubakoitza**
Ipuin kontaketa: Saharako ipuinak kontatuko dituzte.

**Azaroak 28, egubakoitza**
Merienda: Saharako jakiekin antolatutako merienda pasada. Ludotekako bazkideendako.

**Abenduak 5, egubakoitza**
Marrazki festa.

**Abenduak 13, zapatua**
Jaialdia Iturrigorri frontoian: argazki erakusketa, henna tailerra, apainketa tailerra, txokolate beroa eta dantzaldia Kanpanolue taldearekin.

**Abenduak 15-19**
Jasotako jostailuak sailkatzea eta kutxetan sartzea.

SARIA

## 210.000 euro banatu zituen ONCEk martitzenean

Ainhoa Borrero saltzaileak saldu zituen 35.000 euro zituzten txartelak

M.A. > ARETXABALETA

ONCE itsuen elkarteak diru kopuru polita utzi du astean herrian. Martitzenean, hilak 11, Ainhoa Borrero oñatiarrak saldutako hainbat txartelek saria izan dute; 22.478 zenbakidun txartelek hain zuzen. Bakoitzak 35.000 euroko saria jaso du, eta sei saldu zituenez, guztira 210.000 euro geratu dira herrian.

Ainhoa martitzenetik egubakoitzera egoten da Aretxabaletako kaleetan saltzen. Gainera, hainbat dendetan eta tabernetan uzten ditu txartelak saltzeko. Hain zuzen, Santa Kurtz kalean dagoen Santa Cruz supermerkatuan utzitakoek jaso zuten saria martitzenean. ONCEko saltzailea bera eta supermerkatuko ugazaba biak oso pozik daude banatutako sariekin.

> KINTOAK

## Afaria dute hilaren 22an 1975eko kintoek eta 1948an jaiotakoek

Azaroaren 22an, zapatua, kinto afari bi egingo dituzte Baster Alde jatetxean. Batetik, 1975eko kintoak elkartuko dira urtero legez; eta bestetik, 1948an jaiotakoak, hain zuzen, aurten 60 urte betetzen dituztenak. Talde biak Orly tabernan elkartuko dira (20:00) eta ondoren Baster Aldera joan. Gainera, afalostean dantza saioa izango dute.

Talde bateko nahiz besteko kintoek hilaren 19a baino lehen eman behar dute izena Orly tabernan, 20 euro ordainduta.





Irudian, Amaia Antero eta Aitor Elizaran. GOIENKARIA

**Amaia Antero eta Aitor Elizaran** > Arizmendiko Bazarako koordinatzaileak

# "Euskarak etorkizuna badu, identitate emaile moduan da"

MIRARI ALTUBE/
MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

**Arizmendi ikastolaren Bazara egitasmoaren barruan, euskal identitatearen eta kulturaren gaineko tertulia antolatu dute.**

**Zer da Bazara egitasmoa?**

Orain dela hiru urte hezkuntza proiektua birformulatzean, ikusi genuen garrantzitsua zela gure izaera lantzeko egitasmo propioa izatea. Ikastola eta kooperatiba gara. Horrek ezaugarri jakin batzuk ematen dizkigu eta horiek era kontzientean landu nahi ditugu ikastola osatzen dugun partaide guztiekin. Horixe da Bazararen egitekoa.

**Zein da koordinatzaileen lan egiteko modua?**

Hiru arlotan egiten dugu lan: ikerketa, trebakuntza-sentsibilizazioa eta material sorkuntza. Ez dugu topatu era honetako esperientziarik inguruan eta etengabe ikertzen aritu beharra daukagu. Hortik abiatuta, ikastolako partaide mota bakoitzaren araberako trebakuntza-sentsibilizazio plana diseinatzen eta sortu beharreko materiala zein den aurreikusten hasi gara orain.

**Euskal identitatea eta kulturaren gaineko tertulia antolatu duzue gurasoendako; zergatik?**

Irakasleon artean mahai gainean jarri dugu gaia. Ikastola garen aldetik definitu eta adostu dugu ikasleekin lortu nahi duguna eta ikasleekin gaia lantzen hasita gaude. Gurasoek hori ezagutu egin behar dute eta guk gurasoek dituzten iritziak jakin behar ditugu. Ikastolako guraso guztiei dago zuzenduta. Guztiak dira Ikastolako partaide eta guztien *feedback*-a interesatzen zaigu.

**Euskal izaera galtzen dabil globalizazioaren sasoian?**

Identitatea besteekiko harremanean bakoitzak eraikitzen duen pertzepzioa da. Identitateak kulturen parte dira eta identitate kolektibo asko kultura berean oinarritzen dira. Globalizazioarekin kulturak berdintzen ari dira baina identitateak pil-pilean daude. Eta euskarak etorkizuna badu, identitate emaile moduan da.

**Euskarari behar besteko garrantzia ematen diozue?**

Ikastolaren muinean dago euskara, ez luke zentzurik izango bestela jarraitzeak hala ez balitz. Asko egiten da eta dezente dago egiteko. Egiten dena eta egiteke dagoena egiteko ilusioa eta gogoa izatea da kontua, egin beharko litzatekeenarekin amorratuta egoten beharrean. Motibazioen motorra jarri behar dugu martxan.

> IKASTAROA

## Dagoeneko zabalik dago azaroaren 22an izango den reflexoterapia ikastaroan izena emateko epea

Loramendi Euskara Elkarteak reflexoterapia ikastaroa antolatu du azaroaren 22an. Joan den urtean bezala, Jabi Fernandezek emango ditu eskolak. Ikastaroan parte hartu gura duenak aurretik eman behar du izena. Azaroaren 19a baino lehen edukiko du aukera. Hiru bide daude horretarako: astegunetan, 16:00etatik 20:00etara bitartean, Loramendira gerturatuta; 943 77 09 70 telefono zenbakira deituta; edo *loramendi@topagunea.com* helbidera idatzita.

Loramendiko bazkideek hamar euro ordaindu beharko dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, hamabost. Ikastaroa, esan bezala, hilaren 22an izango da. Goizean, 10:00etatik 13:30era iraungo dute eskolek; eta arratsaldean, 15:00etatik 18:00etara.

> KULTURA

## Kunkaren eskutik, 'Sexo gratis' izeneko antzezlana izango da gaur gauean Arkupeko Zaraia aretoan

Arkupeko kultura eskaintzaren barruan bi ekimen antolatu dira aste bukaeran. Lehenengoa gaur, egubakoitza, gauean izango da. Kunka antzerki taldearen eskutik, *Sexo gratis* izeneko antzezlana ikusi ahal izango dute aretxabaletarrek, 22:00etan. Zaraia aretoan izango da eta antzezlana ikusi ahal izateko sarrerak hamar euro balioko du.

Zapatuan, berriz, umeen txanda izango da. Moronda eta Lironda pailazoek etxeko txikiendako ikuskizuna eskainiko dute toki berean; Zaraia aretoan. Haur emanaldiari 17:00etan emango diote hasiera. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 5 euro kostatuko da horretarako sarrera.

> KIROLA

## Xake eskoletan izena eman daiteke dagoeneko Arlutz taldeak Iralabarri plazan duen lokalean

Arlutz Xake Taldeak ematen dituen eskolak egunez aldatu dituzte. Hemendik aurrera egun bakarra zabalduko dute Iralabarri plazako 5 eta 6 portaleen artean dagoen lokala. Eskolak astelehen arratsaldean izango dira, 18:00etatik 20:00etara.

Xake eskolak jaso gura duenak Iralabarri plazako lokaletik pasa behar da. Aitor Alkaidek erakutsiko die xakera jolasten. Horretaz gain, txapelketetara ere joateko aukera izango dute neska-mutikoek. Joan den urtean, esaterako, Donostian, Arrasaten eta Abadiñon izandako txapelketetan parte hartu zuten lau ikaslek.

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

GARBITTU KOOP. ELK.
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

AZKARATE AROZTEGIA

Arotz lanetan behar duzun guztia
Ateak // Leihoak
Horma-armairuak // Tarimak
Parketak // Sukaldeak
Telleria 19 B-0-2 B-0-3 // Bergara
Tel.: 943 76 47 19 // 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

PIENSOS UNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

MERKATARITZA > LEHIAKETA

# Lehen erakusleiho lehiaketa, Udala eta Txandaren eskutik

**Parte-hartzaileek abenduaren 5a baino lehen eman beharko dute izena**

**Udalak hiru sari banatuko ditu, eta herritarrek aukeratuko dute laugarrena. Saritan, 5.500 euro banatuko ditu Udalak**



Herriko denda guztiek dute lehiaketan parte hartzeko aukera. MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Herriko merkataritzaren garapenean, haren imajina eta erakargarritasuna hobetzeko helburuarekin, lehenengo erakusleiho lehiaketa antolatu du Udalak, Txanda Dendarien elkartearen laguntzarekin. Herriko hiru erakusleiho sarituko ditu Udalak, eta laugarren saria herritarrek aukeratuko dute botoen bidez. Guztira, 5.500 euro banatuko dituzte saritan.

Erakusleiho lehiaketan parte hatu gura dutenek abenduaren 5a baino lehen eman behar dute izena, Udaleko harrera bulegoan, Turismo Bulegoan edo Bidebarrieta kaleko 12. zenbakian dagoen Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza batzordeko bulegoan.

**HERRITARREN SARIA**

Parte-hartzaileek dendan saltzen dituzten ohiko produktuak jarri beharko dituzte erakusleihoetan, eta abenduaren 15erako apaindu beharko dute. Hain zuzen ere, abenduaren 31ra arte egongo dira eskaparateak ikusgai. Tarte horretan erabakiko ditu epaimahaiak sariak. Horren harira, diseinua, irudimena, orijinaltasuna, argiztapena, gaia eta berrikuntza dira epaimahaiak baloratuko dituen alderdiak.

Hain justu ere, Udala eta Txanda elkarteko ordezkariek eta dekorazio arloko profesionalek osatuko dute epaimahaia.

Hiru eskaparate onenak s arituko dituzte: lehen sailkatuak 2.000 euro jasoko ditu; bigarrenak, 1.500 euro; eta hirugarrenak, 1.000 euro.

Bestalde, herritarrek aukeratuko dute laugarren sariko 1.000 euroak nork eskuratzen dituen. Horretarako, *Kontzejupetik* aldizkarian dauden boto-txartelak bete behar dituzte abenduaren 26a baino lehen. Besteak beste, dendaren izena eta norbere datuak idatzi beharko dituzte txarteletan eta Udaleko harrera bulegoan, Turismo Bulegoan, edo Bidebarrieta kaleko Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza bulegoan entregatu beharko dituzte.

Eskaparate lehiaketako sari banaketa ekitaldia abenduaren 30ean egingo dute osoko bilkuren aretoan, 20:30ean.

UDALA > DIRULAGUNTZAK

## Irabazi-asmorik gabeko taldeei ia 14.000 euroko laguntza emango die Udalak

**Besteak beste, herriko musika taldeen eta abesbatzen proiektuak lagundu dituzte**

M.B. > OÑATI

Aurten egin behar zituzten proiektuendako dirulaguntzak banatu ditu Udalak irabazi-asmorik gabeko gazte taldeen artean. Guztira, ia 14.000 euro banatuko dituzte bederatzi proiektu laguntzeko. Horren harira, diru gehiena maketak eta diskoak grabatzeko erabiliko dute.

**MUSIKA ETA KOMIKIAK**

EZ!, Rock Privado eta Sospechosos musika taldeen diskoak eta Hamer taldearen maketa grabatzeko, bakoitzari 1.500 euro emango dizkie Udalak. Bestalde, Sharon Stoner taldearen bigarren diskoaren grabaziorako 1.967 euro gorde dituzte. Era berean, Ganbara Txiki abesbatzaren lehen diskoa grabatzeko 1.500 euro emango dizkie. Bestalde, Luis Duran oñatiarrak idatzitako *Antoine de las tormentas* komiki liburuaren euskarazko bertsioa egin du Antxon Ugartek, eta 1.500 euroko dirulaguntza ematea erabaki du Udalak.

Azkenik, Puskarra Records diskoetxeak antolatuko rock jaialdirako 1.200 euro eman dituzten, eta Donostiako Urpeko zinemaldirako, 1.500 euro.



OSCAR CARRASCAL

## Aranes, tenis txapelketako irabazle

Jorge Aranes bergararrak irabazi zuen hilaren 9an jokatutako Mikel Deunaren tenis txapelketako finala. Hain zuzen ere, Eneko Ugalde hartu zuen mendean 6-3 eta 7-5. Kontsolazio finalean Juan Luis Etxaniz izan zen onena; 7-6 eta 7-5 menderatu zuen Jose Caballero. Guztira, 18 jokalari lehiatu dira irailaren 20an hasitako txapelketan.

> MUSIKA

### Leioako Kantika Koralaren saioa, bihar, 19:00etan

Ganbara Txiki abesbatzak antolatutako haur abesbatzen zikloaren barruan, Leioako Kantika Koralak kontzertua egingo du bihar. Hain zuzen ere, Santa Ana antzokian egingo dute, 19:00etan.

Basilio Astulezek zuzentzen duen abesbatza 2001. urtean sortu zuten. 40 neskamutikok osatzen dute taldea eta hainbat musika jaialditan parte hartu dute. Bestalde, ospe handiko sariak eskuratu dituzte; bestea beste, Torrevieja eta Goriziako sari nagusiak irabazi dituzte.

> DEIALDIA

### Odol-ateratzea egingo dute gaur Txantxiku Ikastolan

Herriko odol emaileen elkarteak antolatuta, urteko azken aurreko ateratzea egingo dute gaur. Hain zuzen ere, ikastolako geletan egingo dute odolateratzea 18:00etatik 20:30era arte. Urteko azken odol-ateratzea abenduaren 12an egingo dute toki eta ordu berean.

Bestalde, odol ateratzeetan edonork parte har dezakeela gogorarazten dute antolatzaileek. Lehen aldiz odola eman gura dutenei dei berezia egiten diete odol emaileen taldekoek.

> ERAKUSKETA

### Argazki erakusketa Gaztelekuko kuboan, domekara arte

Gaztelekuak antolatutako oporretako argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa zabalik dago domekara arte, gaztelekuko kuboan. Hain zuzen ere, egunero dago zabalik, 18:30etik 20:00etara arte.

Gainera, erakusketa ikustera joaten direnek aukera izango dute bi argazki onenak aukeratzeko. Antolatzaileek 200 eta 150 euroko bi sari banatuko dituzte.

AITXURI
BURDIN LANAK
Galdaragintza
•
Mantentze lanak
Tel.: 688 63 95 18
20230 LEGAZPI
Gipuzkoa


Mahai-inguruan, beste herritar askoren artean, bibliotekako arduraduna, Eskoriatzako alkatea eta erretiratuen elkarteko ordezkariak izan ziren. IKER BARANDIARAN

**ZAHARREN EGOITZA** > HERRITARREI GALDEKETA

# Datorren asteko kontsultarako guztia prest daukate udaletxean

Eguaztenetik zapatura bitartean bozkatu ahal izango da udaletxeko osoko bilkura aretoan

Zapatuan bertan emango dute jakitera bozketaren emaitza udal webgunean

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Joan den astean hainbat berbaldi egin zituzten Ibarraundi museoan zaharren egoitzaren egoeraren eta etorkizunaren gainean iritziak batzeko. Egoitzako arduradunek, langileek, sindikatuek eta erabiltzaileek izan zuten iritzia emateko aukera.

Herenegun, berriz, mahai-ingurua egin zuten leku berean argudio desberdinak mahai gainean jartzeko asmoz; eta datorren astelehenean, hilaren 17an, ere beste horrenbeste egingo dute.

**MAHAI-INGURURAKO IZENA EMAN**
Hala ere, Udaletik jakinarazi dute asteleheneko mahai-inguruan esku hartu gura dutenek aurretik Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri beharra dutela, mahai-ingurua hobeto koordinatzeko asmoz. Horretarako, honako telefonoa erabili dezakete: 943 71 31 36.

**BOZKETA EGITEKO LAU EGUN**
Zaharren egoitzaren etorkizunera begira mahai gainean jarri dituzten hiru aukerek eta horien gaineko argudioek hedabideen jarraipen zabala izan dute. Hala, Eskoriatzako herritarrek nahiko informazioa dute eguaztenetik, hilaren 19a, zapatura bitartean bozketa egiteko.

Hala, eguaztenetik egubakoitzera bitartean 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bozkatu ahal izango da. Zapatuan, berriz, 10:00etatik 14:00etara egongo da horren aukera. Interesatuek udaletxeko osoko bilkuren aretoan bozkatu beharko dute aipatutako egunetan, eta Udal langileak txandatu egingo dira.

**EMAITZAK, ZAPATUAN**
Udaleko ordezkariek jakinarazi dute bozketaren zenbaketa zapatuan bertan egingo dutela eta egun berean emaitza jakitera emango dutela Eskoriatzako Udaleko webgunean.

Eskoriatzako 16 urtetik gorako biztanle guztiek daukate bozkatzeko aukera, baldin eta 2008ko urriaren 31 baino lehen udalerrian erroldatuta badaude. Hala, 3.474 lagunek izango dute galdeketan esku hartzeko aukera.

**INGURUMENA** > HITZALDIA

# Uraren kulturaren gaineko berbaldia, Pedro Arrojorekin

Uraren Kultura Berriaren aditua eta ingurumenaren aldeko ekinkidea da Pedro Arrojo zaragozarra

**I.B.** > ESKORIATZA
Eguaztenean, hilaren 19an, Zaragozako Unibertsitateko irakasle eta 2003ko nazioarteko ingurumen Goldman saridun Pedro Arrojo Agudok *El papel de los municipios en la Nueva Cultura del Agua* berbaldia egingo du 19:00etan Ibarraundi museoan. Berbaldi hori Udalak antolatu duen ingurumenaren gaineko zikloaren barruan izango da.

Pedro Arrojo Madrilen jaio zen 1951n, baina Granadan hazi zen eta 1963an Zaragozara jo zuen Fisika ikasketak egiteko. Gerora, Zaragozako Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa alorretako dekano-ordea izan da eta gaur egun Ekonomia Analisi Departamenduko irakaslea da. Azken 15 urteotan uraren gaineko ikerketak egiten dihardu.

**'URAREN KULTURA BERRIA'**
Arrojok Uraren Kultura Berria delakoaren kontzeptua lantzen buru-belarri dihardu. Kontzeptu hori Zaragozako giza mugimenduek sortu zuten, eta Arrojo da horren alde sortutako FNCA fundazioaren sortzailea. Fundazioaren helburuak dira uraren gaineko hezkuntza, garapenerako lankidetza eta ingurumenaren defentsa bermatzea.


Pedro Arrojo da hizlaria. GOIENKARIA

**GOLDMAN SARIDUNA**
Pedro Arrojo da orain arte nazioarteko ingurumeneko Goldman saria jaso duen espainiar bakarra. 2003an eman zioten sari hori San Franciscoko (California) War Memorial Opera Housen.

Antolatzaileek azpimarratu zuten Arrojok ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alde egindako lana, eta 2001eko Espainiako Plan Hidrologikoaren kontra egindako borroka.




**INGURUMENA**

# Domekan erreka garbitzeko deialdia

**I.B.** > ESKORIATZA
Etzi, domeka, erreka garbitzeko hitzordua egin dute 11:00etan herriko plazan. Deialdia Udalak egin du eta herritar guztiei zabalik dago, ume, gazte zein heldu.

Asmoa da 11:00etatik 13:00etara bitartean erreka garbitzea, eta gerturatzen den jendearen arabera taldeetan banatzea.

**ZABORRA ERAKUTSI**
Udalak erabaki du enpresa bat kontratatu beharrean herritarrek auzolanean erreka garbitzea. Horren ostean, jasotako zaborra herriko plazara eramango dute herritarrek errekara botatzen duten guztia ikus dezaten. "Guk zikindutakoa, guk garbitu behar dugu", azaldu dute.

Jesus Mari Agirretxea 'Keu' > Musikaria

# "Emanaldi txikiak egiteko, Inkernu oso leku aproposa da"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

**Jesus Mari Agirretxea *Keu*-k *Une akustikoa* izeneko lana prestatu du. Diskoaren kaleratzea atzeratu bada ere, gaur, egubakoitza, kontzertua egingo du Inkernun, 22:30ean, Mikel Arakistain baxu jotzaileak lagunduta.**

**Zelakoa izan da disko akustiko horren sorkuntza?**

2003an *Ganbaratik* diskoa egin nuenean moduan, etxean grabatu dut guztia. Kantuak irteten hasi ziren, eta multzo bat neukanean Gaztelupeko Hotsetako Xarrari erakutsi nizkion.

**Kantu bat konposatzen hasten zarenean, badakizu elektrikoan edo akustikoan landuko duzun?**

Nik gehienetan gitarra akustikoarekin konposatzen dut, baina buruan izaten dut formatu gogorrean plazaratzeko den ala ez. Orain kantu lasaiagoak egiteko gogoa daukat, eta hala aritu naiz.

**Dezibelio askorekin jotzeaz nekatuta bukatu duzu?**

Dezibelioez baino gehiago, asko jotzeaz nekatu naiz. Izan ere, Uek taldearen azken bi diskoekin 70 bat kontzertu egin ditugu eta asko izan dira. Orain gurago dut leku txiki eta ertainetan emanaldi gutxi batzuk egin, promozio premia haundi barik.

**Hain zuzen ere, diskoa kaleratu aurretik aurkeztuko duzu...**

Bai, logistika arazo bat izan da. Uste genuen diskoa ordurako kalean egongo zela, baina ezin izan da horrela izan. Baina, tira, kontzertuak oso garrantzitsuak dira.

**"Uek taldeak kontzertu asko egin ditu, eta orain gurago dut emanaldi akustiko batzuk egin"**

**"Lan akustikoa aurkezteaz bat, nire ibilbidearen errepasoa egingo dugu"**



Jesus Mari Agirretxea *Keu* musikari oso beteranoa da. GOIENKARIA

**Oraingoan ere Mikel Arakistain baxu jotzailea izan duzu alboan...**

Bai, 1993tik batera gabiltza musika egiten, eta hainbat talde izan ditugu. Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta oso ondo konpontzen gara. Zazpi kantuetatik hirutan baxua jo du eta baten Yurena Nuñok txeloa sartu du.

**Eta zelatan aurkeztuko duzu diskoa Eskoriatzan?**

Aurretik Uek taldea *Uhinak* diskoarekin Inkernu tabernan izan ginen, eta nahiz eta leku txikia izan, oso gustura aritu ginen. Oraingoan kontzertu akustikoak egiteko gurago izan dugu lehenengo leku txikietan aritzea, eta Inkernu horretarako leku aproposa da.

**Zelako lana izango da Keu Agirretxea izenpean grabatu duzun hau?**

Zazpi abesti sartu ditugu, guztiak akustikoak. 25 bat minutu iraungo du lanak. Bi kantu *Uhinak* diskotik berreskuratu ditut, baina erabat aldatuta; eta gainontzeko bostak azken urtean idatzitakoak dira.

Zuzenekoetan, berriz, Mikelekin arituko naiz, eta nire ibilbidearen errepasoa egingo dugu akustikoan, jakina.

---

ZERBITZUAK > KIROLDEGIA

# Udal igerilekua ordubete lehenago zabaltzen hasi dira

I.B. > ESKORIATZA

Joan den martitzenetik, hilaren 11tik, Eskoriatzako udal kiroldegiko igerilekua goizeko zortzietan irekitzen dute aste barruan, eta hala, erabiltzaileek ordu horretatik aurrera dute bertan bainua hartzeko aukera.

**ERABILTZAILE KOPURUAK, GORA**

Azken hilabeteetan gero eta jende gehiago dabil Eskoriatzako barruko igerilekuan. Izan ere, Aretxabaletako kiroldegia itxi zenetik hona nabarmen igarri dute erabiltzaile kopuruak gora egin duela; eta Arrasatetik ere hainbat joaten dira. Horren ondorioz, igerilekua une puntual batzuetan "beteegia" egoten dela jakinarazi dute kiroldegiko arduradunek.

Hala ere, jakinarazi beharra dago aldaketa hori astelehenetik egubakoitzera bitartean bakarrik ezarri dutela. Zapatuetan 09:30etik 12:30era eta 14:30etik 20:30era egoten da zabalik; eta domeketan 09:30etik 13:00etara, hain zuzen ere.

---

LEHIAKETA > GABONAK

# Gabonetako Christmas digitalak egiteko deialdia

Gabonak eta urteberria zoriontzeko Christmas digitalen lehiaketa antolatu du Udalak

I.B. > ESKORIATZA

Orain dela hiru urte egin zuen moduan, Eskoriatzako Udalak Christmas Digitalen lehiaketa abiarazi du.

Lanak euskaraz egin beharko dituzte, eta gura duten guztiek esku hartu ahal izango dute; berdin dio euren adina eta jatorria. Modu berean, parte-hartzaile bakoitzak gura beste lan aurkeztu ahal izango ditu.

Parte-hartzaileek erabakiko dute zelako lana aurkeztu (irudi bakarrekoa, irudi multzoa, mugimenduan...), baina ezinbestekoa izango da Jpg, Gif animatua, Bmp edota Swf formatutakoak izatea. Horrez gain, eskatutako erresoluzioa 72 pixel pulgadakoa izan beharko da derrigorrez.

**ABENDUAREN 3A AURRETIK**

Irabazleak 300 euro jasoko ditu, eta lana Udalak erabiliko du. Interesatuek lanok *lehiaketak@eskoriatza.net* e-postara bidali beharko dituzte abenduaren 3a aurretik. Honako datuok ere jarri beharko dituzte: egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta e-posta.







> JENDARTEA

### Sinadurak jasoko dituzte Gizonduz programaren alde

Gizonengana zuzendu eta berdintasunean euren inplikazioa lortzeko Gizonduz programa onartu zuen udalbatzak eta orain helburu horrekin bat egiten duten gizonezkoen sinadurak jasoko dituzte. Sinadura bilketa egingo da hilaren 16an 18:00etatik 20:00etara eta hilaren 23an 11:45etik 14:00etara, plazan. Herriko talde eta elkarteetara ere zabalduko dute gutuna. Bestalde, azaroaren 16tik 30era artean, pankarta ipiniko dute udaletxean *Berdintasunak gizonago egiten gaitu* lelopean.

> TELEBISTA

### Alkatea izango da eguenean Goiena Telebistan

Pedro Iturbe alkateari elkarrizketa egingo diote GOITBn *Goiena Magazinea*-n eguenean, azaroaren 20an. Saioa 21:15ean hasiko da eta *Alkatearekin zuzenean* tartean jardungo dute Iturberekin. Ikus-entzuleek saioan parte hartzeko aukera izango dute alkateari galderak eginez. Horretarako 943 25 05 03 telefono zenbakira dei dezakete zuzenean, edo aldez aurretik mezua bidali, helbide elektronikoz, hona: *magazinea@goiena.com*.

> OSPAKIZUNAK

### Gaztaina erre jana izango da domeka arratsaldean plazan

Domekan, azaroaren 16an, gaztaina erre jana izango da plazan 18:30ean. 130 kilo gaztaina erreko dituzte eta jende artean banatu. Egun horretan trikitilariak ibiliko dira giroa alaitzen. Gazta bat ipiniko dute jendeak asma dezan ze pisu daukan. Apustuetatik jasotako dirua Debagoieneko Trikiti Eguna antolatzeko izango da. Erretiratuek ere gaztaina jana egingo dute hilaren 22an eta 18a da izena emateko azken eguna.

**KULTURA** > GABON KANTUAK

# Kontzertua, Juan Antonio Lizarralderen omenez

Gabon kanten emanaldia abenduaren 27an egingo dute, parrokian

Adin guztietako herriko abeslariek hartuko dute parte, sei taldetan banatuta

**IRATI AGIRREAZALDEGII** > ANTZUOLA

Anelkarren, herriko abesbatzaren eta hainbat koadrilen ekimenez, Gabon kanten kontzertua izango da abenduaren 27an, 18:30ean, parrokian. Ekitaldian omenduko dute Brasilen bizi izan ostean herrian hil berri den Juan Antonio Lizarralde misiolaria.

Gabonetako kantu jaialdia urte batzuetako etenaren ondoren berreskuratzea erabaki zuen abesbatzak. Juan Antonio Lizarralde ere parte hartzekoa zen.

10-15 laguneko eta adin tarte ezberdinetako sei taldek jardungo dute. Talde bakoitzak bi abesti eskainiko ditu eta amaieran denek batera hiru kantu.



Juan Antonio Lizarralde apaiz antzuolarrak (ezkerretik, hirugarrena) urte mordoa eman zituen Brasilen misiolari. GOIENKARIA

**LIZARRALDEREN LANA ESKERTUZ**

Urtetan bidali dute laguntza Brasilera antzuolarrek, Juan Antonio Lizarralderen koadrilakoen bitartez lehenengo eta, azken urteotan, Anelkarretik. "Misiolari moduan lan pausatua egiten zuen. Urarekin zeukaten arazo gehien, baina Juan Antoniok ura lortzen baino lan gehiago egin zuen, hango jendeari ulertarazten eta erakusten elkarlanean, auzolanean gai izango zirela ura lortzeko", azaldu digu Anelkarreko presidente Jabi Etxanizek.

Anelkarrekoek kontzerturako aurkezpen bat gertatuko dute irudiekin eta testuekin, eskertzeko Lizarraldek egindako lana eta erakusteko antzuolarrei eurek emandako laguntza nora iritsi den eta zertarako erabili den. "Askok izaten duen zalantza da dirua iristen ote den; horregatik, guk beti herritarren bitartez bideratzen dugu laguntza beharrean dauden herrietara", dio Etxanizek.

**EUSKARA** > HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA

## Euskara eskubideen aurkako erasoak salatzeko bi buzoi ipiniko dituzte herrian

**I.A.** > ANTZUOLA

Eguaztenean ekimen baten aurkezpena egin zuten udalbatzarren aretoan Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendari Paul Bilbaok eta Uemako koordinatzaile Iñaki Arregik. *Euskaldunon eskubideak XXI. mendean* izenburupean egin zuten berbaldia eta Euskal Herri osoan abian ipini duten asmo baten berri eman zuten. Egitasmo horri orain egin diote lekua Antzuolan.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak hizkuntza eskubideak babestea du helburu arlo pribatuan zein publikoan. Uemak ere ahaleginak egin ditu hizkuntza eskubideen arloan: salaketak ipiniz, egitasmoak bultzatuz...

Bi erakundeok elkarlanean jarduteko hitzarmena sinatu zuten maiatzean eta, horren harira, Uemako herrietan hizkuntza eskubideen urraketen gaineko kexak edo egoki egindakoak zoriontzeko oharrak jasotzeko buzoiak ipintzen dihardute. Antzuolan abian da ekimena, eta mezuak jaso zain daude.

**UDALETXEAN ETA LIBURUTEGIAN**

Antzuolan, udaletxeko harreran eta liburutegian ipini dute buzoi bana, eta herritarrek bete ahal izango dituzte buzoi horien kanpoko aldean dauden orriak.

Postontzi horien bitartez, hizkuntza eskubideen urraketak salatu edo hizkuntzaren gainean egoki egindako ekintzak txalotu ahal izango dira.

Aldian behin fitxak jaso eta kexei konponbidea emateko saiatuko dira. Erantzuna lehenbailehen behar izanez gero, premiazko prozedura erabiliz, Behatokiaren telefono zenbakira (902 19 43 32) deitu beharko da.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

> AISIALDIA

### Hilaren 19a, upategiko irteerarako izena emateko azken eguna

Azaroaren 22an, zapatuan, irteera egingo dute Elgetatik Guardiara, upategi bat bisitatzera. Espaloia Kafe Antzokiak antolatutako irteeran Guardia herrian ibili eta Paternina upategia ezagutuko dute ardoa nola egiten duten ikusteko. Lagun artean bazkaria egiteko aukera ere izango da. Oraindik izena emateko aukera dago eta Espaloian egin beharko da azaroaren 19a, eguaztena baino lehen.

> INFORMATIKA

### Azaroaren 21ean, goizez egongo da tutorea Kzgunean

Hilabetean bi aldiz egiten du tutoreak Kzgunera bisita. Azaroaren 7an izan zen han eta berriz ere hilaren 21ean etorriko da. 09:00etatik 13:00etara bitartean erabiltzaileen zalantzak argitzen ahaleginduko da eta interesatuek gelara joan baino ez dute egin behar. Gainontzean, tutorea ez badago ere astelehenetik barikura 16:30etik 20:00etara artean egoten da zabalik Kzgunea kultura etxean.

> KIROLA

### Bizikleta irteera antolatu du Egokik umeendako

Egoki taldeak azaroaren 23rako, domekarako, umeendako bizikleta irteera antolatu du. 8 urtetik gorako umeendako izango da ibilaldia. Txirrindulariek egingo duten ibilbidea honako hau da: San Roman, Santa Marina, Areitio eta Eitza.

Parte hartu nahi duten gaztetxoek azaroaren 17tik, astelehenetik aurrera izango dute izenaa emateko aukera eta horretarako udaletxera jo beharko dute.

> KIROLA

### Intxortako Lehoiak taldekoak Bolatokitik pasa behar dira

Intxortako Lehoiak Athleticzaleen taldeak batzarrerako deia egin zuen joan zen domekarako. Bilerara oso jende gutxi azaldu zenez, taldeko 26 bazkideei eskatu nahi diete lehenbailehen Bolatoki tabernatik pasatzeko eta euren posta arrunteko zein elektronikoko helbidea apuntatuta uzteko. Horrela, hurrengoetan taldeko ekintzen gaineko jakinarazpenak zuzenean egin ahal izango dituzte.

**Ibon Arrasate** > Zesta-puntako ikastaroko irakaslea

# "Umeei erakutsi nahi diet zestan ondo pasa eta minik ez hartzen"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

**Ozkarbi elkarteak zesta-punta ikastaroa antolatu du umeendako. Hiru saio egingo dituzte: azaroaren 13an, 20an eta 27an. Elgetan bizi den Ibon Arrasate ondarrutarra izango dute irakasle eta umeendako egokitutako materiala erabiliko dute.**



Ibon Arrasate ikastaroan parte hartzen diharduten bi mutikorekin. I.A.

**Nola pentsatu duzue zesta-puntako ikastaroa antolatzea?**

Ozkarbiko Juan Luis Uberak proposatu zidan niri. Nik txikitatik jokatu izan dut zesta-puntan. Ondarrutarra naiz eta Markinan ikasi nuen jokatzen. Zesta-puntako bi pilotari ohi izan nituen irakasle: Altzalei eta Jauregi. 9 urterekin hasi eta 14ra arte ibili nintzen. Gerora nire kabuz jardun izan dut, zaletasuna daeta niretzat.

**Zer erakutsiko diezu gaztetxoei ikastaroan?**

Erreminta nolakoa den eta nola erabili behar den. Pilora hartzen, eusten eta botatzen erakutsiko diet. Ikusi behar dute eskuaren luzapena dela zesta, eta pilotak harekin egingo duela kontaktua. Baina, batez ere, zesta-puntan ondo pasatzen eta minik ez hartzen erakutsiko diet.

**Orain arte ez da Elgetan zestarako zaletasunik izan, ezta?**

Pilotarako, bai, baina zestarako zaletasuna ez dago Bizkaian bezain errotua hemen. Hala ere, nire ustez, babestu beharreko kirola da, kulturalki aberatsa izan delako, besteak beste, Ameriketan euskaldunon izaera zabaldu duelako.

**"Gipuzkoan zaila da zesta-puntarako frontoi egokiak aurkitzea"**

**Elgetan toki egokirik badago zesta-puntarako?**

Gipuzkoan zaila da zestarako frontoi egokiak aurkitzea. Frontoiaren tamainak eta babesak zeresan handia dute, eta egitura ere hartu behar da kontuan, horretarako egokituta egon ezean, apurtu egin daitekeelako. Inguruan, Arrasateko Musakolako kiroldegiko frontoia da egokiena, eta tarteka joaten naiz.

**Nola moldatuko dira ikasleak?**

Ohituta daude pilotan, beste kiroletan; azken batean, plazara, eta honetan ere moldatuko dira. Eurendako egokitutako materiala erabiliko dugu: plastikozko zestak, arinagoak. Lehenengo urritzez egiten zituzten eta gero gaztainondoz, baina garestiak eta pisutsuak dira umeendako.



GOIENKARIA

## Erretiratuak, gaztaina erreak jaten

Urteroko udazkeneko ohiturari jarraituz, erretiratuek gaztaina erre jana egin zuten barikuan Ozkarbi elkartean. 44 lagun elkartu ziren Pedro Mari Uberak erretako gaztainak jatera, guztira, 20 kilo, eta kontu-kontari jardun zuten iluntzean. Abenduan, erdi aldera, erretiratuek merienda egingo dute eta baita opari zozketa ere elkarteko kideen artean.

**HEZKUNTZA**

## Ludoteka, zabalik hilaren 24an

**I.A.** > ELGETA

Ludoteka zabalduko dute azaroaren 24an. 2tik 10 urtera bitarteko umeendako izango da, astelehenetik barikura, 16:00etatik 19:00etara. Izena emateko udaletxera jo behar da. Ume bakoitzak hileko 16 euro ordainduko ditu; bi anaiarreba badira, bakoitzak 11 euro; eta hiru badira, 9 euro. Urteko kuota ordaindu behar da, dena batera edo bi alditan.

**BERRIA TORREALDEAN**

Zerbitzua apiril bukaerara arte egongo da martxan. Hasieran kultura etxean, eta obrak amaitzean Torrealdean. Han ludoteka eta gaztelekua kokatuko dituzte.

bere ustez



Alberto Telleria

## Biktimismoa modan ete dago?

Modu askotako biktimak daoz gizartian: genero-indarkerixiarenak, urjolak edo haizetiak eraginddakuak, indarkerixiarenak… danak dira biktima.

Biktimak betidanik egon dira; gaiñera biktimiak ez dau biktima izatia aukeratzen, jakin barik datorkixo. Ez naiz ni izango holako egoerak sortutako biktimak zalantzan jarriko dittuana.

Hala ta be nago, askotan, gaur egun, biktima izena hartutako asko, gure emoziñuak eta memelokerixiak sortutakoak dirala; sarrittan zenbait telebisiñok edo komunikabidek eraginddako memelokerixia eta errez sortutako emoziño biktimistia.

**"Biktimak beti egon dira eta biktimiak ez dau biktima izatia aukeratzen, jakin barik datorkixo"**

Noiz ikusi da biktima izena hartutako horrek sortutako penia eta miña hainbeste ordu emotia telebisiñuan?

Zenbat onura emoten dotsa biktima izate horrek zenbaitti?

Noiz hasi da gizartia desgrazien espilluan begiratzen? Eta komunikabidiak iñoren desgraziak saltzen eta dirua egitten?

Itxuria danez, errukixaren gizartian bizi gara. Harek esate eban moduan, gu, estualdietan sendo.

112 SOS DEIAK

GOIENKARIA
2008ko azaroaren 14a

**NEKAZARITZA** > SAGARZALEEN ELKARTEA

# Sagardogileek batu dituzte sagar guztiak eta dagoeneko kupeletan sartu dute zukua

Aurtengo sagarra kalitate onekoa dela esan dute Aramaioko sagardogileek. Zukua kupeletan sartuta, orain, maiatzera arte itxaron beharko da sagardoa dastatzeko





Ezkerrean Sagarzaleen elkartekoak sagarrak prentsatzen. Eskuinean Juan Antonio Aretxaga kupeletan sartutako sagardoa aztertzen. J.A. ARETXAGA

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Sagardo Eguna orain dela aste gutxi ospatu zuten Aramaion, baina dagoeneko datorren urteko sagardoari begira daude Aramaioko Sagarzaleen Elkarteko kideak.

Irailaren bukaeran hasi ziren sagarrak batzen eta pasa den asteburuan amaitu zuten batze lana. Zuku gehiena ere atera dute dagoeneko. Asteburu honetan prentsatuko dituzte azkeneko sagarrak. "Gutxi gorabehera 30.000 litro atera ditugu aurten. Pozik gaude. Asteburu honetan ere aterako dute zukua zenbait sagardogilek, baina gehiena eginda dago", azaldu du Juan Antonio Aretxaga Aramaioko Sagarzaleen Elkarteko presidenteak. Aretxagak azaldu du sagardogileak pozik daudela aurtengo sagarrek emandako kalitatearekin: "Sagar ona lortu dugu aurten. Gainera, aurten, hemengo sagar barietatetik ateratako sagardoa edango dugu. Eguraldia xelebre samarra izan da. Ez da batere ona izan eta argi ikusi da hemengo barietatea izan dela ondoen agoantatu duena. Kanpoko barietateek oso sagar gutxi eman dute".

Zukua kupeletan sartu dute dagoeneko sagardogile gehienek. Hartzidura prozesua bukatzean itxi egingo dituzte kupelak, eta horrela mantenduko dituzte datorren maiatzera arte. Ordura arte itxoitea besterik ez zaigu gelditzen Aramaioko sagardoa dastatu ahal izateko.

**KZGUNEA**

## Ordenagailu bat lapurtu dute eta itxita dago

**A.B.** > ARAMAIO

KZgunea itxita dago. Izan ere, urriaren 29a eta 30a bitartean ordenagailu bat lapurtu zuten eta gertatutako argitu arte ordenagailu gela istea erabaki du Udalak.

Liburutegiko arduradunak emandako azalpenen arabera urriaren 30ean konturatu ziren ordenagailu bat faltazela. Erabiltzaileek hasiera batean pentsatu zuten matxura izan eta konpontzera eroanda egongo zela ordenagailua. Baina ez zen horrelakorik gertatu. Ordenagailua lapurtu egin zuen norbaitek teklatu eta sagu eta guzti. Atea ez zuten indarrez ireki eta hori ere aztertzen dihardute orain.

KZgunea egunero irekitzen da 17:00etatik 19:30era eta arduraduna 15 egunean behin joaten da. Esan bezala, gertatutakoa aztertu bitartean itxita mantenduko dute KZgunea.



Aurten ere parte-hartze handia espero dute Gantzagako Txirrindulari Igoeran. J. INUNTZIAGA

**AUZOAK** > GANTZAGA

## Gantzagako Txirrindulari Igoeraren 28. edizioa, etzi

Datorrena aste bukaera luzea izango da Gantzagakoendako; gaur hasiko dituzte jaiak

**ARRITXU BARRUSO**> ARAMAIO

Gantzagako gazteek aurtengoan ere egitarau zabala antolatu dute San Melixenak jaietarako. Kantuan hasiko dituzte jaiak. Izan ere, gaur 21:00etan kantu afaria egingo dute. Bihar, mezaren ostean, bermut dantza egingo dute trikitilariekin. Nobedaderik ere izango da aurten: patata tortilla lehiaketa aurten auzotar guztiei zabalik dago. Beraz, arrautzak eta patatak hartu eta gantzagar guztiak tortillak egitera animatu beharko dira. Zapatu gauean erromeria egongo da Jon Ostolaza eta Unai Andonegirekin. Hotza egiten duela-eta, ohera joan aurretik txokolate beroa eskainiko dute.

Domekan txirrindularien eguna izango da. Aurten Gantzagara Txirrindulari Igoeraren 28. edizioa egingo dute –11:30ean Gantzagan. Lasterketaren ostean trikipoteoa egingo dute eta arratsaldean tute txapelketa.

> AUZOAK

## Zalgon jaiak ospatuko dituzte bihar, zapatua

Bihar, azaroak 15, festa giroan murgilduko dira Zalgoko auzolagunak. 10:00etan hasiko dituzte jaiak dianarekin eta etxafuegoekin. 12:30ean auzo alkateak diskurtsoa eskainiko du, urtero moduan. Aurtengo gaia *Auzo bat, elkarte bat* izango da.

Auzoan txikiteoa egin ostean 14:30ean, gero, auzo bazkaria egingo dute. Arratsaldean jolasak egongo dira umeendako.

> ZINEMA

## 'Donkey Xote' filma emango dute domekan kultura etxean

Mantxan daraman bizitzaz nekatuta, Kixotek sekulako abenturari heldu dio: Ilgorako zaldunari aurka egitea. Kixotek, dueluan galtzen badu, Dultzinearen maitasunari uko egin beharko dio, baina, irabazten badu, Ilgorako Zaldunak bere ondasun guztiak emango dizkio.

Kixoteren abentura horiek ikusteko aukera izango da domekan 17:00etan.

**HIRIGINTZA** > ARLABAN GAINEKO PLANA

# Arlabango planarekin hastea erabaki dute

## Behin-behineko onarpena eman zion udalbatzak planari urriaren 28an, eta orain herritarren aurrean aurkeztu gura dute



Arlaban gainak joan zen zapatuan zuen itxura; laster aldaketak izan ditzake. MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Orain dela hiru urte hasi ziren Arlaban gaineko plan berezia lantzen, aurreko agintaldiko udalbatza, hain zuzen. Urtebete geldi egon da plana, eta orain behin-behineko onarpena eman dio udalbatzak aurrera egiteko.

Urriaren 28an egindako osoko bilkuran iragarri zuen Eusebio Villar alkateak aldaketak egingo zizkiotela aurreko agintaldiko kideek aurkeztutako planari. Horretan jardun dute azken urtean, eta dagoeneko erakusteko moduan daukate. Hala, behin-behineko onarpena egin ostean, herritarrei aurkeztu gura diote plan berria, eta iradokizunak egin eta alegazioak aurkezteko 45 eguneko epea izango dute. Izan ere, Udalak egindako aldaketekin batera herritarrenak jaso gura dituzte, ondoren aztertzeko.

Herritarrekin egingo duten batzar eguna oraindik zehaztu barik daukate, baina seguru asko datorren astean izango da. Gainera, herritarren artean zalantza asko sortuz gero, udal ordezkariak gertu daude beste egun batean geratu eta azalpen zehatzagoak emateko arkitektoaren laguntzarekin.

**OSTATUAK ETA AISIALDIA**
Arlaban gaineko planean 458.000 metro koadroko lur eremua sartzen da. Baina horietatik 240.000 inguru gune babestuak izango dira. Alkateak adierazi du plan horrekin aurrez eginda dauden eraikinak –jatetxeak, ostatuak…– eta aurrera begira egin daitezkeenak –Jakion enpresaren egoitza berria, esaterako– arautzea dutela helburu.

Toledo taldeak egin zuen proiektua aurreko agintaldiko ordezkariek aginduta, eta ostatu eta aisialdirako gunea zehaztea zuen helburu, nekazaritza-turismoko jarduerendako tokia eginaz. Planean ondo baino hobeto zehaztu zuten zer eraiki daiteke en eta zer ez, eta ostatuekin batera aisialdirako gunea izan behar duela ezarri zuten orduan. 2008ko ekainean udalbatza berria osatu zuen taldeak, baina, hainbat aldaketa egin dizkio planari, eta orain herritarrei erakutsiko die.

**ARAU SUBSIDIARIO ALDAKETA**
Lurzoru hiritar ezinari dagokion arau bat aldatu gura izan zuten Arlabango plan bereziarekin batera iaz. Orduan, baina, ez zuten astirik izan eta orain, urriaren 28ko osoko bilkuran egin zion behin behineko onarpena udalbatzak. Horren arabera, herrian dauden 32 baserrietan bi etxebizitza egiteko aukera izango dute, baserriaren egitura ukitzen ez bada behintzat. Alkatearen esanetan, gazteak herrian geratzeko aukera gehiago izatea da aldaketaren helburua, eta ez daitezela etxe bila beste herri batzuetara joan.


Aurreko agintaldiko alkate eta zinegotzia plana aurkezten herritarrei. GOIENKARIA

### 2007ko maiatzean aurkeztu zuten lehen plana

Aurreko agintaldiko udalbatzak herritarrei aurkeztu zien Arlaban gaineko plana 2007ko maiatzean. Plana garatu zuen Toledo taldeko adituarekin batera, Joserra Perez alkatea eta Eugenio Otsoa zinegotzia izan ziren herritarrei azalpenak ematen. Orain alkate den Eusebio Villar eta taldeko zinegotzi batzuk bertan izan ziren.

**IKASTAROA** > SUKALDARITZA

# Sukaldaritza ikastaroa antolatu dute Sorginek eta Bizikasik

## Azaroaren 26an eta abenduaren 3an eta 10ean egingo dute, eta zabalik dago izenematea

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA
Debagoieneko bitartekaritza zerbitzuak –Bizikasik– eta Gatzagako Sorginak emakume elkarteak sukaldaritzaren gaineko ikastaroa antolatu dute. Hiru eguaztenetan egingo dituzte saioak: azaroaren 26an, eta abenduaren 3an eta 10ean (18:00), eta jakiak Garro jauregian dagoen Toki Eder elkartean gertatuko dituzte. Izenemate epea dagoeneko zabalik dago, eta argibide gehiago gura izanez gero edo saioetarako izena eman, honako telefono zenbakiren batera deitu behar da: 943 71 54 25 (Jaione) eta 943 76 93 94 (Miren). Jakinarazi dute ikastaroa batez ere emakumeendako dela, baina ateak ez dizkiote inori itxiko.

**JAI EGUN BEREZIETARAKO JAKIAK**
*Sukaldaritza berezia* izena jarri diote ikastaroari, egun berezietarako jakiak zelan gertatu irakatsiko dutelako –Gabon eguna, famili ospakizunak…–. Sukaldaria Gatzagakoa bertakoa da, eta taldean adostuko dute aurretik zer gertatu gura duten.


Gatzagarrak pintxo ikastaroan orain dela bi urte. GOIENKARIA



*Txonan*, Aloñaren kontrako derbian.



Idigoras, Tolosako kontrarioarekin lehian.



Aretxabaletako kapitain *Eriko*, baloiaren atzetik. JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# "Ligak inoiz ez dira abenduan irabazten"

## Ligako lehen laurdena jokatuta, entrenatzaileek balorazioa egin dute

## Ibarreko hiru ordezkariek etxean jokatuko dute oraingo asteburuan

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Ligako lehenengo laurdena *janda*, ibarreko taldeak Gabonetako oporraldia baino lehen geratzen diren jardunaldiak aprobetxatzeko ahaleginean dabiltza –zazpi jardunaldi dira, 21 puntu–. Hala ere, UDAko entrenatzaile Gordobilek ondo esan du: "Abenduan inork ez du txapelketarik irabazten", asko geratzen den seinale. Baina, Gabonak arteko lanak ondo erakusten du talde bakoitzak denboraldi horretan ze bide jarraituko duen, sorpresei dagokien tartea utzita.

**ORAIN ARTEKO ONENA**

Bederatzi jardunaldi hauetan UDAk batu ditu puntu gehien (14). Baina, Aretxabaleta etxetik kanpora jarraitzen ez duenari kosta egingo zaio hori sinistea, Ibarran partidu bakarra irabazi dutelako, Zumaiakoren kontra (1-0). Gordobilek eta Arenazak lana dute aurretik; zelai handia da Ibarra, baina talde horrek urteak daramatza bertan jokatzen, eta ez da esperientzia faltagatik izango. Batzuetan, zuzenketa txikiak izaten dira eraginkorrenak, eta ikusi egin behar entrenatzaileek buruan dituzten zuzenketa txiki horiek ze emaitza ematen duten domekan, sailkapenean ondo-ondoan daukaten Trintxerperen (14) kontra (16:30, Ibarra).

Aloña Mendik (12) erronka txiki bati egin behar izan dio aurre: berdegune berria daukate. Belar naturaletik artifizialera egin dute salto, baina Azkoagain neurriei dagokienez ez da asko aldatu. Gainera, alde ona egongo da Ibarran entrenatzearen edo Azkoagainen entrenatzearen artean. Emaitzei dagokionez, sari txikiegia ematen duten berdinketekin nekatu da Aloña; guztira sei partidu berdindu dituzte –berdinketa gehien dituen taldea da–, eta hor sei puntu baino ez daude. Gainera, Sei berdinketa horietan, birritan behintzat Oñatiko taldea aurretik ibili da, eta luzapeneko minututan joan zaizkio hiru puntuak.

Hori alde batera utzita, Zubiak ez du jokalariek zelaian erakusten duten jokoarekiko kexarik, hori bai, gola falta zaiela adierazi du: "Joan den astean, esaterako, Real Unionen kontra sei gol aukera garbi izan genituen, baina ezin asmatu. Horrelako jokaldietan zorte apur bat falta zaigu".

Neurri batean, baliteke taldeak Xabi Caminok aurrealdean utzitako hutsunea igartzea, baina zenbakiei begiratuta, Aloñak ez du kontrarioaren atea zulatzeko arazorik –14 gol egin dituzte–. Hau da, lider dagoen Pasaiak ez du Aloñak baino gol gehiago egin. Domekan, ligan sorpresa eman duen Hondarribiaren bisita izango dute oñatiarrek 16:30).

**MONDRAK HOBEKUNTZA**

Mondrak (11) sailkapenean ondoan duen OndarroakoAurreraren bisita izango du bihar Mojategin (16:30). Eta, norgehiagoka horri aparteko garrantzia eman dio Azkargortak: "Bada etxean irabazteko garaia, hori tokatzen zaigu". Kontrarioaren gainean, Ondarroako Aurrera aurre-denboraldian ondo ibili bazen ere, liga hasieran neurria eman ezinka ibili dira: "Hala ere, joan den astean bigarren postuan dagoen Tolosari irabazteko gauza izan ziren (2-1). Atzealdean sendo kokatzen den taldea da, eta aurrealdean kalitate handiko hiru jokalari dituzte".

Azken hiru jardunalditan bestelako itxura erakutsi du Mondrak; zaleek eskertuko dute hori bertatik bertara ikustea.

ENTRENATZAILEEN IRITZIA

**Igor Gordobil**
UDAKO ENTRENATZAILEA

### "Etxeko partiduetan dugun arazoa konpontzea da orain daukagun ardura"

"Etxean ez dugu neurria eman, eta etxetik kanpora oso ondo ibili gara", horrela laburtu du Gordobilek orain arte egindakoa. Orain, Aretxabaletako entrenatzaileak oso argi dauka zein den helburua: "Ez dakigu zergatik, baina etxean asmatu ezinka gabiltza: jokalariak urduri zelairatzen direlako, presioa oso aurrean egiten hasi eta lerro artean hutsuneak uzten ditugulako... Kontua da kanpoan eta etxean berdin planteatzen ditugula partiduak. Hori da orain momentuan Arenazak eta biok dugun ardura".

Bestalde, sailkapenaren gainean: "Liga luzea geratzen da oraindik, eta abenduan inork ez du txapelketarik irabazten".

**Andoni Azkargorta**
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

### "Oraingo asteburuko partiduak erakutsiko digu non egon gaitezkeen"

Azken asteotan Mondrak jokatzeko modua aldatu du, eta badirudi jarraitu beharreko bidea aurkitu duela: "Biharko norgehiagokak erakutsiko digu hori. Aldaketarekin asmatu egin dugula uste dut, eta bihar ikusi ahal izango dugu taldeak aurten zer eman dezakeen".

Azkargortak dezente aldatu behar izan ditu hasierako asmoak: "Taldea hartu nuenean banekien baloia mugitzeko gaitasun handia zeukatela, eta aurrean aukerak egingo genituela. Ausart jokatzen hasi ginen, ausartegi, eta orain atzealdea sendotzeko erabakia hartu dugunean errazago egiten ditugu gol aukerak. Norberaren taldeari neurria hartzea ez da erraza izaten".

**Josu Zubia**
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

### "Ate aurrean zorte apur bat behar dugu, eta luzapenean argi ibiltzea"

Azken asteotan Aloña Mendik puntu oso baliotsuak galdu ditu luzapeneko minututan, eta puntu horiek izango balitu Zubiaren mutilak aurrerago egongo lirateke: "Min handia egin digu puntuak horrela galtzeak. Hamabost egun dela Vasconiaren kontrako berdinketaren gola 94. minutuan jaso genuen, eta ez da kasu bakarra izan. Hala, ate aurrean asmatu ezinka gabiltza, zorte apur bat behar dugu hor, taldeak gol aukerak egiten dituelako, eta joko maila ona dela uste dudalako".

Azkoagaingo berdegune berriaren gainean ere egin du berba: "On egin digu entrenatu eta jokatu leku berean egiteak. Taldea ondo moldatu da, hori bai, nik nahiago ditut belarrezko zelaiak".

**SASKIBALOIA** > EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA

# Eskoriatzak Cafes Aitonaren kontra zuzendu nahi du liga

Fernando Rasoren neskek bihar, zapatua, jokatuko dute, 18:00etan. Etxeko lehen garaipenaren bila kantxaratuko dira



Aitziber Soriano, kontrarioaren aurrean baloi-jabetza babesten. IMANOL SORIANO

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Senior mailako bigarren multzoko talde indartsuenetakoa bada ere, Eskoriatza seigarren dago sailkapenean. Hori bai, beste talde askok baino partidu bat gutxiago jokatu dute, eta joan den asteko atsedenaldiaren ondoren eskoriatzarrak Cafes Aitonaren kontra itzuliko dira berriro ere lanera.

Sailkapenak ez du Eskoriatza non dagoen benetan erakusten, baina ligako lehenengo norgehiagokan Kiosko Terraza Inter taldearen kontra galdu izanak (30-38) min egin zion taldeari: "Gu baino hobeak izan ziren, eta hor ez dago buelta gehiago ematerik. Ez genuen horrelako porrotik espero, hori da egia, eta ezin dugu horrelakorik errepikatu", adierazi du Rasok.

Eskoriatzak ondo espabilatu zuen orduan, Easori errepaso polita emanda (20-42), eta orain etxeko lehen garaipena lortzeko ordua da: "Biharkoa irabazi beharreko partidua da, ez dira-eta gu baino gehiago".

**LAUKO FINALA, GARESTI**

Lehengo helburua multzoko lehenengo lau talderen artean sailkatzea du Eskoriatzak: "Gero, Lauko Finalera sailkatzeko iaz baino lan handiagoa egin beharko dugu; maila hobea dago aurten".

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Tenerife-Reala
Domeka. 18:00. Heliodoro L.

**Gazteen euskal liga**
Antiguoko-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Berio.

Zarautz-Bergara
Zapatua. 15:45. Astigarraga.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Hondarribia
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Ondarroako Aurre.
Zapatua. 15:30. Zaldupe.

Aretxabaleta-Trintxerpe
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Orioko-BTLS
Zapatua. 16:30. Orio.

Eibartarrak-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Unbe.

Antzuola-Tolosa
Zapatua. 16:00. Estala.

Lagun Onak-Mondra
Zapatua. 15:30. Azpeitia.

Bergara-Elgoibar
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

**Bigarren erregionala**
Segura-Bergara
Zapatua. 16:00. Segura.

**Ohorezko mailako gazteak**
Burumendi-Aloña Mendi
Domeka. 15:30. Mutriku.

**Lehen mailako gazteak**
Eibartarrak-Mondra
Zapatua. 15:30. Unbe.

Bergara B-Eibartarrak B
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Aretxab.Arizmendi B-Ilintxa
Zapatua. 16:00. Ibarra.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa, senior gizonezkoak**
Lea Corazoni.-Ford Mugarri
Zapatua. 20:00. Gasteiz.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko preferent.**
Aiala-Verkol Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Zarautz.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko gazteak**
Verkol Aloña Mendi-Urdaibai
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko kadeteak**
Verkol Aloña Mendi-Urdaibai
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Lehen territorial maila**
Urnietako-Soraluce BKE
Domeka. 12:00. Urnieta.

**Big. territorial maila**
Leizaran-Arrasate Eskub.
Domeka. 11:30. Andoain.

Aloña Mendi-Rotula Studio
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Arrasate Chap.
Domeka. 10:30. Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**Lehen nazional maila**
Padura-MU
Domeka. 12:15. Arrigorriaga.

**Senior gizonezkoak**
Aloña Mendi-Alza saskibaloi
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

Biok Zerbitzuak-MU
Gaur. 20:00. Ordizia.

Soraluce BKE-Ganbara
Zapatua. 16:00. Labegar.

Aloña MendiB-Ainhoa Tab.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Senior emakumezkoak**
Eskoriatza-Cafes Aitona
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

**Gazte mailako gizonezko.**
MU-Easo Kellerterra
Zapatua. 10:00. Musakola.

Aloña Mendi-Antigua Lub.
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Gazte mailako emakume.**
MCM A-Eskoriatza
Zapatua. 11:00. Donostia.

Soraluce BKE-Añorga
Zapatua. 18:00. M. Lagundia.

**Kadeteak gizonezkoak**
MU Besaide-Caldereria Zah.
Domeka. 11:30. Musakola.

MU Udalatx-Easo A
Zapatua. 12:00. Musakola.

Andraitz-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Legazpi.

Zast-MU
Zapatua. 16:00. Zarautz.

Ordizia-Panaderokua
Zapatua. 10:00. Ordizia.

**Kadeteak emakumez.**
Easo Loyola-Eskoriatza
Eskoriatza.16:00. Donostia.

Salleko-Arizmendi Eskori.
Zapatua. 18:00. Zarautz.

Easo Loyola-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. San Inazio.

**ERRUGBIA**

**Seniorrak gizonezkoak**
Arrasate-Elorrio
Zapatua. 17:00. Mojategi.

**XAKEA**

**Arrasate Hiria Txapelketa.**
Laugarren jardunaldia. Gaur, 18:00etan hasita. Altamira.





# HARITZAREN AZALERA ZEHATZA

Konpainia: Kukubiltxo

ANTZERKIA

**Non:**
Arrasateko Amaia Udal Antzokian.

**Noiz:**
Azaroaren 16an, Igandean, 19:30ean

**Sarrera:** 10€

Sarrera salmenta
kutxa
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN







Okindegiak, fruta-dendak, farmaziak non… hantxe auzo bat.

Gure kaleetan aurkitzen dugun merkataritza aukera zabalak litekeen merkataritza-gunerik handien bihurtzen ditu denda horiek.

Merkataritzak auzo bilakatzen ditu kaleak, eta herri eta hiri bilakatzen ditu hiriguneak.

Merkataritza zure bizigarri da, zu merkataritzaren bizigarri zara.

**Merkataritza non, bizia han.**

aurrera doan **herria**

EUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

2008 berrikuntza urtea
año de la innovación



**> SU TA GAR**
Jam aretoan izango da zapatuan Eibarko taldea **> 44**



**> DANBAKA**
Gaur beste lau taldek jardungo dute Elgetako Espaloian **> 45**



**> ZULAI PLAZAOLA**
Oñatiarra da eta 15 urte ditu. Estreinatu berri den 'Go!azen' filmeko aktoreetako bat da. Musika, kirola eta lagunekin egotea ditu gustuko **> 50**

# Herritarrak antzezle eta ikusle, zarzuelak bete egingo du Amaia

'El Barberillo de Lavapiés' zarzuelak ikusmina piztu du; lau emanaldi egingo dira

Izaskun Murgia elkartea eta Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoa eskutik datoz aurten ere



**HERRIKOIA** Arrasaten zarzuela herriak herriarentzat egina da. Irudian, iazko obra: *El dúo de la africana.* GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Astebete falta da *El Barberillo de Lavapiés* zarzuelaren lehen emanaldia Amaia antzokiko agertokira igo dadin. Ikusmin handia pizten duen ekitaldia da zarzuela; bai kanpoan eta, are gehiago, Arrasaten. Izan ere, Arrasateko zarzuelan herritarra da protagonista eta, aldi berean, ikuslea. Azken finean, hor dago zarzuelaren arrakastaren gakoa; herriak herriarentzat egina dela, hain zuzen.

Aurten XIX. mendean idatzitako obra bat interpretatuko du Izaskun Murgia elkarte lirikoak. Francisco Asenjok (1823-1894) idatzitako obran eta Luis Mariano de Larraren (1830-1901) hiru ekitalditako libretoetan oinarritzen da *El Barberillo de Lavapiés*. Oraingoan ere, ohikoa bihurtu denez, Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoak ezinbesteko laguntza eskainiko dio Izaskun Murgia elkarteari.

**EKINTZA ASKOKO ARGUMENTUA**
**ANTIGUOA.** Matia kalea. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Barneko patiora begira. 217.000 euro. 801857
**IGELDO.** 90 m2. Egongela-tximiniarekin, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Balkoia eta terraza, itsaso alderako ikuspegiekin. Oso egoera onean. Lursaila, elkartea eta aparkalekua komunitatean. 397.000 euro.F00670


**ERRENTERIA.** Txaleta. Etxebizitza independentea. Egongela, jangela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Galeria. 450 m2-ko lorategi pribatua. Garaje itxia eta erantsiak beheko solairuan. F00664
**ASTIGARRAGA.** Erdigunean. 170 m2. Egongela-jangela tximiniarekin, sukaldea-jangela, 3-4 logela eta 3 bainugela. Terraza. Guztia kanpora begira. Oso egoera onean. Garaje itxia eta trastelekua. F00610


**GABIRIA.** Apartamentu dotorea, eraikuntza berriko eraikinean. Egongela-sukaldea, logela eta bainugela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Terraza eta berdegune komunak. F00699


SAN MILIXANAK 08
*XVI. Langintzen Feria*
*Azaroak 16, Igandea*
Ordutegia: 10:00etatik 14:30etara
*Zatoz Gatzagara! Etxean bezalaxe!*

| | | |
|---|---|---|
| *Beira* | *Jostailuak* | *Larrua* |
| *Bitxigintza* | *Talla eta Maketak* | *Papera eta oihala* |
| *Xaboi naturalak* | *Saskigintza* | *Pilotak* |
| *Euskal Zeramika* | *Zurezko eskulangintza* | *Harriak* |
| *Zeta* | *Forja-lana* | *Oinetakoak* |

LEINTZ GATZAGAKO UDALA
Gatz museoa
SORGINAK Gatzaga
ESKUZ LARRUGINTZA
EROSKI zurekin
**Tailer herrikoia: garbi xaboi naturalak**
**Kultur etxean jantzi erakusketa: Soinean**
**Beira puztuko erakustaldia: Argia badago**


max+
cuenta | kontua
Udazkenean ere erortzen ez den interesa
% U.T.B. 5
max
ERABILGARRITASUNAREKIN
ETA KOMISIORIK GABE
Abenduaren 31 arte
Gehienezko zenbatekoa 10.000 €
Interesa % 5 U.T.B. (% 4,889 nominala).
Urriaren 1etik abenduaren 31 arteko irekieretarako.
Diru-sarrerak eta itzulketak egiteko gutxieneko
Zenbatekoa: 2.000.
Ohiko ordainsaria: % 3,25 U.T.B. (% 3,203 nominala).
Helbideratzeak ez ditu onartzen.
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zulai Plazaola > 'Go!azen' filmeko aktorea

# "Kantatzea eta dantzatzea oso gustuko ditut, eta nire saltsan ibili naiz filmean"

Atzo estreinatu zuten 'Go!azen' filma Donostian; eta martitzenean Gasteizen, Bilbon eta Iruñan aurkeztuko dute. Euskara hutsezko musikal horretan, Zulai Plazaola Leire da, bestekin harremanik ez duen neskatila; ez du zerikusirik Zulairekin, oñatiarra neska irekia eta berritsua da-eta. Filmean, abesten eta dantzatzen, ederki moldatzen dela esan digu.

NEREA MENOR > OÑATI

**Zulai Plazaola neska alaia eta berritsua da. Jendez inguratuta egotea gustuko du eta lagun berriak egitea. Neska positibotzat du bere burua eta oso irekia dela esan digu. Barre egitea gustatzen zaio eta besteei barre eginaraztea ere bai. *Go!azen* filma grabatu aurretik, *High School musikal goazen denok* ikuskizunean ere parte hartu zuen.**



**Duela gutxi estreinatu duzue *Go!azen* filma.**

Bai, azaroaren 13an izan zen estreinaldia Donostian. Bertan izan nintzen ni. Oso urduri nengoen, guztia muntatuta eta prest ikusteko desiratzen nengoen. Ikusleei filma gustatuko zaiela pentsatzen dut, jendeak pelikula musikalak ikustea gustuko duela uste dut.

**Azalduko diguzu zeri buruzkoa den filma?**

16 urteko neska-mutiko batzuen gainean doa filma. Basakabi izeneko udalekuetara joaten dira, bakoitza arrazoi ezberdinagatik. Bertan, Irati eta Beñat maitemindu egiten dira; baina Gorka, udalekuetako mutil harroena, Iratiren atzetik doa eta Beñat erditik kendu nahi du.

**Zure pertsonaia zelakoa da?**

Nik Leire izeneko pertsonaia interpretatzen dut. Basakabira bidaltzen dute bere gurasoek ez duelako jendearekin apenas harremanik; beti elektronikaren munduan sartuta dagoelako.

**Musikala izanik, kantuak abestu eta hauen erritmora dantzatu duzue. Zelan ikusi duzu zure burua?**

Hiru astetan, uztailaren 14tik abuztuaren 8ra bitartean, abesten eta dantzatzen egon gara, filmaketa iraun bitartean. Egia esan, oso gustura ibili naiz, nire saltsan! Dantzatzea eta kantatzea oso gustuko ditut.

**Aurretik ibili zara telebistan, zinean, antzerkian..., edo ikusentzunezkoen alorrean jardun duzu lanean?**

Aurreko gabonetan *High school musical goazen denok* musikalean hartu nuen parte. Bi neska eta bi mutil ibili ginen horretan eta izotz gainean kantatu eta patinatu genuen. Harrituta gelditu nintzen aukeratu nindutenean. Ez nekien patinetan ibiltzen eta grabazioan ikasi behar izan nuen. Hemen ere lagun asko egin nituen.









GOIENKARIA

PERTSONALA

**Herrria:** Oñati. **Adina:** 15 urte. **Ikasketak:** Batxilergoko lehen maila egiten. **Zaletatsunak:** Musika, kirola eta lagunekin ondo pasatzea. **Gorrotatzen duzun zeozer:** Bidegabekeriak. **Gustuko duzun zeozer:** Laguntzen duen jendea. **Gomendatzeko moduko film bat:** *El Rey Leon*. **Liburu bat:** *Pijama arraidun mutikoa*, John Boynerena. **Musikari bat:** Mariah Carey eta Ronan Keating. **Aktore bat:** Tom Hanks. **Parrandarako toki bat:** Oñati. **Amets bat:** Bidezko mundu bat eta Afrikako egoera aldatzea.

**Denbora asko kentzen dizute aktore lanek?**

Ia denbora dena kendu didate aktore lanek. Udan, 10 ordu grabatzen genituen egunero. Bertan pasatzen nuen egun osoa, baina oso gustura. Grabatu behar ez nuenean ere han egoten nintzen, begira. Filmaketa amaitu dugun arren, erreportajeak, elkarrizketak eta abar geratzen dira. Orain, filmaren estreinaldia dela-eta, leku ezberdinetatik deitzen didate.

**Batxilergoa ikasten zabiltza. Etorkizunean interpretazio munduan barneratzeko asmoa duzu ?**

Egia esan, momentu honetan zaletasun bezala ikusten dut gehiago. Oraingoz, ez dut beste proiekturik buruan

**Filma alde batera utzita, kirolaria ere omen zara. Zertan zabiltza kirolari dagokionez?**

Lehen igeriketan ibiltzen nintzen, baina utzi egin nuen; hala ere, ez naiz inoiz geldi egoten. Egia esan, nire bizitza kirola da, berez. Aisialdian, nire kontura kirola egiten dut. Korrika egitera irteten naiz, bizikletan ibiltzen naiz, mendira ere joaten naiz batzuetan eta dantza egiten dut, hau ere kirola da.

**Ganbara Txiki abesbatzan ere bazabiltza, ezta?**

Abestea benetako zaletasuna da niretzat, betidanik gustatu zait, eta bai, Oñatiko Ganbara Txiki koroan nabil. Duela gutxi atera dugu disko berria eta oso pozik gaude guztiak. Koral moduan, bilakaera handia izan dugu eta aurrerapen nabarmenak egiten gabiltza. Kontzertu asko eman ditugu eta emango ditugu.

**Musika gustuko duzu, hortaz?**

Bai, asko gustatzen zait. Beste ezertan pentsatu nahi ez dudanean, musika jarri eta dena ahazten dut. Beste nonbaitera joatea bezalakoa da. Abesteaz gain, panderoa ere jotzen dut eta batzuetan hortik zehar jotzeko deitzen didate.

**Musikalean dantza egiten duzu. Zure kontura ere praktikatzen duzu?**

Asko gustatzen zait eta ahal dudan guztietan egiten dut dantzan; hala ere, ez naiz dantza eskoletan egon sekula. Kastinean lirikoa dantzatzen jarri gintuzten, eta hor konturatu nintzen estiloa ez dela niretako.

# Umeen elikadura 'Erreportajea' saioan mintzagai

### Oñatiko Errekalde Herri Eskolako umeen elikaduraz arituko dira eguaztenean

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Oñatiko Errekalde Herri Eskolako umeen elikadura zer nolakoa den jakiteko aukera eskainiko zaizue datorren eguaztenean. Izan ere, Errekalde Herri Eskolako jangelako menuak eskolako umeen gurasoen eta dietista baten artean prestatzen dituzte. Jaki horiek egiteko, bertako produktuak erabiltzen dituzte eta ahalik eta modu osasuntsuenean egiten dituzte, gainera. Horretaz jarduteko, Herri Eskolako sukaldariarekin, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistarekin, gurasoekin, ikasleekin, irakasleekin eta zuzendariarekin egon da Julen Iriondo *Erreportajea* saioko arduraduna. *Zer jan, hori izan* izango da saioaren izenburua.

**GOITB, 'Erreportajea'**
> Eguaztena, 22:15
> Eguena, 23:15


Errekalde Herri Eskolan grabatu dute datorren asteko *Erreportajea*. A. EZKIBEL

# Pirritx eta Porrotx, eta Oreka TX

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Datorren astean ere opariz beteta datoz irratiko lankideak. Asteroko opariez gainera, Pirritx eta Porrotx pailazoek Eskoriatzan azaroaren 29an *Piratak* lanaren estreinaldirako sarrerak zozkatuko dituzte. Horrez gainera, Oreka TX taldeak Oñatiko gaztelekuan, azaroaren 22an, egingo duen kontzerturako sarrerak ere zozkatuko dituzte datorren astean. Parte hartzeko: *irratia@goiena.com* edo 943 25 05 05.

**Arrasate Irratia**
> Egubakoitza, 11:30etik 12:00ak bitartean


IKER BARANDIARAN

## Ana Ramos kirol kazetaria, 'Ilunpean' saioan, martitzenean

Ana Ramos kazetari eta aurkezlea EITBko *Teleberri* albistegiko kiroletako aurkezlea da; hain justu ere, Josu Loroñok utzitako postuan dihardu. Eguaztenetik zapatura bitartean duzue hura *Teleberri*-n ikusteko aukera. Eibartarra sortzez, egun Algortan bizi da. Eibarko *Eta Kitto!* aldizkarian eman zituen lehen urratsak kazetaritza alorrean. Beti aritu izan da kiroletan lanean, kazetari zein aurkezle lanetan.

**GOITB, 'Ilunpean'**
> Martitzena, 22:15
> Eguaztena, 15:10

## telebegi

Aitor Arregi
'aitor_arregi@huhezi.edu'

### Grouchok arrazoia

Buenafuentek Leopoldo Abadia ekonomialariari eginiko elkarrizketa ikustea gomendatzen dizuet. Youtuben daukazue, nahi izanez gero. Abadiak, gaur egungo super krisi honen gakoetako batzuk azaltzen ditu era umoretsuan. Bankuek bilioi bat euro izango omen dituzte eskura beraiek sortutako zulo itzelak tapatzeko.

Egun batzuk beranduago, zera entzun nion Nazio Batuetako beste aditu bati: Europa eta AEBetako bankuek jasoko dituzten laguntzen %3a nahikoa dela hurrengo 3-4 urteren barruan munduan dagoen gosearekin bukatzeko. %3!. Egin kontuak. Ez nekien gizateriak bizi duen arazo nagusiari aurre egitea horren erraz zutenik agintariek.

Ez dut populismoan erori nahi, baina... Ze jendek gobernatzen gaitu? Eta gu? Noiz hasi ginen kaka irensten eta guztiari amen esaten? "Gelditu ezazue mundua, ni hementxe jaisten naiz-eta". Groucho Marx. *En fin. Serafin.*

## arrasate irratia

FM 107.7

**Zapatua**
**10:00** Musika.

**Domeka**
**10:00** Musika.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak.
Ilunpean.
Zaharrak Berri.
Asteko protagonistekin elkarrizketak.
Gazteendako informazioa (Udal Gazte Bulegoa).
Sexologia kontuak (Sexologia Zerbitzua).
Zozketak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 25 05 05, *irratia@goiena.com*)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea. (errep.)

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 14**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide. Iraola eta Pagadi
**22:45** Danbaka: Lord wich/Hady holden.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 15**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Perretxikoen mundua.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Danbaka.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 16**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Danbaka.
**21:15** Perretxikoen mundua.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 17**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikuskizuna.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka: Lord wich/Hady holden.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 18**
**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Hanburgesak.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Los viernes al ron
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Ana Ramos
**23:00** Ikuskizuna.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 19**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea: Zer jan, hori izan.
**22:45** Perretxikoen mundua.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 20**
**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak
**13:45** Perretxikoen mundua.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Bitter honey.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea: Zer jan, hori izan.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Definizioak:

- * Irudiko zuhaitza
- Metalezko sokak
- Bartxuria
- Neurriak
- Eguzkiak
- Alderantziz, $H_2O$
- Mea
- Zaren hori
- Pilota jokaldia
- Espainiako diru ohiak
- Mahai estalkia
- Zakar
- Potasioa
- 2 kontso-nante
- Eroriak
- Euskal sindikatua
- Maiz, sarri
- Ez emankor
- Idi, hitz elkarketan
- Ozta
- Banatu
- Lehena eta azkena
- Bokala
- Sufrea
- Kontso-nantea

GOIENKARIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2 | 6 | | |
| | 8 | | | 9 | | 7 | | |
| | 4 | | 8 | | | 3 | | |
| 8 | | 9 | 5 | | | | | 1 |
| 3 | | | | | | | | 4 |
| 7 | | | | | 6 | | | 8 |
| | | 2 | | | 7 | | 9 | |
| | | 8 | | 1 | | | 5 | |
| | | 6 | 4 | | | | | |

## hieroglifoa

Ekaitzak... handiak ekarri ditu.



## hizki salda

5 euskal idazleren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| P | C | A | U | Z | A | R | A | S |
| I | R | B | I | C | H | K | M | L |
| A | E | A | H | A | A | O | R | I |
| R | T | U | T | E | N | O | I | T |
| R | I | D | U | X | K | E | N | S |
| E | N | F | M | A | A | S | O | I |
| S | O | G | F | N | I | G | O | R |
| P | S | M | E | O | T | O | A | A |
| E | Q | G | F | A | D | R | O | B |

## soluzioak



**Jeroglifikoa:** Kalte handiak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | S | | B | | E |
| | | | K | A | T | E | A | K |
| | | | | H | A | R | R | I |
| | D | | Z | A | M | A | U | A |
| P | E | Z | E | T | A | K | | K |
| | J | A | U | S | I | A | K | |
| L | A | B | | A | N | T | Z | U |
| | D | O | I | | A | Z | | S |
| P | A | R | T | E | K | A | T | U |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 9 | 3 | 7 | 4 | 2 | 6 | 8 | 5 |
| 6 | 8 | 5 | 3 | 9 | 1 | 7 | 4 | 2 |
| 2 | 4 | 7 | 8 | 6 | 5 | 3 | 1 | 9 |
| 8 | 6 | 9 | 5 | 3 | 4 | 2 | 7 | 1 |
| 3 | 2 | 1 | 9 | 7 | 8 | 5 | 6 | 4 |
| 7 | 5 | 4 | 1 | 2 | 6 | 9 | 3 | 8 |
| 4 | 1 | 2 | 6 | 5 | 7 | 8 | 9 | 3 |
| 9 | 7 | 8 | 2 | 1 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 5 | 3 | 6 | 4 | 8 | 9 | 1 | 2 | 7 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| P | C | A | U | Z | A | R | A | S |
| I | R | B | I | C | H | K | M | L |
| A | E | A | H | A | A | O | R | I |
| R | T | U | T | E | N | O | I | T |
| R | I | D | U | X | K | E | N | S |
| E | N | F | M | A | A | S | O | I |
| S | O | G | F | N | I | G | O | R |
| P | S | M | E | O | T | O | A | A |
| E | Q | G | F | A | D | R | O | B |

## bono fotoa



**Oñatiko zein ibilbidetan aurkitu daitezke era honetako mugarriak?**

**Argazkia eta galdera** > Iñigo Biain

**SUPER AMARA**

Super Amarak emandako
**60 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileen artean!

**ERANTZUNA** ..........................................................................

..........................................................................

IZEN-DEITURAK ..........................................................................

..........................................................................

TELEFONOA..........................................................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Arrasateko **Eli Garai Barandiaran**endako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: San Pedro eliza**



Arrasateko **Miren** eta Zarauzko **Karlos** joan den zapatuan, azaroaren 8an Zarautzen ezkondu ziren. Zorionak eta ondo-ondo pasa eztei-bidaian. Eskerrik asko. Mirenen lagunen partetik muxu handi bana.





**Arsenio Irazabalbeitia** antzuolarra eta **Felisa Loiti** aramaioarra 1958ko azaroaren 15ean ezkondu ziren Aramaioko Aixola auzoan. Urrezko ezteiak familia artean ospatuko dituzte bihar, zapatua, Antzuolan. Zorionak familiakoen partetik eta ondo pasa eguna.



**Oihana Urkia** eta **Eneko Amado** oñatiarrak bihar, azaroaren 15ean, ezkonduko dira Bidaurretako Monasterioan. Ondo pasa egun berezi hori eta goza ezazue ezkon bidaia. Muxu potolo bana etxeko guztien partetik!

## hildakoak

- **Felisa Martinez Estevez.** Bergaran, azaroaren 6an. 87 urte.
- **Angeles Elgea Urkiola.** Aramaion, azaroaren 7an. 68 urte.
- **Jose Manuel Lamikiz Izpizua.** Arrasaten, azaroaren 8an. 85 urte.
- **Ignacia Erostarbe Uriarte.** Oñatin, azaroaren 9an. 81 urte.
- **Antonia Rodriguez Soto.** Arrasaten, azaroaren 10ean. 76 urte.
- **Carmen Tenaguillo Vazquez.** Arrasaten, azaroaren 10ean. 77 urte.
- **Juana Maiztegi Elkoroberezibar.** Bergaran, azaroaren 10ean. 96 urte.
- **Modesta Gallastegi Arregi.** Aretxabaletan, azaroaren 10ean. 91 urte.
- **Pilar Altuna Alzola.** Aramaion, azaroaren 12an. 85 urte.

URTEURRENA

## Manoli Varona Fuente

Antonio Fernandezen alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 16an,
12:30ean
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Angel Goenetxea Uribarri

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 16an,
12:30ean
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara
eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera,
eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 25 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 25 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 25 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle.**




URTEURRENA

## Jesusa Sanchez Nozal

Julio Gonzalezen alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 16an,
12:30ean
Bergarako San Pedro elizan



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Antonio Aranburu Agirre

Lehen urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 15ean,
19:00etan Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.
–

*Seme zintzo eta adiskide noble,*
*Senar leial askoa,*
*Aita paregabe,*
*Lan ugari egina familiaren alde*
*Zurekin bizi izana*
*Guretzat ohore.*
*Zure Familia*



Oñatin, 2008ko azaroaren 14an.

URTEURRENA

## Iñaki Etxebarria Ibabe

Lehen urteurreneko meza igandean,
azaroaren 16an, 11:00etan
Arrasateko Garagartza auzoko San Migel elizan.
–

*Nahiz eta gure ondotik orain urtebete alde egindu egon,*
*jakin ezazu gure bihotz bihotzean zaudela.*



Elizkizunetarako joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko bere emazte eta alaben izenean.

ESKER ONA

## Modesta Gallastegi Arregi

Damaso Pagoagaren alarguna

**Aretxabaletan hil zen 2008ko azaroaren 10ean, 91 urte zituela.**

Elizkizunetara etorritakoei
eskerrak sendikoen partetik.
–
Domekan, azaroaren 16an, ondra meza izango da
11:00etan San Joan Bataiatzailearen parrokian.



Arrasaten, 2008ko azaroaren 14an.

OROIGARRIA

## Juanita Maiztegi Elkoroberezibar

Bergaran hil zen 2008ko azaroaren 10ean, 95 urte zituela.

*Beti izango zaitugu*
*gure bihotzean*



Etxekoak.
Bergaran, 2008ko azaroaren 14an.


Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

**Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99**
**e-posta: euskalduna@harrespil.net**

# Azaroak 14-20

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Erakusketa



ARRASATE

**> Oñatin bizi den Joxan Iza margolari bergararrak erakusketa ireki du**

Bergaran jaio baina azken 20 urteotan Oñatin bizi den Joxan Iza margolariak erakusketa dauka Arregi arte galerian (Maalako Errebala, 8). Abenduaren 4a arte dago zabalik, astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

## Zinema



ARRASATE

**> XIX. Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteko bi film luze, Amaian**

Donostian bukatu berri den Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemako Asteko *Millennium Actress* eta *Déjame entrar* (publikoaren saria irabazi duena) filmak emango dituzte gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 19:30ean hasita.

## Musika



OÑATI

**> '13 taupada' diskoa aurkeztuko du Sharon Stoner taldeak gaur**

Oñatiko Sharon Stoner taldeak *13 taupada* disko berria aurkeztuko du gaur Oñatin. 18:30ean, Xagu tabernan diskoa salgai eta entzungai izango da eta luntxa emango dute; 22:30ean, Ona tabernan kontzertua egingo dute.

## Musika

ELGETA

**> Danbaka lehiaketako hirugarren kontzertua, gaur**

Danbaka musika lehiaketako hirugarren kontzertua izango da gaur, egubakoitza. Honako taldeek joko dute: Los Viernes al Ron (Antzuola), Bitter Honey (Arrasate), Army-Arma (Zornotza) eta Brankan (Berriz-Markina).

Gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

ARRASATE

**> Losdelgas taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan**

Losdelgas taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan. Belladona eta Trainsalpine Boys taldeek ere joko dute.

Gaur, egubakoitza, 3.60an, 22:30ean.

ESKORIATZA

**> 'Une akustikoak' diskoa aurkeztuko du Keu Agirretxeak**

Inkernu tabernaren despedida egitarauaren barruan, Keu Agirretxeak Une akustikoak delako diskoa, bere lehen akustikoa, aurkeztuko du gaur, egubakoitza. Zazpi abesti batu ditu bizkaitarrak lan horretan.

Gaur, egubakoitza, Inkernun, 22:30ean.

ARRASATE, ARAMAIO

**> Santa Zezilia ospatzeko ekintzak Arrasate Musikalek**

Santa Zezilia eguna ospatzeko, honako ekintzak egingo ditu Arrasate Musikalek: etzi, domeka, txistularien kontzertua Aramaioko Gantzaga auzoko elizan, 12:00etan; 11:00etako mezan ere parte hartuko dute. Bestetik, martitzenean, hilak 18, Nafarroako Kutxan kontzertua egingo dute ikasleek, 18:00etan.

Ekitaldi gehiago izango dira datorren egubakoitzean, hilak 21.

BERGARA

**> Donato Goienetxe eta Xabier Arakamaren emanaldia**

Zabalotegi aretoaren inaugurazio ekitaldien barruan, Donato Goienetxe eta Xabier Arakamaren trikiti eta perkusio kontzertua izango da.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 19:30ean.

ARRASATE

**> Stoner musika jaialdia izango da 3.60 aretoan**

Stoner estiloko honako taldeek joko dute: Kaliforniako Brant Bjork & The Bros-ek eta Cobrak.

Etzi, domeka, 3.60 aretoan, 20:00etan.

OÑATI

**> Astulezek zuzendutako Kantika abesbatza**

Basilio Astulezek zuzentzen duen Leioako Kantika abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Ganbara Abesbatzak gonbidatuta, Ganbara Txikiren 5. urteurreneko ospakizunen barruan. Sarrerak salgai daude kultura etxean, 5 eurotan.

Kontzertua baino ordu bete lehenago eta baita ondoren ere, urteurreneko erakusketa ikusteko aukera izango da.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ESKORIATZA

**> Ez! musika taldeak zuzeneko emanaldia egingo du**

Ez! Oñatiko musika taldeak kontzertua egingo du Aldatz tabernan.

Bihar, zapatua, 19:00etan.

BERGARA

**> Hainbat disko-jartzaile ibiliko dira GoJam aretoan**

Kogollo Party Krew-ren eskutik, honako DJek girotuko dute gaua GoJam aretoan: Departure Brothers, Diego Casares, Xarlene VJ, Ene! Fari eta Balza. Sarrera 10 euro da.

Bihar, zapatua, GoJamen, gauerdian.

**> Epica taldeak kontzertua egingo du Jamen**

Epica taldearen zuzeneko emanaldia egongo da bihar, zapatua.

Sarrerak 22 eurotan salduko dituzte, bai aldez aurretik, bai txarteldegian.

Bihar, Jam aretoan, 20:00etan.

BERGARA

**> Disko-jartzaileek jardungo dute Ziripot tabernan**

Honako disko-jartzaileen emanaldiak izango dira Ziripot tabernan: Ene (live) & Departure Brothers & Diego Casares, gaur, egubakoitza; eta Alkate (klorofila) & Koldo Intermusic, bihar, zapatua.

Emanaldiok 23:00etan hasiko dira.

PROPOSAMENA

BERGARA

**> Su Ta Gar taldeak zuzenekoa egingo du Jam aretoan**

Su Ta Gar taldeak bere lehen kontzertua egin zueneko 20 urte bete ziren abuztuaren 14an. Hori ospatzeko, 20. Urtebetetze Ospakizun Bira egiten dihardu taldeak. Bada, bira horretako bigarren emanaldia Bergarako Jam aretoan izango da, bihar, zapatua, Jam aretoan. Sutazale guztiendako, aspaldian jo ez dituzten abesti asko entzuteko aukera izango da biharkoa.

Bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan; sarrera, 12 euro.



BERGARA

**> Presoen aldeko kontzertua izango da bihar gaztetxean**

Presoen aldeko kontzertua egingo dute Keike eta Nun taldeek.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE

**> Belceblues taldeak diskoa aurkeztuko du zuzenekoan**

Bergarako Belceblues jazz eta blues taldeak *Infer* bere estreinaldi diskoa aurkeztuko du zuzeneko emanaldi baten, Gure-Leku tabernan.

Etzi, domeka, Gure-Lekun, 19:00etan.

## Antzerkia

ARETXABALETA

**> 'Sexo gratis' antzezlana ikusteko aukera dago gaur**

Txirene taldeak *Sexo gratis* delako umorezko antzezlana egingo du. Sarrera 10 euro da.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:00etan.

ARETXABALETA

**> Moronda eta Lironda pailazoen emanaldia, asteburuan**

Moronda eta Lironda pailazoek emanaldia egingo dute bihar, zapatua. Sarrera doan da.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 17:00etan.

ARRASATE

**> Santa Marinako liburutegian, ipuin kontaketa saioa**

Santa Marinako auzo liburutegian, ipuin kontaketa saioa egongo da. Pello Añorgak 4 eta 6 urte artekoei kontatuko dizkie ipuinak.

Eguaztenean, hilak 19, 18:00etan.

ARRASATE

**> 'Haritzaren azalera zehatza' antzezlana, helduendako**

Kukubiltxo taldeak 30 urtean helduei zuzendutako bere lehenengo antzezlana egingo du: *Haritzaren azalera zehatza*. Norbere identitatea osatzen duen kulturaren mundura egindako bidaia da, eta Saioa izeneko neskatila itsua da bidaiaria.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE

**> Umorezko bakarrizketa eta musika emanaldia**

Martín Lunak musika eta umore emanaldia egingo du gaur, egubakoitza.

Gaur, Iamai kafetegian, gauerdian.

BERGARA

**> Umeendako ipuin kontaketa emanaldia egongo da**

Leire Iruin kontalariak ipuinak kontatuko dizkie 4 eta 6 urte arteko umeei.

Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 17:45-18:30.

# Ospakizunak

ARRASATE

**> Gaztaina-jana egongo da gaur, egubakoitza, plazan**

Arrasateko Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, gaztaina erre-jana egongo da gaur, egubakoitza. Herriko ume eta guraso guztiak daude ekintza horretara gonbidatuta.

Gaur, egubakoitza, Arrasateko plazan, 17:00etan.

OÑATI

**> San Martinak ospatuko dituzte San Martingo gaztetxean**

Honako ekintzak antolatu dituzte: gaztetxearen gaineko bideoa (Pako taberna, 18:00); triki-kalejira (Pakotik gaztetxera, 18:30); gaztain-jana eta txorizoa gaztetxean; puzker txapelketa (20:00) eta triki-kontzertua (20:30).

Bihar, zapatua, Pako tabernan eta gaztetxean.

ANTZUOLA

**> Gaztaina erre eguna ospatuko dute etzi, domeka**

Gaztaina erreak jateko aukera izango da etzi, domeka, egingo duten jaialdian.

Etzi, herriko plazan, 18:30ean.

# Lehiaketak

BERGARA

**> XVII. Amodiozko Gutunen Lehiaketa deitu du Jardunek**

XVII. Amodiozko Gutunen Lehiaketako deialdia egin du Jardun elkarteak. 1993an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezakete. Honako helbideetara bidal daitezke lanak: Amodiozko Gutunen XVII. Lehiaketa; Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g; 20570 Bergara. Posta elektronikoz: *amodiozkogutunak@euskalerria.org*. Sariak hauek dira: 500 euro, gutun onenarendako; 250, bigarrenarendako; 150, bergarar onenarendako; eta 100 euro, 26 urtetik beerako onenarendako. Argibide gehiago, *www.jardun.net* webgunean edo 943 76 08 19 zenbakian.

Lanak bidaltzeko mugaeguna urtarrilaren 6a da.

BERGARA

**> Uberako jaien inguruko logotipo lehiaketa deitu dute**

Uberako jaietarako zapiaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa deitu du hango jai batzordeak, Uberan jaio edo bizi direnendako, zein Uberan jaiotakoen seme-alaba eta bilobendako. *San Pauloak Uberan 2009* leloa agertu beharko da logotipoan. Estiloa eta bestelakoak libreak dira. Zapia laranja kolorekoa izango da, eta logotipoa, kolore bakarrekoa.

Norberak lan bakarra aurkez dezake. Honako helbidera bidali behar dira: Logotipo lehiaketa; Jaolatza elkartea; Ubera; 20570 Bergara.

Irabazleak 100 euro eta zapia jasoko ditu.

Lanak entregatzeko mugaeguna abenduaren 7a izango da.

# Zinema



## Las horas del verano ****

**Zuzendaria:** Olivier Assayas.
**Aktoreak:** Charles Berling, Juliette Binoche, Jérémie Renier, Edith Scob.
Frantzia, 2008.
102 min. 13 urtetik gorakoendako.

Behin baino gehiagotan izan dira Donostiako Zinemaldian Olivier Assayasen filmak. Duela urte batzuk *Finales de agosto, principios de septiembre* lan ederrak Sail Ofizialeko lehiaketan parte izan bazuen, aurten, beste zinemaldietan parte izan duten film apiagarrien artean, *Las horas del verano* heldu zaigu. Filmean, ama hil ondoren, hiru seme-alabak oinordetzarekin (lursail dotore eta handi bat ederlan ugariekin) zer egin erabaki behar duten istorioa azaltzen zaigu. Baina filma ez da handinahiari buruzko melodrama sutsu bat; anai-arreben ikuspuntuak desberdinak izan arren, eztabaidak oso zibilizatuak eta errespetu handikoak dira. Assayasek denborari buruz hitz egin nahi digu: garaiak nola aldatzen diren, eta nola belaunaldi bakoitzak bizimodu desberdina duen. *Las horas del verano*-k iraganaren eta oroitzapenaren pisuari buruz hitz egiten digu, baita sentimenduen eta praktikotasunaren artean sortzen diren gatazkei buruz. Ama lehengo garaiko ordezkaria da, bere bizitza lursaila eta familiaren ondare artistikoa eta sentimentala mantentzea izan da; seme helduenak amaren mundua ez galtzeko ahaleginak egingo ditu; eta beste biak garai modernoaren alde praktikoaren ordezkari dira.

*Las horas del verano* oso film frantsesa da. Istorio txiki bat erabiltzen denez, askok pentsa dezakete gauza gutxi gertatzen direla, baina anekdota horren barruan sentimendu desberdin asko antzeman daitezke: iragan eta oroitzapenen mamuak, horiek guregan duten influentzia, eta garai modernoaren alde suntsitzailea. Osagai horiek istorioaren giroan nabaritzen dira eta kutsu malenkoniatsu bat ematen diote. Zuzendaria modu dotorean eta sentsibilitate handiz hurbiltzen da epeltasun leunez betetako istorio honetara.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE
### AMAIA ANTZOKIA

**Vicky Cristina Barcelona**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**La isla de Nim**
Domeka: 17:00.

### ELGETA
### ESPALOIA

**La fiera de mi niña**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
### KULTURA ETXEA

**High School Musical 3**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Horton**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR
### UNZAGA

**El niño con el pijama de rayas**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:30.

### GASTEIZ
### GURIDI

**Saw V**
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Una amistad inolvidable**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:45.

**Red de mentiras**
17:30, 20:00, 22:30.

**La buena nueva**
17:30, 20:00, 22:30.

**No me pidas que te bese porque te besaré**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 22:35.

**El último voto**
17:30, 20:00, 22:30.

**High School Musical 3**
Egubakoitza: 18:00, 20:15.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:30, 20:35.

**Disaster movie**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

**Retorno a Brideshead**
Egubakoitza: 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:45.

**Quemar después de leer**
Egubakoitza: 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 18:30, 20:30, 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

**Nadar**
18:00, 20:15, 22:30.

**Bella**
18:00, 20:15, 22:30.

**Gomorra**
17:25, 20:00, 22:35.

**Cenizas del cielo**
22:30.

**The fall**
17:30, 20:00, 22:30.

**Las horas del verano**
17:30, 20:00, 22:30.

**Los niños de Huang Shi**
18:00, 20:15.

**Sólo quiero caminar**
17:30, 20:00, 22:30.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**High School Musical 3**
12:15, 15:35, 17:45, 20:00.

**Hermanos por pelotas**
12:15, 16:15, 18:15.

**Che, el argentino**
19:30, 22:00, 00:30.

**Sólo quiero caminar**
19:50, 22:15, 00:40.

**Noches de tormenta**
20:25, 22:25, 00:25.

**Viaje al centro de la Tierra**
12:15, 16:40, 18:40.

**Transsiberian**
18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Quemar después de leer**
12:15, 15:45, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Red de mentiras**
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

**El niño con el pijama de rayas**
12:30, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Una amistad inolvidable**
12:15, 16:10, 18:10.

**Max Payne**
20:10, 22:10, 00:10.

**La conspiración del pánico**
20:15, 22:25, 00:35.

**Camino**
22:10.

**Saw V**
12:15, 15:30, 17:30, 19:30, 21:30, 23:30.

**Misión en Mocland**
12:15, 16:20, 18:05.

**El reino prohibido**
12:15, 16:05, 18:15.

**La buena nueva**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Una novia para dos**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**El espíritu del bosque**
12:15, 16:25.

**Disaster movie**
20:30, 22:15, 00:05.

**Space chimps**
12:15, 16:00, 17:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

### ÁBACO BOULEVARD

**Que parezca un accidente**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**High School Musical 3**
16:00, 17:00, 18:20, 22:00.

**El niño con el pijama de rayas**
20:15, 22:20.

**Una novia para dos**
16:00, 18:05, 20:20, 22:35, 01:00.

**Transsiberian**
22:05.

**Noches de tormenta**
17:00, 19:00.

**Max Payne**
16:30, 19:00.

**Los niños de Huang Shi**
19:20, 22:10, 00:30.

**Saw V**
16:10, 18:10, 20:25, 22:35, 00:45.

**Disaster movie**
16:05, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

**Red de mentiras**
16:30, 19:15, 22:15, 01:00.

**El último voto**
17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

**Quemar después de leer**
16:10, 18:15, 20:20, 22:20.

**Hermanos por pelotas**
16:05, 18:10.

**Sólo quiero caminar**
22:00, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.



**High School Musical 3** ***

AEB, 2008. Zuzendaria: Kenny Ortega. Aktoreak: Zac Efron, Vanessa Hudgens.

112 min. Guztiondako. Musikal honetan, Troy eta Gabriella institutuko azken ikasturtean daude, eta banantzera doaz, unibertsitate desberdinetara doazeta. Wildcats taldeko gainerako kideekin, udaberriko musikal bat lantzen dute, euren esperientziak, itxaropenak, beldurrak... eszenario gainera eramateko.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Sólo quiero caminar** ***
Espainia-Mexiko, 2008.
Zuzendaria: Agustín Díaz Yanes.
Gloria, Aurora, Ana eta Paloma lapurreta egiten saiatu dira, baina gaizki irten zaie eta Aurora kartzelan dago.

**Noches de tormenta** **
AEB-Australia, 2008. Zuzendaria: George C. Wolfe.
Adriennek, banandu berri den emakumeak, krisian dagoen mediku bat ezagutuko du.

**Max Payne** **
AEB, 2008. Zuzendaria: John Moore.
Max Payne poliziarendako, justizia edozein arauren gainetik dago, eta horren bidetik ekingo dio familiaren hilketa mendekatzeari.

**Transsiberian** **
Espainia-Alemania-Erresuma Batua-Lituania, 2008.
Zuzendaria: Brad Anderson.
Transsiberian luxuzko trenean, bi bikotek elkar ezagutzen dute: Roy eta Jessiek, eta Carlos eta Abbyk. Halako baten, ordea, Roy desagertu egiten da.

**Una amistad inolvidable**
Frantzia, 2008. Zuzendaria: Luc Jacquet.
Udazkeneko goizalde baten, neskatila batek azeri bat topatzen du eta harengana hurbiltzen da.

**Red de mentiras** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Ridley Scott.
CIAko Roger Ferris kideak Jordaniatik kanpo dihardluen buruzagi terrorista bat deskubritzen du eta haren sarean infiltratu behar da. Horretarako, beste bi gizonen konfiantza irabazi beharko du.

**Misión en Mocland**
Espainia, 2008. Zuzendaria: Juan Manuel Suárez.
Moc planeta arriskuan dago: hango bizi-euskarria desagertu egin da, eta planetako tximuak desagertzeko zorian dira.

**Los niños de Huang Shi** **
Australia-Alemania-Txina, 2008.
Zuzendaria: Roger Spottiswoode.
George Hogg kazetari ingeles gaztea Txinara iristen da 30eko hamarkadan, gudaroste japoniarrek herrialde hura hartzen dabiltzan garaian. Ihesaldian, Huang Shi-ko umezurztegira iristen da.

## nire aukera



Txemi Mantecon
Gurutze Gorriko langilea
Bergara

## "Lasaitu egiten naiz asteburuan"

Asteburuetan lasaitzeko astia hartzea gustatzen zait. Familiarekin edo kudrilarekin egoten naiz normalean. Batzuetan poteora irteten gara; Ermuakoa naizenez, hango tabernetatik ibiltzen naiz. Hainbat asteburuetan Gurutze Gorriko boluntario ekintzetan parte hartzen dut Elorregin.

Urri amaieran, Arrasaten erakusketa bat antolatu genuen. Erabiltzen ditugun tresnak eta baliabideak eraman genituen bertara eta hurbildu zirenei erakutsi genizkien. Arratsaldean jende dexente gerturatu zen eta pozik amaitu genuen eguna.

**Kanpaina berriren bat jarri duzue abian Gurutze Gorrian?**
Datorren asteburuan, adibidez, uraren erabileraren inguruko erakusketa bat antolatu dugu Oñatiko kultur etxean. Gainera, osasunarekin lotutako hainbat ikastaro hasiko dira laster.

**Hilabete barru Gabonak datoz. Zerbait berezia prestatuko duzue?**
Abenduan, jostailuaren kanpaina delakoa hasiko da. Ume guztiek jostailu bat izan dezaten jendeak ekarri eta egoera onean dauden jostailuak biltzen ditugu gero, behar dituztenen artean banatzeko.

**Zenbat urte daramatzazu Gurutze Gorrian?**
Elorregin duela sei urte hasi nintzen. Aurretik Eibar aldean ibilia nintzen. Anbulantzia gidaria naiz eta bulegoko lanak ere egiten ditut batzuetan.

**Lehen baino boluntario gutxiago daudela entzuten da azkenaldian. Hala da?**
Boluntario gutxiago daude, bai. Kolaboratzaileak momentu puntual batzuetan laguntzen dute, baina konpromiso handiagoa lortzea oso zaila da. Nire aldetik, guztiak partehartzera animatu nahi ditut. Gure ateak irekita daude edonorendako, 18 urte nahiz 60 izan.

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com


# Aurkezle saritua arrasatearra

**ONDAS** 'La ruleta de la suerte' eta 'Esta casa era una ruina' saioetako aurkezleak Ondas saria jasoko du

**ZORIONAK** Urruti dauzkan lagunek zoriontzeak asko poztu duela esan digu Madrildik

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE
Azaroaren 20an banatuko dituzte Bartzelonan egingo den jaialdi batean Ondas sariak. Telebistako aurkezlerik onenaren saria arrasatear batek eskuratu du; Antena 3 telebista katean diharduen Jorge Fernandezek.

Arrasatearra gozatzen dago, "aurkezle batek bere karreran lor dezakeen saririk garrantzitsuenetarikoa" delako. "Sari hau zortzi urteotan telebistan egindako lanaren eta ahaleginaren esker ona da. Ondas saria goizegi jaso dut, beharbada, gehienetan eskarmentu handiko jendeari ematen zaio, telebistan urte askoan diharduenari. Mister España moduko lehiaketa bat irabazi ostean hasi nintzen telebistan, baina hau ez da zorte kontua bakarrik, lan handia dago atzetik", esan digu Jorge Fernandezek.

**BI SAIO**

Aurkezle moduan arrasatearrak duen aldakortasuna azpimarratu dute saria ematerakoan. Izan ere, elkarrengandik oso ezberdinak diren bi saio gidatzen ditu: *La ruleta de la suerte* eguneroko saioa eta platoan egina; eta *Esta casa era una ruina* kanpoan eta istorio hunkigarriekin egindakoa. "Bi erregistro eta profileko saioak izateak ahalbidetu dit saridunaizatea", dio aurkezleak.

*La ruleta de la suerte* saio dibertigarria, dinamikoa eta arina dela dio Jorge Fernandezek: "Lehian egon da betiko goizetako magazineekin. Horrelakoekin kokoteraino zeudenei beste aukera bat eman diegu. Umeek, esaterako, eskolatik irtendakoan ikus dezaketen saioa da. Ikusi ez ezik, etxetik jolas egin dezakete gurasoekin, aiton-amonekin..."

*Esta casa era una ruina*, hunkigarria den neurrian berezia dela esan digu: "Ikusleak pentsa dezake saioan kontatzen dena berari noizbait pasa dakiokeela edo pasako balitzaio sekulakoa izango litzatekeela. Saioa sentipen berezia uzten dutenetakoa da".

Saridun dela jakin ostean, sari banaketa ekitaldiarekin gozatzea da bere asmoa; "horrelako gauza bat bizitzan behin tokatzen delako. Han komunikazioaren munduko jende esanguratsuak zorionduko nauela pentsatze hutsak hunkitu egiten nau", dio. Hala ere, gehien gustatu zaiona da betiko lagunek zoriontzea: "Urruti dauzkadan lagunek, Arrasatekoek, esaterako, nire lanarengatik zorionak ematen deitu didatenean asko poztu naiz, bihotzez zoriondu nautelako". Debagoienetik, bada, zorionak.



**ANTENA 3** Jorge Fernandezek Antena 3 katean dihardu egun. ANTENA 3

## ahobero

**"Turkian hamar objektu baino gehiago botatzen dituzte zelaira partiduko, baina ez da ezer gertatzen. Zapatuan, epaileak beldurra zeukala zirudien"**

**Necati Ates** > Realeko jokalaria
Zaleei errespetua eskatzea ez da beldurra izatea. Ezin dena onartu da futbol zelaira kirola ikustera doanak objektuak edo bestelakoak jaurtitzea.

## iturri onetik

**Moises Azpiazu dantza taldeak erakustaldia egingo du hilaren 29an**

Moises Azpiazu dantza taldeak Oreretako Beti-prest dantza taldearekin batera egingo du erakustaldia, Udal pilotalekuan. Helburua euskal kultura sustatzea eta urteetan Bergarak dantza soltean izan duen protagonismoa ez galtzea izango da. Ordubeteko saioa izango da, eta Oreretako 35 lagun eta Bergarako 32 lagunek egingo dute dantza. Denetariko dantzak egingo dituzte.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### 25 urte

Ez naiz AEDren fundatzaile, ez nintzen artean Arrasaten bizi. Elkartea sortu eta gutxira abiatu zen *Arrasate Press*, eta orduan igo nintzen euskalgintzaren autobus berritzailera. ATBko lehen txanpa eta laster etorriko zen Arko; eta horrek bai, bete-betean harrapatu ninduen: elkarte berriaren lehen presidentea izan nintzen. Eta hor ikasitakoa oinarri izan nuen gero Goiena sortzeko orduan.

Sasoi betea izan zen, sormen eta kemen handikoa. Une askotan bidegile izan ginen, eta eskuzabal jokatu genuen atzetik etorri zirenekin, denentzat erreferentzia bihurtzeraino. Oraintsu betetzen ditu 25 urte AEDk, eta ospakizun programa bikaina dator. Baina, pozarekin batera, kezka ere hor dago: non da orduko sormena?

## ai, ene!



**Sakelako telefonoa beharrean, bizkarrekoa**

Dei garrantzitsuren baten zain egongo da mutila... Sakelako telefonoa modernoenen garaian, bizkarrekoa hartuta irten da hori.

www.jaranablog.blogspot.com/



Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51